

**JAI – IGANDEETAKO**

**IRAKURGAIAK**

**URTEAN ZEHAR**

**A**



***JAI – IGANDEETAKO***

***IRAKURGAIAK***

***URTEAN ZEHAR***

***A***



- 'Berrogeitasei urte behar izan ziren jauretze hau egiteko, eta Zuk hiru egunetan jaso?'

Baina Jesusek bere gorputzaren jauretzea esan nahi zien. Hilen artetik berbiztu zenean gogoratu ziren ikasleak honetaz, eta sinetsi zuten Liburu Santuak eta Jesusek esandako hitza.

### Oparigaien otoitza

Onar, Jauna, egiten dizugun eskaintza, eta emaguzu, hemen otoitzean bilduta gaudenoi, sakramentuen indarra eta gure otoitzen fruitua. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Otoitz-etxe guztietan zaude Zu eskuzabal, eta zure graziaz beti lagunduz, Zuk egiten gaituzu Espiritu Santuaren bizileku, bizitza santuaren argiaz ditziratsu.

Beti eta beti santutzen duzu, Jauna, Kristoren emazte den eta agiriko etxe hauek adierazten duten Eliza; horrela, hainbeste seme-alabaren ama zoriontsu eginik, zure aintza aurkeztua izan dadin zeruetan.

Horregatik, santu eta aingeru guztiekin goresten zaitugu, beti eta beti abesten dizugula:

### Jaunartze-antifona

Zuek ere, harri bizi bezala, Espirituaren etxegintzan parte hartzen duzue, eta apaizgo santu izango zarete.

### Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko Jauna, lurreko Eliza zeruko Jerusalemen ezaugarri egin duzu; sakramentu honen bidez, egin gaitzazu orain Espiritu Santuaren bizileku eta gero eraman gaitzazu zeruko etxera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

## URTEAN ZEHAR II IGANDEA

### Sarrerako antifona

Ahuspeztu bedi, Jainko, lur osoa zure aurrean, eresi eginez; zure izenari, goi-goiko, eresi eginez.

### Kolekta otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa, Zure esku dauzkazu zeru-lurrak; entzun bihotz onez zure herriaren eskariak eta eman zure bakea gure egunotan. Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

### Isaias profetaren liburutik 49,3.5-6

Jaunak honela esan zidan:

"Zu, Israel, nere morroi zara, zukan dut gorespena".

Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabeletik

bere serbitzurako deitu ninduen;

Jakob Beregana bihurtzeko eta Israel biltzeko;

izan ere, halako ospea eman zidan Jaunak, eta Jainkoa izan zen nere indar.

Eta hau esan dit:

"Oso gutxi da zu nire serbitzari izatea,

Jakoben leinuak eraikitzeko

eta gelditzen diren israeldarrak herriratzeko.

Atzerrien argi egiten zaitut,

nere salbamena

lurraren azken-mugaraino iritxi dadin".

### ERANTZUN-SALMOA

39

### HEMEN NATOR NI, HEMEN, JAUNA, EGIN DEZADAN ZUK ESANA.

Opari eta eskaintzarik ez duzu nahi izan, baina belarriak ireki dizkidazu; erre-opari eta hoben-oparirik ez duzu eskatu, eta orduan esan dut nik: 'hemen nauzu'.

Liburuan nitaz hau dago idatzia:  
egin dezadala zure nahia.  
Ene Jainko, gogozko zait hori,  
eta bihotz-mamian daukat zure legea.

### **San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1 Kor 1,1-3**

Paulok, Jaungoikoak hala nahita Jesu Kristoren apostolu izateko deituak, eta Sostenes anaiak: Korinton dagoen Jaungoikoaren Elizari, Kristo Jaunagan santutuei, herri santu izatera deituei, Jesu Kristo gure Jaunaren –gure eta haien Jaunaren– izena toki guztietan aitortzen duten guztiei: grazia zuei eta bakea gure Aita Jaungoikoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik.

**ALELUIA** Hitza haragi egin zen,  
eta gure artean jarri zuen bizilekua.  
Onartu zuten guztiei  
Jaungoikoaren seme-alaba  
izateko eskubidea eman zien. **ALELUIA!**

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburitik 1,29-34**

Aldi hartan, ikusi zuen Joanek Jesus berarengana etortzen, eta esan zuen:

- ‘Hona hemen Jaungoikoaren Bildotsa, hona munduko bekatua kentzen duena. Honentzat esan nuen nik: Nire ondoren dator neri aurea hartu didana, ni baino lehenagotik bait zen. Nik ez nuen ezagutzen; baina Bera Israeli ager zekion etorri nintzen ni, urez bataiatzen’.

Eta aitormen hau egin zuen Joanek:

- ‘Espiritua ikusi dut usoa bezala zerutik jaisten, eta Haren gainean gelditzen. Nik ez nuen ezagutzen; baina urez bataiatzera bidali ninduenak Berak esan zidan: “Espiritua jaisten eta gainean gelditzen zaiola ikusten duzuna, Hura da Espiritu Santuaz bataiatzen duena”. Bai, nik ikusi dut, eta aitortu ere aitortzen dut: Hau dela Jaungoikoaren Semea’.

Jainkoa dugu gordeleku eta indar,  
Hura atera zaigu estualdian laguntzaile azkar.  
Horregatik ez gara beldurtuko lurra bada dardaratzen,  
nahiz mendiak itsaserdira erortzen.

Ibai-besangek alaitzen dute Jainko-hiria,  
Goigoikoaren bizileku guztiz santua.  
Jainkoa dauka erdian, ez da kolokatuko,  
argi-txintarekin Jainkoak du lagunduko.

### **San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1 Kor 3,9b-11.16-17**

Senideok: Zuek Jaungoikoaren etxe zarete. Jainkoak eman didan graziaren arauera, nik oinarriak ipini ditut, etxegile trebe bezala; eta beste batek eraikitzen du etxea. Ikus beza bakoitzak, nola eraikitzen duen. Ipinita dagoen oinarriaz besterik, ez dezake inork ipini, eta oinarri hori Jesu Kristo da.

Ez al dakizue, Jaungoikoaren etxe zaretela eta Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi dela? Jaungoikoaren etxea hondatzen duena, Jaungoikoak hondatu egingo du. Jaungoikoaren etxea santua bait da: etxe hori, berriz, zuek zarete.

**ALELUIA** Leku hau aukeratu dut eta sagaratu -dio Jaunak-  
eta nere izena hemen egongo da beti zuekin. **ALELUIA!**

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa san Joanen liburitik 2,13-22**

Judutarren Bazkoa hurbil zegoen, eta Jesus Jerusalemara igo zen. Jauretxean idi, ardi eta uso-saltzaileak aurkitu zituen, eta dirulariak eserita. Zigor bat lokarri egin eta jauretzetik bota zituen denak, ardi eta idiekin, diruak sakabanatuz eta mahaiak irauliz. Eta uso-saltzaileei honela esan zien: “Ken horiek hortik! Ez bihurtu azoka-etxe nere Aitaren etxea”.

Eta ikasleak, idatzirik dagoenaz gogoratu ziren: ‘Zure etxearekiko maiteminak jango nau’.

Orduan judutarrek, tartetik sartuta, esan zioten: ‘Zer ezaugarri ematen diguzu, hori egiteko?’

Eta Jesusek: “Xeha ezazue jauretze hau, eta hiru egun barru jasoko dut”.

Judutarrek erantzun zioten:

**LETRANGO ELIZA SAGARATZEA – azaroak 9****Sarrerako antifona**

Hiri santua ikusi nuen –Jerusalem berria-, bere senargaiarentzat apaindutako andregai bezala, zerutik Jainkoagandik jaisten.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, harri biziz eta bereziz eraikitzen duzu zure aintzaren betiko etxea;  
emaizkiozu ugari zure Elizari Espiritu Santuaren dohainak,  
zure herria Kristoren gorputz bezala hazi dadin  
eta, egunen batez, Jerusalem berria izatera iritsi.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

(Irakurgaiak Elizaren sagaratzearen betikotik aukeratzeko dira)

**Ezekiel profetaren liburutik 47,1-2.8-9.12**

Egun haietan, jauretxeko atarira eraman ninduen berriro aingeruak; jauretxeko ate-azpitik ura zerion sortalderantz; jauretxea sortalderantz begira zegoen. Ura, berriz, jauretxearen eskuin-aldetik jaisten zen, aldarearen hego aldera. Ipar aldeko atetik aterarazi ninduen, eta etxe inguruan barrena eguzki-aldera begira zegoen ateraino eraman. Eta han ere eskuin-aldetik zihoan ura. Eta honela esan zidan: “Ur hau sortalderantz dihoa; eta Araba-ibaira jaitsi eta ur-usteleko itsasoan sartuko da, eta itsasoko urak garbitu egingo ditu. Ibai hori noranahi sartzeko delako, hango uretako bizidun guztiak biziko dira, eta arrainak ugari izango dira; ur hau hara sartuz gero, itsasoak garbitu egingo dira; eta ibaia sartzeko den toki guztietan bizia izango da. Ibai-ondoan, haren bazter bietan, mota guztietako zuhaitz fruitudunak haziko dira; haien hostorik ez da eroriko, ez zaie fruiturik bukatuko ere. Hilero fruitu berriak emango dituzte, horko urak santutegitik sortzen bait dira. Eta fruitu horiek janari izango dira, eta hostoak sendagai”.

**ERANTZUN-SALMOA 45**

**KANTA JAUNARI KANTU BERRI,  
EGIN BAIT DITU HAINBAT HARRIGARRI.**

**Oparigaien otoitza**

Egizu, Jauna,  
zintzo hurbil gaitzela sakramentu honetara;  
gure erospena egiten bait da  
opari hau oroigarri ospatzen dugun bakoitzean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartzeko antifona**

Guk ezagutu dugu eta sinestu Jaungoikoak digun maitasuna.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Isur ezaiguzu, Jauna, zure maitasun-espirtua,  
zeruko ogi bat beraz janaritu gaituzunok  
zure maitasunean bat egin gaitzazun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**URTEAN ZEHAR III IGANDEA****Sarrerako antifona**

Kanta Jaunari kantu berri; kanta, lur osoa, Jaunari. Ditzira eta edertasuna daude Haren aurrean, indarra eta argia Haren jauretxean.

**Kolekta otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
zuzendu zure gogora gure bizitza,  
fruitu on ugari eman dezagun  
zure Seme maitearen izenean.  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin Jainko eta errege  
bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

**Isaias profetaren liburutik****9,1-4**

Aldi batez, Jaunak lotsakizunez bete zituen  
Zabulon eta Neftali-ko lurraldeak;  
orain, ordea, ospez beteko du  
Jordan-ez beste aldetik datorren itsasoko bidea,  
jentilen Galilea.  
Ilunpetan zebilen herriak  
argi haundi bat ikusi zuen;  
herio-itzalean bizi zirenak  
ditzira batek argitu zituen.  
Gehitu zenuen poza  
eta haunditu atsegina;  
pozetan dabilta zure aurrean,  
igitai-aroan izaten den pozez,  
arrapakinak banatzerakoan izaten den atseginez.  
Puskatu baituzu  
haren uztarri astuna,  
haren bizkar-makila, eta zapaltzailearen zigorra,  
Madiango egun hartan bezala.

**3****Sarrerako antifona**

Jesus hilen artetik biztu zuen Jaungoikoak bizieraziko ditu gure gorputz hilkorrak ere, gudan bizi den bere Espirituaren bitartez.

**Kolekta otoitza**

Jauna, zure Seme bakarra biztu egin zenuen,  
heriotza garaiturik, zure erreinuan sar zedin;  
egizu, hildako gure senideek ere,  
beren izate hilkorra garaiturik,  
betierean ikus zaitzateela Zu,  
beren Egile eta Salbatzaile Hori.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Oparigaien otoitza**

Onar, Jauna,  
Kristorengan lotan dauden guztien alde  
egiten dizugun eskaintza:  
zure Semearen opariak  
atera ditzala heriotzaren lokarrietatik  
eta iritsi diezaiela betiereko bizia.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 57-61 or.)

**Jaunartze-antifona**

Guk salbatzaile bat itxaroten dugu: Jesu Kristo gure Jauna,  
Berak aldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren  
antzeko eginez.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Eskaini dizugun opari honen bidez,  
isur ezazu, Jauna, zure erruki ugaria  
gure senide hilen gainera;  
eta Bataioan zure grazia eman zenienei  
emaiezu orain betiko zorionaren betea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.



**Sarrerako antifona**

Emaiezu, Jauna, betiko atsedena, argi egin biezaie betiko argiak.

**Kolekta otoitza**

Zu zara, Jauna, fededunen bizia,  
Zu zintzoen zoriona;  
Zuk salbatu gaituzu zure Semearen heriotza eta biztueraz;  
erruki zaitetz hildako gure senideetaz,  
eta Kristorengan biztuko garela sinestu dutenez gero,  
goza dezatela betiko zoriona.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Oparigaien otoitza**

Jainko ahalguztidun errukitsua,  
Meza honetan eskaintzen den Kristoren odolaz  
ken itzazu zure serbitzari hilen bekatuak;  
zure bihotz onak garbiago egin ditzala  
Bataioko uretan garbitu zenituenak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

(Prefazioa 57-61 or.)

**Jaunartze-antifona**

Betiko argiak argi egin biezaie, Jauna; bizi bitez zure santuekin  
betiko, errukior bait zara. Emaiezu, Jauna, betiko atsedena, eta argi egin  
biezaie betiko argiak; bizi bitez zure santuekin betiko, errukior bait zara.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko Jauna,  
gugatik hil eta aintzaz biztu zen  
zure Semearen sakramentua harturik,  
gure senide hilen alde eskatzen dizugu:  
Kristoren bazko-misterioan garbituta,  
zorion betea iritsi dezatela biztuera egunean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**JAUNA DUT ARGI ETA SALBAMEN.**

Jauna dut argi eta salbamen,  
nork ni beldurtu?  
Jauna biziaren babes,  
nork ni izutu?

Jaunaren ontasuna ikusi ustean  
nago bizien lurtean.  
Itxaron Jaunagan eta kemen izan,  
bizkor bekizu bihotza, eta itxaron Jaunagan.

**San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1 Kor 1, 10-13.17**

Senideok: Jesu Kristo gure Jaunaren izenagatik eskatzen  
dizuet; izan zaitetzte iritzi bereko, eta ez ibili banatuta; bat egizue  
elkarrekin, iritzi bereko eta gogo bereko izanez.

Izan ere, ene senideok, Kloe-nekoek jakinarazi didate,  
eztabaidak direla zuen artean: hor ari omen zarete, noski, bakoitza  
bere aldetik esaten: 'Ni Paulorena naiz, ni Apolorena; ni Pedorena,  
ni Kristorena'.

Zatituta al dago Kristo? Paulo gurutziltzatu ote zuten, bada,  
zuengatik? Edo-ta Pauloren izenean bataiatuak izan ote zarete?

Kristok ez ninduen bataiatzera bidali, berri ona zabaltzera  
baizik; eta hori ere, ez jakinduriazko hitzez, Kristoren gurutzeak  
indarrak gal ez dezan.

**ALELUIA** Jesusek erreinuko berri ona hots egiten zuen,  
eta gaitz guztiak sendatzen zituen herrian. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 4,12-23**

Joan baitu zutela jakin zuenean, Jesus Galileara baztertu zen.  
Nazaret utzirik, itsas bazterreko Kafarnauna joan zen bizitzera,  
Zabulonon eta Neftaliren mugetara. Horrela bete zen Isaias profetak  
esana:

*'Zabulonon lurraldea, Neftaliren lurraldea,  
itsas bidea, Jordanez beste aldean,  
atzeritarren Galilea.  
Ilunbetan zebilen herriak argi haundi bat ikusi zuen;  
herio-itzalpeko lurraldean zeudenei  
argi bat agertu zitzaien'.*

Orduan hasi zen Jesus hotsegiten eta esaten:

- “Bihotz-berri zaitezte, hurbil da-eta zeruetako erreinua”.

Jesusek, Galileako itsas bazterrean zebilela, bi anaia ikusi zituen –Pedro zeritzan Simon eta haren anaia Andres–, itsasoan sareak botatzen, arrantzaleak bait ziren. Eta esan zien:

- “Zatozte Nerekin, eta giza arrantzale egingo zaituztet”.

(Haiek berehala sareak utzi eta jarraitu egin zioten.

Handik aurrera zihoala, beste bi anaia ikusi zituen –Santiago eta Joan, Zebedeoren semeak–, itsas ontzian sare-konpontzen ari zirela beren aita Zebedeorekin; eta dei egin zien. Haiek ere, berehala ontzia eta aita utzi eta jarraitu egin zioten.

Jesus Galilea osoan barrena zebilen, haien sinagogetan erakusten, erreinuko berri ona hotsegiten, eta gaitz eta min guztiak sendatzen herrian).

### Oparigaien otoitza

Begi onez begira, Jauna, gure eskaintzari:  
gu santu egin gaitzala eta salbatu.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Jaunartze-antifona

Neu naiz muduaren argia –dio Jaunak–; nere ondoren datorrena ez dabil ilunpetan; izango du bizirako argia.

### Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko ahalguztiduna,  
bizi berriaren grazia eman diguzu;  
egizu, bizi berri honek beti poztu gaitzala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

## HILDAKO FEDEDUN GUZTIEN OROIPENA –azaroak 2

### 1

#### Sarrerako antifona

Jesus hil eta biztu den bezala, Jesusengan hil direnak ere Jaungoikoak Harekin batean Bereganatuko ditu. Adanengan guztiak heriotza duten bezala, Kristorengan bizia izango dute guztiak.

#### Kolekta otoitza

Bihotz onez entzun, Jauna, gure eskariak,  
eta sendoago egizu, arren,  
zure Seme hilen artetik biztuagan dugun fedea,  
gure senide hilak biztuko diren itxaropena ere  
gugan sendoagoa izan dadin.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

(Irakurgaiak hiletako liturgiatik aukeratzen dira)

#### Oparigaien otoitza

Begi onez begira, Jauna, gure eskaintza honi,  
hildako fededun guztiak zure erreinuan sar daitezten,  
bere maitasun-misterioan  
bat egiten gaituen zure Semearekin.  
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

(Prefazioa 57-61 or.)

#### Jaunartze-antifona

Ni naiz Biztuera eta Bizia –dio Jaunak–; Nigan sinesten duena,  
hilik ere, biziko da; eta Nigan sinestuz bizi dena, ez da inoiz hilko.

#### Jaunartze ondorengo otoitza

Ireki iezaiezu, Jauna, hildako gure senideei  
argi eta bake den zure etxea,  
haien alde ospatu baitugu bazko-sakramentu hau.  
Jesu Kristo zure Semearen bitartez. AMEN.

**Prefazioa**

Egoki da, bai, eta zuzen  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Pozez beterik ospatzen dugu gaur zure hiri santua,  
geure ama dugun zeruko Jerusalem:  
han dauzkagu orain bildurik gure senide zorionsuenak  
beti eta beti Zu goresten.

Hara goaz gu ere, fedearen bidetik,  
erromesak erbestean bezala,  
pozik ikusten ditugula zeruko argi ederrean  
Elizaren seme-alabarik onenak;  
beroiak ditugu laguntza eta eredu gure ahultasunean.

Horregatik,  
santu hauekin eta aingeru guztiekin batean,  
bihotz batez gorralpen hau kantatzen dizugu:

**Jaunartze-antifona**

Zorionekoak, bihotzez garbi direnak;  
hauek ikusiko dute-ta Jaungoikoa.  
Zorionekoak, bakegileak;  
Jaungoikoaren seme esango bait zaie.  
Zorionekoak, zuzenagatik erasotuak;  
hauena da-ta zeruetako erreinua.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko Jauna, Santu guztien jaiegun honetan,  
Zu aitortzen zaitugu harrigarri, Zu bakarrik santu;  
eta zure grazia eskatzen dizugu,  
zure maitasun beteaz santu egin gaitzazun,  
eta, lurreko mahai santu honetatik,  
zeruetan prestaturik daukazun mahai santura  
eraman gaitzazun.  
Jesu Kristo zure Semearen bitartez. AMEN.

**URTEAN ZEHAR IV IGANDEA****Sarrerako antifona**

Jauna, gure Jainkoa, onik atera gaitzazu, atzerrietatik bil  
gaitzazu; zure izen santua ospa dezagun, zure gorespenez poza izan  
dezagun.

**Kolekta otoitza**

Egizu, Jainko gure Jauna,  
Zu bihotz bihotzez maita zaitzagula,  
eta gizon-emakume guztiak  
geure burua bezala maita ditzagula.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Sofonias profetaren liburutik 2,3;3,12-13**

Bila ezazue Jauna, zuek, apalak,  
Haren aginduak betetzen dituzuenok;  
bila ezazue zuzentasuna, bila apaltasuna;  
behar bada aurkituko duzue babes  
Jaunaren haserre-egunean.  
Herri apal eta behartsu bat utziko dut Nik, zure erdian;  
Jaunaren izena izango du bere babes.  
Israelgo hondarrek ez dute txarkeriarik egingo,  
ez gezurrik esango;  
haien ahotan ez da mingain maltzurrik aurkituko;  
inork izutu gabe larratuko dira eta etzango.

**ERANTZUN-SALMOA**

145

**HAU DA POZA, HAU POZ HAUNDIA,  
EDERRA BAIT DA ZUEN SARIA.**

Leiala da betiren beti,  
ematen die eskubidea zapaldui,  
ogia gose direnei.

Atzilotuak Jaunak askatzen ditu,  
itsuen begiak Jaunak argitzen ditu.  
Konkor daudenak Jaunak ditu zutierazten,  
zintzoak Jaunak ditu maitatzen.

**San Paulo Apostoluak Korintoarrei. 1 Kor 1,26-31**

Senideok: Begira zuen kristau-batzarrari. Gutxi dira zuen artean jakintsuak; gutxi, ahaltsuak; gutxi, haundizkiak.

Jaungoikoak munduko zoroak aukeratu ditu, jakintsuak lotsarazteko; eta munduko argalak aukeratu ditu Jaungoikoak, indardunak lotsarazteko; eta munduko arlote eta baztertuak aukeratu ditu Jaungoikoak, eta ezerezak, zerbait direnak ezerezteko, inor harro ez dadin Jaungoikoaren aurrean.

Hari eskerrak zaudete zuek Kristo Jesusengan. Jaungoikoak Kristo hau guretzat jakinduria egin baitu eta zuzenbidea, eta gainera santutze eta erospen. Horrela, Liburu Santuak dioen bezala: 'Inor harrotzekotan, Jaunagan harro bedi'.

**ALELUIA** Poztu zaitezte eta alaitu,  
haundia izango da-ta zuen saria zeruetan. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12**

Aldi hartan, jendetaldea ikusirik, mendira igo zen Jesus eta, eseri zenean, bere ikasleak inguratu zitzaizkion, eta Berak honela erakusten zien:

"Zorionekoak, gogoz behartsu direnak:  
berena dute eta zeruetako erreinua.

Zorionekoak otzanak;

berak izango dira eta lurraren jabe.

Zorionekoak, negar egiten dutenak;

poztuak izango bait dira.

Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak;

aseak izango bait dira.

Zorionekoak errukitsuak;

hauek iritsiko dute eta errukia.

Zorionekoak, bihotzez garbi direnak;

hauek ikusiko dute eta Jaungoikoa.

Zorionekoak bakegileak;

Jaungoikoaren seme esango bait zaie.

Zorionekoak, zuzenagatik erasotuak;

hauena da eta zeruetako erreinua.

Zorionekoak zuek, Nigatik biraoka eta erasoka erabiltzen zaituztenean, eta gezurretan asma-ahalak zuentzat esaten dituztenean; poztu zaitezte eta alaitu, haundia izango da eta zuen saria zeruetan".

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,1-12a**

Aldi hartan, jendetaldea ikusirik, mendira igo zen Jesus eta, eseri zenean, bere ikasleak inguratu zitzaizkion, eta Berak honela erakusten zien:

"Zorionekoak, gogoz behartsu direnak:

berena dute eta zeruetako erreinua.

Zorionekoak otzanak;

berak izango dira eta lurraren jabe.

Zorionekoak, negar egiten dutenak;

poztuak izango bait dira.

Zorionekoak, zuzentasunagatik gose eta egarri direnak;

aseak izango bait dira.

Zorionekoak errukitsuak;

hauek iritsiko dute eta errukia.

Zorionekoak, bihotzez garbi direnak;

hauek ikusiko dute eta Jaungoikoa.

Zorionekoak bakegileak;

Jaungoikoaren seme esango bait zaie.

Zorionekoak, zuzenagatik erasotuak;

hauena da eta zeruetako erreinua.

Zorionekoak zuek, Nigatik biraoka eta erasoka erabiltzen zaituztenean, eta gezurretan asma-ahalak zuentzat esaten dituztenean; poztu zaitezte eta alaitu, haundia izango da eta zuen saria zeruetan".

**Oparigaien otoitza**

Atsegin bekizu, Jauna,  
Santu guztien omenez egiten dizugun eskaintza;  
eta zeruan Zurekin hilezkor aitortzen ditugunok  
lurrean gure laguntzaile senti ditzagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**KANTA JAUNARI JAI HONETAN,  
SANTU GUZTIEN OHORETAN.**

Jaunarena da lurra, eta lurra betetzen dutenak,  
lurbira eta bertan bizi direnak.

Hark eman dizkio itsasoak oinarri,  
eta ibaiak sendogarri.

Jaunaren mendira nor igoko?  
Jaunaren toki santuan nor egongo?  
Eskuak errugabe eta bihotza garbi dituenak,  
huskerietara jotzen ez duena.

**San Joan Apostoluaren epistolatik 1 Jn 3,1-3**

Senide maiteok: Begira zenbaterainoko maitasuna agertu digun Aitak: Jaungoikoaren seme izena daramagu, baita izana ere. Horra zergatik munduak ez gaituen ezagutzen, Jainkoa ere ezagutu ez zuelako.

Senide maiteok: Orain, Jaungoikoaren seme gara; gero izango garena, oraindik ez da ageri. Badakigu, Jauna agertzen denean, Haren antzeko izango garela, den bezalakoa ikusiko bait dugu; Harengan itxaropen hau duen guztia garbitu egiten da, Hura garbia den bezala.

**ALELUIA** Zatozte Nigana nekatuok, lanpetuok,  
eta Nik arinduko zaituztet –dio Jaunak–. **ALELUIA!**

**Oparigaien otoitza**

Hona hemen, Jauna, aldare gainean,  
zure serbitzarion eskaintza;  
har ezazu bihotz onez  
eta egizu guretzat sakramentu salbagarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Zorionekoak, gogoz behartsu direnak,  
berena dute-ta zeruetako erreinua.  
Zorionekoak otzanak,  
berak izango dira-ta lurraren jabe.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Indarberritu egin gaituzu, Jauna,  
gure erospenerako sakramentuaren bidez;  
iguzu, egiazko fedean beti aurrera egin dezagula,  
betiereko salbamenaren janari honi esker.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

## URTEAN ZEHAR V IGANDEA

### Sarrerako antifona

Zatozte, ahuspez jaures dezagun Jainkoa, egin gaituen Jaunari belaunika gakizkion, Bera bait da Jauna, gure Jainkoa.

### Kolekta otoitza

Zure betiko maitasunaz zaindu, Jauna, zure familia;  
eta, zure grazia bait dugu gure itxaropen bakarra,  
zaindu gaitzazu beti zeure babesean.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

### Isaias profetaren liburutik 58,7-10

Honela mintzo da Jauna:

Eman zure ogitik, gose denari;  
etxean hartu, aterperik gabeko behartsuak;  
jantzi bilutsik dagoena,  
eta ez bazterrera utzi zure hurkoa.

Orduan zure argia

egun-sentia bezala zabalduko da,  
eta zure osasuna berehala erneko;

aurretik joango zaizu zuzentasuna,  
eta ondotik Jaunaren aintza.

Orduan zuk hotsegin, eta Jaunak erantzungo dizu;  
zuk deiadar egin, eta Harek honela erantzungo:  
"Hemen naukazu".

Uztarria, jotzeko keinuak eta asmo txarrak  
zure ingurutik aldentzen ba dituzu,  
gose denari zure ogitik ematen badiozu,  
eta behartsuari jaten,  
zure argia ilunpetan zabalduko da,  
eta zure ilunaldia eguerdi bihurtuko.

## SANTU GUZTIEN EGUNA – azaroak 1

### Sarrerako antifona

Poztu gaitezen denok Jaunagan, Santu guztien jaieguna ospatzean; festaburu honetan pozten dira aingeruak eta Jainkoaren Semea goresten dute.

### Kolekta otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
Santu guztien aintza eta irabaziak  
egun berean ospatzea ematen diguzu;  
horrenbeste laguntzaile ditugunez gero,  
emaiguzu oparo, eskatzen dizugun errukia eta barkamena.  
Jesu Kristo zure Semearen bitartez. AMEN.

### Apokalipsis liburutik 7,2-4.9-14

Nik, Joanek, beste aingeru bat ikusi nuen sortaldetik igotzen. Jaungoiko biziaren silua zeukan; eta oihu handiz hots egin zien, itsasoa eta lurra zigortzeko zeuden lau aingeruei, esanez: "Ez zigortu lurrik, ez itsasorik, ez zuhaitzik, harik eta gure Jaungoikoaren serbitzariei ezaugarria bekokian ezarri arte".

Eta entzun nuen ezaugarriaren zenbakia: ehun eta berrogeita lau mila, Israelgo leinu guztietatik.

Horren ondoren, talde handi bat ikusi nuen, inork zenbatu ezinahalakoa, enda eta leinu, herri eta hizkuntza guztietakoa, aulkiaren eta Bildotsaren aurrean zutik, zuriz jantziak, eta palma-adarrak eskuetan. Eta oihu handiz hots eginez, honela zioten:

- "Salbamena, aulkian eserita dagoen gure Jaungoikoarena da eta Bildotsarena".

Aulkiaren, zaharren eta lau bizidunen inguruan zeuden aingeru guztiak ahuspez erori ziren aulkiaren aurrean, eta Jaungoikoa gurtu zuten, esanez:

- 'Amen! Bedeinkapena, aintza eta jakinduria, esker ona eta ospea, ahalmena eta indarra gure Jaungoikoarenak dira, gizaldi eta gizaldietan. Amen!'

Eta zaharretako batek honela esan zidan: "Nor dira eta nondik datoz zuriz jantzirik dauden hauek?" Nik erantzun nion: 'Ene Jauna, Zuk jakingo duzu!'

Hark orduan: "Hauek nekaldi handitik datozenak dira. Bildotsaren odoletan garbitu dituzte eta zuritu beren jantziak".

**Oparigaien otoitza**

Opari honek garbi gaitzala, Jauna, bekatu guztietatik, beronek kendu bait zuen gurutzeko aldarean mundu guztiko bekatua. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Prefazioa**

Egoki da, bai, eta zuzen nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Gurutzeko zuhaitzean ezarri bait duzu gizon-emakume guztien salbamena: heriotza sortu zen toki beretik sor zedin bizia, eta zuhaitzean izan zedin garaitua zuhaitzean garaile izandako etsaia, Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Beronen bitartez, aingeruek zure haunditasuna goستن dute, espiritu dohatsuek zure ospea adoratzeko, goiko indarrek Zuri ahuspez agur egiten, poztasun berak bait ditu zerutar guztiak elkartzen.

Onar ezazu, Jauna, haien gorespenekin bat egin ditzagula guk ere geure kantu-hotsak:

**Jaunartze-antifona**

Nik, lurretik gora jasoko nautenean, Nigana bilduko ditut guztiak –dio Jaunak–.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jesu Kristo gure Jauna, zure eskutik hartu dugun janariak indarberriturik, Zuri otoitzez gaude: gurutzeko zuhaitzaren bidez biziberritu gaituzunok eraman gaitzazu piztueraren zorionera. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

**ERANTZUN-SALMOA**

111

**JAUNA DUT ARGI ETA SALBAMEN.**

Zintzoentzat ilunpetan argia bezala sortzen da: onbera da, errukitsua eta zuzena. Zorionekoa, errukitu eta eman egiten duen gizona, bere gauzak zuzen atontzen dituena.

Sendo dauka bihotza, beldurrik gabe, zabaltzen die eta ematen behartsuei; beti irautekoa da haren eskuzabala, ospez jaikiko da haren ahalmena.

**San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1 Kor 2,1-5**

Senideok: Zuen artera joan nintzenean, ez nintzaizuen joan Jaungoikoaren aitormena hitz eder eta jakintsuz hotsegitera. Izan ere, ezer ez nuen nik zuen artean jakin nahi izan, Jesu Kristo besterik, eta hau ere gurutziltzatua.

Eta ni zuen aurrean argal, beldurri eta ikara haundiz agertu nintzen. Nere hitza eta erakusbidea ez zen hitz ederren jakinduriazkoa izan; Espiritu-indarraren agerpidez baizik; zuen sinesmena Jaungoikoaren indarrean oinarritua izan dadin, eta ez giza-jakindurian.

**ALELUIA** Ni naiz munduaren argia, –dio Jaunak–; nere ondoren datorrenak izango du bizirako argia. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,13-16**

Aldi hartan honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- “Zuek zarete lurraren gatza: Eta gatza gezatzen bada, zerekin gazituko da? Kanpora botatzeko eta oinpean zapaltzeko bestetarako ez da.

Zuek zarete munduaren argia. Ezin daiteke ezkuta mendi gainean dagoen herria. Argia ere bizten denean, ez da lakaripean ipintzen, argimutilaren gainean baizik, etxeko guztiei argi egin diezaien. Bego biztuta zuen argia ere gizonen aurrean, zuen egite onak ikus ditzaten, eta zeruetan dagoen zuen Aita gores dezaten”:

**Oparigaien otoitza**

Jainko gure Jauna,  
gu indartzeko egin dituzu ogia eta ardoa;  
egizkizu guretzat betiko biziaren sakramentu ere.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Zorionekoak, negar egiten dutenak,  
poztuak izango bait dira.  
Zorionekoak, zuzentasunaren gose eta egarri direnak,  
aseak izango bait dira.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko Jauna,  
ogi eta kaliza beretik eman diguzu;  
egizu, Kristorengan bat eginik bizi gaitezela  
eta fruitu ugari ekar dezagula  
munduaren salbamenerako.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Hiltzen zituenean hasten ziren Haren bila,  
berriro Jainkoaren bila.  
Gogoan zuten Jainkoa harkaitz zutela,  
eta Jainko Goi-goikoa beren askatzailea.

**San Paulo Apostoluak Filipoarrei 2,6-11**

Kristo Jesusek, Jainkoaren izaera bereko izanik,  
ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdin izateari;  
bestela baizik, bereaz hustu egin zen,  
morroi-izaera hartuz,  
eta beste edozein bezala azalduz.  
Eta gizon bezala agerturik,  
apaldu egin zuen bere burua,  
menpeko eginez heriotzaraino,  
gurutzeko heriotzaraino.  
Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,  
eta izen guztien gaineko izena eman zion,  
Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezen,  
zeruan, lurrean eta lurpean,  
eta mingain guztiak aitor dezaten:  
Jesu Kristo Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

**ALELUIA** Gorespen Zuri, Kristo, bedeinkatua Zu,  
zure gurutzeaz salbatu bait duzu mundua. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Joanen liburutik 3,13-17**

Aldi hartan, honela esan zion Jesusek Nikodemori:  
- "Inor ez da zerura igo, zerutik jaitsi zena besterik: Gizonaren Semea. Moisesek basamortuan sugea altxa zuen bezala, hala altxa beharra da Gizonaren Semea; sinesten dion guztiak betiko bizia izan dezan.

Hain maite izan bait du Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra eman dio; Hari sinesten dionik inor gal ez dadin, baizik betiko bizia izan dezan.

Jaungoikoak ez bait du bere Semea, mundua galtzera bidali; baizik Haren bitartez mundua salba dadin".



**GURUTZE SANTUAREN GORALPENA – irailak 14****Sarrerako antifona**

Jainkoak libra gaitzala harrotzetik, Jesu Kristo gure Jaunaren gurutzean izan ezik; gurutze horretan dago gure salbamena, bizia eta biztuera; berak salbatu eta askatu gaitu.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, gizon-emakume guztiak zure Semearen gurutzeko heriotzaz salbatu nahi izan dituzu; egizu, misterio hori mundu honetan ezagutu dugunok erospenaren fruitua iritsi dezagula zeruan. Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Zenbakien liburutik****21,4-9**

Egun haietan, Hor-menditik Itsas-Gorri aldera abiatu ziren ebertarrak, Edongo lurraldea inguratuz. Bidez aspertuta, Jainkoaren eta Moisesen aurka marmarrean hasi ziren: 'Zertarako atera gaituzu Ejiptotik, basamortuan hiltzeko? Ez da, ez ogirik, ez urik; eta asperturik gaude janari txar honekin'.

Orduan Jaunak pozoi-mihiztodun sugeak bidali zizkion herriari; hauek horzka egiten zieten, eta israeldar asko hil ziren. Herria Moisesengana joan zen eta esan zion: 'Bekatu egin dugu, Jaunaren eta zure kontra marmar eginez. Ezkaiozu Jaunari ken ditzala sugeak gugandik'.

Egin zuen otoitz Moisesek herriaren alde, eta Jaunak esan zion: "Egizu suge bat, eta ipini haga baten muturrean. Sugeak horzkatuak izan diren guztiak, hari begiratzen badiote, sendatuko dira". Egin zuen Moisesek tupikizko suge bat eta hagaren muturrean ipini zuen. Sugereren batek inori horzka egiten zionean, tupikizko sugeari begiratzen zion eta sendatu egiten zen.

**ERANTZUN-SALMOA****77****KANTA JAUNARI KANTU BERRI,  
EGIN BAIT DITU HAINBAT HARRIGARRI.**

Entzun irakaskizun hau, ene herria,  
nire ahoko hitzetara itzul belarria.  
Alegitan zabalduko dut ahoa,  
aterako ditut antzinako ezkutuak.

**URTEAN ZEHAR VI IGANDEA****Sarrerako antifona**

Izan zakizkit harkaitz, Jauna, ni gordetzeko; gaztelu sendo, ni salbatzeko. Zu bait zaitut harkaitz eta gaztelu; zure izenagatik eraman nazazu eta gidatu.

**Kolekta otoitza**

Jainko gure Jauna,  
bihotz garbi eta zintzoetan duzu zure atsegina;  
egizu, zure grazian bizi gaitzezela,  
Zu gure bihotzetan bizi zaitezzen.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Sirak-en liburutik****15, 16-21**

Nahi izanez gero, beteko dituzu Haren aginduak,  
jakinduria da-ta Haren nahia egitea.  
Zure aurrean dituzu sua eta ura;  
hartu nahi duzuna.  
Bere aurrean dauzka gizonak bizia eta heriotza;  
zer duen aukeratzen, hura emango zaio.  
Neurrigabea da Jaunaren jakinduria;  
haundia Haren ahalmena, guztia ikusten du.  
Haren begiak ikusten ditu egiteak,  
ezagutzen ditu gizonaren egintza guztiak.  
Inori ez dio bekatu egiteko agindu,  
eta ez ditu zigorrik gabe utziko gezurtiak.

**ERANTZUN-SALMOA****118****BAI MAITE DUDALA, JAUNA,  
ZURE LEGEA.**

Dohatsu, zintzo bizi direnak,  
Jaunaren legean dabilzanak.  
Dohatsu, Hark hotsegina egiten dutenak,  
Hura bihotz-bihotzez bilatzen dutenak.

Jauna, Zuk ezarrien bidea erakutsiez zaidazu,  
jarraituko natzaio zeharo.  
Argi nazazu, zure legea bete dezadan,  
bihotz-bihotzez gorde dezadan.

**San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1Ko 2,6-10**

Senideok: Kristau bikainen artean darabilkigun jakinduria ez da gizarte hontako jakinduria, ezta gizarte honetako nagusi ustelkorrena ere; baizik-eta Jaungoikoaren jakinduria ezkutua darabilkigu: gordeta eukia, Jaungoikoak gizaldien aurretik gure aintzarako aukeratua zeukana, gizarte hontako nagusietako inork ezagutu ez zuena; ezagutu izan balute, ez bait zuten gurutziltzatuko aintzaren Jauna.

Baina idatzia dagoenez: 'Ez du, ez begiak ikusi, ez belarriak entzun, ez bihotzak sumatu, Jaungoikoak prestaturik daukana, Bera maite dutenentzat'. Eta Jaungoikoak guri agertu digu hori Espirituaren bidez. Izan ere, Espirituak den guztia aztertzen du, baita Jainkoaren barren-barrena ere.

**ALELUIA** Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna,  
zure erreinuko misterioak  
jende xumeari erakutsi bait dizkiozu. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 5,17-37**

Aldi hartan, honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- ['Ez uste izan, Legea edo Profetak baztertzeraz etorria naizenik; baztertzeraz ez, baino betetzera etorria naiz. Hara Nik egia esan: Zeru-lurrek iraungo duten bitartean, ez 'i' bat, ez izpi bat ez da Legetik galduko, guztia bete arte.

Beraz, agindurik txikiena baztertzen duena eta baztertzen erakusten duena, txikiena izango da zeruetako erreinuan; betetzen duena, berriz, eta hala erakusten, haundia izango da zeruetako erreinuan].

Zuen zuzentasuna idazlariena eta farisearren baina haundiagoa ez bada, ez zarete sartuko zeruetako erreinuan".

Entzuna duzue nola agindu zitzaizen aintzinakoei: '*Ez duzu inor hilko!*' eta norbait hiltzen duena, errudun izango da auzitegian. Nik, ordea, hau diotsuet: Anaia haserre hartzen duena, errudun izango da auzitegian.

[ 'Bere anaiari 'zoroa' esaten diona, errudun izango da Batzarrean; eta 'sinesgabea' esaten diona, su-leizerako errudun izango da.

Beraz, zure eskaintza aldarera eramaterakoan, gogoratzen bazaizu zure senideak baduela zerbaite zure aurka, utzi ezazu eskaingaita han bertan, aldare aurrean, eta zoaz lehenengo zure senidearekin bakeak egitera; etorri orduan, eta egin zure eskaintza.

Egizkizu bakeak lehenbaitlehen zure etsaiarekin, bidean harekin zoazen bitartean, etsaiak epailearen esku utzi ez zaitzan, eta epaileak ertzainaren esku, eta giltzapean sar ez zaitzaten. Hara Nik egia esan: Ez zara handik aterako, azken txanpona ordaindu arte].

**Prefazioa**

Egoki da, bai, eta zuzen  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Gaur, Maria Birjina, Jaungoikoaren Ama,  
zerura jaso izan bait da.  
Berau dugu,  
egunen batean aintzaz betea izango den  
zure Elizaren hasiera eta irudia;  
berau du bere itxaropen eta poz-iturri  
oraindik bidean erromes doan zure herriak.

Ez duzu utzi hilobian usteltzen,  
zure Semea miragarrir sortu zuen amaren gorputza:  
biziaren iturria munduari eman zion gorputz garbia.

Horregatik, aingeru taldeekin batean  
goresten zaitugu,  
pozez beterik kantatzen dugula:

**Jaunartze-antifona**

Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek, handiak egin  
bait dizkit Ahalguztidunak.

**Jaunartze ondorengo oititza**

Sakramentu salbagarria hartu dugu, Jauna;  
iguzu, Andre Maria zeruetara jasoaren oititzez,  
piztueraren aintzara iritsi gaitzezela.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

'Haundiesten du nire arimak Jauna,  
 pozaren pozez daukat nere barruna;  
 Jainkoa bait da nere salbamena,  
 ikusi bait du mirabe honen ezereztasuna.  
 Dohatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek,  
 haundiak egin bait dizkit Ahalguztidunak.  
 Santua da Haren izena,  
 eta Haren errukia gizaldiz gizaldi,  
 beldur diotenengana.  
 Bere besoaren indarra erabili du,  
 buru-harroak suntsitu ditu;  
 bota ditu beren aulkitik haundizkiak,  
 eta gora jaso ditu ezerezak;  
 ondasunez bete ditu gose zeudenak,  
 eta esku-hutsik bidali asko zutenak.  
 Bere gain hartu du Israel, bere morroia,  
 errukia gogora zaiola;  
 gure gurasoei hala zien hitzemanana,  
 Abraham-i eta ondorengoei betiko esana'.  
 Hiru hilabete inguru egon zen Maria Isabelekin, eta gero  
 etxera joan zen.

#### Oparigaien otoitza

Igo bedi Zugana, Jauna, gure eskaintza gartsua;  
 eta Andre Maria zeruetara jasoaren otoitzez  
 egizu, gure bihotzak ere  
 beti Zuganako bidean ibil daitezela.  
 Jesu Kristo zure Semearen bitartez. AMEN.

Entzuna duzue nola dagoen agindua: '*Ez duzu ezkontza nahasterik egingo*'. Nik, ordea, hau diotsuet: Emakumeari irrikaz begiraten dion guztiak, nahastu du harekin ezkontza bere bihotzean.

[Beraz, zure eskuineko begiak arriskuan jartzen bazaitu, atera ezazu eta bota; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, gorputz osoarekin su-leizean bukatu baino. Eta zure eskuineko eskuak arriskuan jartzen bazaitu, moztu ezazu eta bota; hobe duzu gorputz-atal bat galdu, gorputz osoarekin su-leizean bukatu baino.

Agindua dago hau ere: '*Emaztea uzten duenak, eman biezaio ezkontza hausten duelako agiria*'. Nik, ordea, hau diotsuet: Bere emaztea uzten duenak –legez kontrako ezkontza izan ezik–, ezkontza nahasteko bidean ipintzen du; eta utzitakoarekin ezkontzen denak, ezkontza-nahastea egiten du].

Entzuna duzue nola agindu zitzaizen aintzinakoei: '*Ez egin zinik gezurretan*' eta '*bete, Jaunari egindako zinak*'. Nik, ordea, hau diotzuet: Ez egin inolako zinik. [Ez zeruagatik, Jaungoikoaren jarlekua da-eta; ez lurarengatik, Haren oinpekoa da-eta; ez Jerusalemengatik, errege haundiaren hiria da-eta; ez zinik egin zeure buruagatik ere, ez dezakezu eta zeure ile bakar bat ere, ez zuri, ez beltz, bihur].

Zuen hizketa honela izan bedi: bai denean, bai; eta ez denean, ez. Gainerako guztia gaiztoarengandik dator.

#### Oparigaien otoitza

Eukaristia honek, Jauna, garbi gaitzala eta berritu;  
 eta zure nahia betetzen dutenentzat  
 izan dadila betiko sariaren iturri.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

#### Jaunartze-antifona

Hain maite izan bait du Jaungoikoak mundua, bere Seme bakarra eman dio; Hari sinesten dionik inor gal ez dadin, baizik eta betiko bizia izan dezan.

#### Jaunartze ondorengo otoitza

Zeruko ogia eman diguzu janari, Jauna;  
 egizu, egiazko biziaren iturriak bila ditzagula beti.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

## URTEAN ZEHAR VII IGANDEA

### Sarrerako antifona

Jauna, nik uste osoa dut zure errukian: nere bihotz hau zure salbamenaz poztu bedi, mesedeak egin dizkidan Jaunari dagiodan eresi.

### Kolekta otoitza

Jaingo ahalguztiduna,  
egizu, zure erakutsiak beti gogoan erabiliz,  
hitzez eta egitez zure nahia bete dezagula.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

### Lebitarren liburutik 19,1-2.17-18

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi:  
- "Hitzegin Israelgo semeen batzarre osoari, eta esan:  
'Izan zaitzete santu, Ni, Jauna, zuen Jaungoikoa,  
santu naiz-eta.  
Ez euki bihotzean gorrotorik zure senidearentzat;  
zentzarazi zure ahaidea,  
haren bekatuen erantzukizunik izan ez dezazun.  
Ez egin bendekurik,  
ez izan erresuminik zure ahaideentzat.  
Maita ezazu lagunurkoa, zeure burua bezala.  
Ni naiz Jauna".

### ERANTZUN-SALMOA 102

#### ERRUKI HUTSA DUGU JAUNA, ERRUKIA TA MAITASUNA.

Ene arima, goretsazu Jauna,  
nere barren osoak Haren izen deuna.  
Ene arima, goretsazu Jauna,  
eta ez ahaztu Harek zuri egina.

Harek barkatzen bait ditu zure hobenak,  
sendatzen zure gaitzak denak;  
begiratzen du heriotzetik zure bizia,  
ematen dizu buruntzat grazia ta errukia.

Entzun, alaba, eta ikus, aldera ezazu belarria:  
ahaztu itzazu aitaren etxe eta herria.  
Erregek zure edertasuna irrikatu du;  
Bera duzu jaun, egiozu ahuspez agur.

### San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1 Kor 15,20-26

Senideok: Biztu da Kristo hilen artetik, lo daudenetan lehen fruitu bezala. Izan ere, gizon baten bidez etorri bazen heriotza, gizon batez bidez etorri da hildakoen biztuera ere. Adanengan guztiek heriotza duten bezala, Kristorengan bizia izango dute guztiek. Baina bakoitzak bere mailan: aurrena Kristok, lehen fruitu bezala; gero, kristau guztiek, Hura berriz etortzean. Ondoren, azkenekoek, Kristok Jaingo Aitari erreinua itzultzen dionean, ahalmen, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren. Berak eduki behar baitu erregetza, Jainkoak 'etsai guztiak Haren oinazpian ipini arte'. Heriotza izango da, azkenik ezereztuko den etsaia; izan ere Liburu Santuak honela dio: "Guztiak Haren oinazpian ezarri ditu".

**ALELUIA** Maria zeruetara jaso da;  
pozik daude aingeruak. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa san Lukasen liburutik 1,39-56

Aldi hartan, Maria jaiki eta bizi-bizi mendi aldera joan zen, Judeako herri batetara; eta Zakariasenean sartu, eta Isabeli agur egin zion. Isabelek Mariaren agurra entzun zuen orduko, jauzi egin zion haurrak sabelean. Isabel Espiritu Santuaz bete zen eta honela esan zuen oihu haundiz:

- 'Bedeinkatua zu emakumeen artean, eta bedeinkatua zure sabeleko fruitua. Nondik niri, nire Jaunaren ama niregana etortzea? Zure agurra nire belarrietara iritsi orduko, jauzi egin dit haurrak pozez sabelean. Zorionekoa zu, sinetsi duzulako, beteko bait du Jaunak esan dizuna!'

Orduan Mariak esan zuen:

**ANDRE MARIAREN ZERURATZEA** - abuztuak 15**Sarrerako antifona**

Ikusgarri haundia agertu zen zeruan: emakume bat eguzkiaz jantzia eta ilargia oinpeko, eta hamabi izarreko koroia buruan.

**Kolekta otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
zeruko ospera eraman zenuen, gorputz eta anima,  
Maria Birjina sortzez garbia, zure Semearen Ama;  
iguzu, goiko ondasunak bila ditzagula beti,  
harekin batean zeruko ospea iritsi dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Apokalipsis liburutik 11,19a;12,1.3-6a,10ab.**

Ireki zen, zeruan dagoen Jaungoikoaren etxea, eta Haren barruan elkargo-kutxa agertu zen. Ikusgarri handia agertu zen zeruan: emakume bat, eguzkiz jantzia eta ilargia oinpeko, eta hamabi izarreko koroa buruan.

Beste ikusgarri bat ere agertu zen zeruan: herensuge gorri haundi bat; zazpi buru eta hamar adarrekoa; eta buruetan zazpi koroa zituena. Haren isatsak zeruko izarrek hirutatik bat arrastaka zaramatzen eta lurrera bota zituen. Herensugea, haurra izateko zegoen emakumearen aurrean gelditu zen, jaio-orduko semea iresteko. Emakumeak izan zuen, herri guztiak burdin-zigorrez zuzenduko dituen semea; hartu zuten seme hori eta Jainkoaren aulkira eraman zuten. Emakumeak, berriz, ihes egin zuen basamortura, Jainkoak prestatutako leku batera.

Eta oihu haundi bat entzun nuen zerutik: "Orain etorri da salbamena, gure Jainkoaren indarra eta erregetza, eta bere Kristoren ahalmena".

**ERANTZUN-SALMOA 44****GURE ERREGINA  
ZURE ESKUINEAN DAGO ZUTIK.**

Erregeen alabak bidera datozkizu;  
Erregina, Ofirko urrez apaindurik,  
zure eskuinean dago zutik.

**San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1Kor 3,16-23**

Senideok: Ez al dakizue, Jaungoikoaren etxe zaretela eta Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi dela? Jaungoikoaren etxea hondatzen duena, Jaungoikoak hondatu egingo du. Jaungoikoaren etxea santua bait da; etxe hori, berriz, zuek zarete.

Ez beza inork bere burua engaina. Zuen artean norbait mundu hontan jakintsu delakoan badago, egin bedi zoro, jakintsu izateko; mundu hontako jakinduria, zorakeria baita Jainkoaren aurrean.

Hala dago, izan ere, idatzia: *'Harek beren maltzurkerian arrapatzen ditu jakintsuak.'* Eta beste behin: *'Jaunak ezagutzen ditu jakintsuen burutapenak, eta ba daki huskeria direla.'*

Ez bedi, beraz, inor gizonengan harro; zuena baita dena; nahiz Paulo, nahiz Apolo, nahiz Pedro; bai mundua, bai bizia, bai heriotzea; bai oraingoa, bai gerokoa; dena zuena da; zuek, ordea, Kristorenak, eta Kristo Jaungoikoarena.

**ALELUIA** Kristoren hitza betetzen duenarengan,  
Jaungoikoaren maitasuna betea dago egi-egiaz. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa Mateoren liburutik 5,38-48**

Aldi hartan, honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- "Entzuna duzue nola dagoen agindua:

*'Begiari, begia; hortzari, hortza'.*

Nik, ordea, hau diotsuet: Ez egin gogor, gaitz egiten dizunari. Baizik-eta norbaitek eskuineko masailean jotzen bazaitu, eskain iezaiozu bestea ere. Auzitara eraman eta jantzia kendu nahi dizunari, emaiozu soingainekoa ere. Norbaitek mila pauso ibilerazi nahi zaituela, zoaz bi mila berarekin. Eskean datorkizunari, emaiozu; eta, zuk dirua aurreratzea nahi lukeenari, ez eman atzea.

Entzuna duzue nola dagoen agindua:

*'Maita ezazu zeure lagunurkoa'*, eta gorrota zeure etsaia.

Nik, ordea, hau diotsuet: Maita itzazue zuen etsaiak; egin on, gorrotoa dizuetenei, eta egin otoitz erasotzen zaituztenentzat, zeruetan dagoen zuen Aitaren seme izan zaitezten; Hark gaiztoentzat eta zintzoentzat ateratzen bait du eguzkia; eta zuzenentzat eta okerrentzat egiten euria.

Izan ere, maite zaituztenak maite izanik, zer sari zor zaizue? Zergaleriek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Eta zuen senideak bakarrik agurtzen badituzue, zer egiten duzue zor ez duzuenik? Jentilek ere ez al dute beste horrenbeste egiten? Izan zaitetze, beraz, on-onak, zeruetako zuen Aita on-ona den bezala”.

### **Oparigaien otoitza**

Zure misterioa bihotz berriz ospatuz, Jauna,  
apalik eskatzen dizugu:  
zure haunditasunaren osperako eskaintzen duguna  
gure salbamenerako izan dadila.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### **Jaunartze-antifona**

Jauna, sinesten dut nik Zu zarela Mesias,  
Jaungoikoaren Semea, mundu honetara etortzekoa zena.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko ahalguztiduna, Eukaristia honetan  
gure salbamenaren agiria eman diguzu;  
egizu, egunen batean salbamen hori  
bere betean iritsi dezagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### **Prefazioa**

Egoki da, bai, eta zuzen  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Beronek, geurea bezalakoa zen bere gorputza  
argi betez jantzita agertu zuenean,  
bere aintza erakutsi zien aukeratutako testigiei.  
Horrela prestatu zituen bere ikasleen bihotzak  
gurutzearen lotsaria garaitzeko;  
eta Elizaren buru izanik, bere gorputz osoan  
argi egingo zuen ditzira agertu zuen Beragan.

Horregatik, zeruko talde guztiekin,  
lurrean beti eta beti goosten zaitugu,  
Zuri, Jainko guztiz handi Horri, etengabe kantatuz:

### **Jaunartze-antifona**

Kristo agertzen denean, Haren antzeko izango gara, den  
bezalakoa ikusiko bait dugu.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko Jauna, zure Semearen aintza  
agertu zenuen Antzaldatze egunean;  
iguzu, zure eskutik hartu dugun janari honek  
zure Semearen antzeko egin gaitzala.  
Jesu Kristo zure Semearen bitartez. AMEN.

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 17,1-9**

Aldi hartan, hartu zituen Jesusek Berekin Pedro, Santiago eta honen anaia Joan, eta mendi goi batetara igo zen. Hiruen aurrean antzaldatu egin zen; aurpegia eguzkia bezain dizdizari zeukan, eta soinekoak argia bezain zuri. Eta Moises eta Elias agertu zitzaizkien, Jesusekin hizketan. Pedro mintzatu zen orduan, eta honela esan zion Jesusi:

- 'Jauna, bai ederki gaudela hemen! Nahi baduzu, egingo ditut hiru txabola: bata Zuretzat, bestea Moisesentzat, eta bestea Eliasentzat'.

Hizketan ari zela, hodei argi batek estali zituen, eta hodeitik ahots bat entzun zen:

- "Hau da nire Semea, nire Maitea; Honengan dut nire atsegina. Entzuiozue".

Hori entzutean, ahuspez lurrera erori ziren ikasleak, beldurraren beldurrez.

Hurbildu zitzaien Jesus, ukitu zituen eta esan zien:

- "Jaiki zaitezte; ez izan beldurrik".

Begiak jasorik, Jesus bera besterik ez zuten ikusi.

Menditik behera jaisterakoan, Jesusek honela agindu zien:

- "Ez esan inori ikusi duzuen hau, harik-eta Gizonaren Semea hilen artetik biztu arte".

**Oparigaien otoitza**

Santu egizkizu, Jauna, gure emaitzak,  
zure Seme antzaldatuaren misterioaz;  
eta Haren argiaren diztiraz  
garbi gaitzazu geure bekatuetatik.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**URTEAN ZEHAR VIII IGANDEA****Sarrerako antifona**

Jauna indar gertatu zitzaidan, zabaldira atera ninduen,  
maite nauelako salbatu ninduen.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, egizu, mundu honek  
zure asmoen neurrian aurrera egin dezala;  
emaiezu herri guztiei egiazko bakea,  
eta Elizari, zure serbitzu santuan zintzoki irauteko poza.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Isaias profetaren liburutik 49,14-15**

Sionek esaten zuen:

'Baztertu egin nau Jaunak;  
ahaztu, nere Jabeak'.

Ahaztu al dezake amak bere bularreko haurra?

Edo bere sabeleko semea ez maita?

Hura ahaztuko balitz ere,

Ni ez naiz zutaz ahaztuko!

**ERANTZUN-SALMOA 61****EZ EGON, JAUNA, NIGANDIK URRUN;  
ZUREA NAUZU, ZATOZKIT LAGUN.**

Nere barrenak Jainkoagan bakarrik atsedena,  
Harengandik nere salbamera.  
Bera bakarrik dut harkaitz eta salbamen,  
nere babes: ez naiteke koloka.

Jainkoagan bakarrik izan ezazu atsedena, ene barrena,  
Harengandik bait datorkit itxaroten dudana.  
Bera bakarrik dut harkaitz eta salbamen,  
nere babes: ez naiteke koloka.

**San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1Kor 4,1-5**

Senideok: Gizaki guztiek ikus gaitzatela gu, Kristoren serbitzari bezala, eta Jaungoikoaren misterioen erabiltzaile. Eta erabiltzaileari hau eskatzen zaio: zintzoa izan dadila.

Neri ajola gutxi, nahiz zuek, nahiz beste edozein giza-epailek ni epaitzea. Ez dut neronek ere nere bururik epaitzen. Egia esan, ez daukat kezkarik nere barruan; baina, hala ere, ez dut nere burua garbi jotzen; Jauna dut nik epaile.

Ez dezazuela, beraz, ordua baino lehen epaitu; itxaron, Jauna etorri arte. Harek argituko du ilunpetan dagoena, eta agertuko ditu bihotzetako asmoak; eta orduan jasoko du bakoitzak Jaungoikoagandik bere saria.

**ALELUIA** Bizia da Jaungoikoaren hitza eta eraginkorra, bihotzaren erabaki eta asmoak epaitzeko gai dena. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa Mateoren liburutik 6,24-34**

Aldi hartan, honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

-"Ezin daiteke inor bi nagusiren morroi izan. Izan ere, edo-ta bata gorroto izango du, eta bestea maiteko; edo-ta bati leial izango zaio, eta bestea ez du aintzat hartuko. Ezin zarete izan Jainkoaren eta diruaren morroi.

Horregatik diotsuet: Ez zaitezte kezka biziaz, zer jango; edo gorputzaz, zer jantziko. Bizia ez al da janaria baino gehiago, eta gorputza jantzia baino gehiago? Begira zeruko hegaztiei; ez dute ereiten, ez igitaitzen, ezta ganbaretan pilatzen ere; eta zuen zeruko Aitak bazkatzen ditu. Ez al zarete zuek, haiek baino gehiago? Eta nor da zuen artean, kezkaren kezkaz bere bizitza pixka bat luza dezakeenik?

Eta jantziaz, zergatik kezkatzen zarete? Begira landako liliei, nola hazten diren; ez dira lanean ari, ezta ardatzean ere. Eta benetan diotsuet, Salomon bera ere, bere osperik ederrenean, ez zen jaxten horietako bat bezain apain. Bada, gaur zutik dagoen, eta bihar sutara botako den landako belarra Jaungoikoak honela jaxten badu, zenbatez gehiago zuek, sineste gutxiko horiek?

**ERANTZUN-SALMOA**

96

**ERREGE DA JAUNA,  
GOIKO-GOIKO, LUR GUZTIAREN GAINETIK.**

Errege da Jauna, alai bedi lurbira!  
Poztu bitez uharte guztiak!  
Inguruan Laino eta Hodei beltza dakarzki,  
Zuzena eta Bidezkoa ditu bere aulkiaren oinarri.

Mendiak ezkoa bezala urtzen dira Jaunaren aurrean,  
lur guztiaren Jaunaren aurrean.  
Adierazten du ortziak Haren zuzentasuna,  
herri guztiek dakuste Haren edertasuna.

**San Pedro Apostoluaren epistolatik 2 Pe 1,16-19**

Senide maiteok: Jesu Kristo gure Jaunaren indarra eta azken-etorrera ezaguterazi nizuenean, ez nizekizuen asmatutako ipuiak esan, baizik-eta geuron begiz ikusitako Haren handitasuna.

Gorespena eta aintza hartu zituen Harek Aita Jaungoikoarengandik, aintza bikain hartatik harako hitz hura etorri zitzaionean: "Hau da nire Semea, nire Maitea: Honengan dut neure atsegina". Guk geuk entzun genuen, zerutik etorritako ahots hori, Berarekin mendi santuan geundela.

Guzti honek sendotu egiten du guregan Profeten hitza, eta ederki egiten duzue hitz horri erne-erne egotean, toki ilunean argi egiten duen argiontzari bezala, harik-eta eguna argitzen hasi arte, eta artizarra zuen bihotzetan sortu arte.

**ALELUIA** Hau da nire Semea, nire Maitea;  
Honengan dut neure atsegina.  
Entzun iezaiozue. **ALELUIA!**



**JAUNAREN ANTZALDATZEA** - abuztuak 6**Sarrerako antifona**

Hodei argi batean Espiritu Santua agertu zen eta Aitaren ahotsa entzun zen: "Hau da nere Semea, nire maitea; Honengan dut nere atsegina. Entzun iezaiozue".

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, zure Semearen Antzaldatzean,  
Moises eta Elias testigu zirela,  
fedeko misterioak sendotu zenituen,  
eta zure seme-alaba egingo gintuzula harrigarriro adierazi;  
egizu, zure Seme maitearen hitza entzun dezagula,  
Harekin zeruko zorionean parte izan dezagun.  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin Jaungoiko eta Errege bizi  
baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

**Daniel profetaren liburutik 7,9-10.13-14**

Begira nengoela, aulkiak jarri zituzten han,  
eta gizon zahar bat eseri zen.  
Haren soinekoa, elurra bezain zuria;  
buruko ilea, artile garbia bezala;  
haren aulkia, su, eta aulkiaren kurpilakugar.  
Suzko ibai bizi bat zerion haren aurretik.  
Milaka zituen morroiak, miloika bere aurrean serbitzariak.  
Auzia hasi zen, eta zabaldu ziren liburuak.  
Eta oraindik begira nengoela,  
gizonaren semea zirudien bat ikusi nuen,  
zeruetako hodeietan zetorrela.  
Gizon zaharrarengana hurbildu zen,  
eta haren aurrean aurkeztu.  
Agintaritzat, ospea eta erregetza eman zitzaizkion;  
eta herri, herrialde eta hizkuntza guztiak serbitzari zituen.  
Haren agintea, betiereko agintea da,  
inoiz ere amaituko ez dena;  
eta haren erregetzak ez du azkenik izango.

Ez ibili, beraz, kezkatan, esanez: 'Zer jango dugu?', edo-ta 'zer edango?', edo 'zer jantziko?' Jentilak ibiltzen dira guzti horien bila. Zeruko zuen Aitak ba daki, guzti horiek behar dituzuela. Bila ezazue, beraz, lehenengo Jaungoikoaren erreinua eta Haren zuzentasuna; eta beste horiek gehigarri emango zaizkizue. Ez zaitetzte, bada, kezka biharko egunaz. Biharko egunak ekarriko du bere kezka. Aski du egun bakoitzak bere nekea".

**Oparigaien otoitza**

Jainko Jauna, Zuk emana dugu  
guk Zuri eskaintzen dizuguna,  
eta Zuk gure zerbitzu bezala hartzen diguzu;  
egizu, gure irabazirako ematen diguzunak  
betiko saria ekar diezagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Begira, Ni zuekin nauzue egunoro, munduaren azken egunera arte –dio Jaunak–.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Zure dohain salbagarriak harturik, Jauna,  
apalik eskatzen dizugu:  
orain janaritzat ematen diguzun sakramentu honek  
betiko bizia iritsi diezagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

## URTEAN ZEHAR IX IGANDEA

### Sarrerako antifona

Begira neri, Jauna, eta nitaz erruki, bakarrik bait nago, eta errukarri. Ikus nere zorigaitza eta nekea, barka nere hoben guztiak, ene Jainko.

### Kolekta otoitza

Jainko Jauna, beti zuzen erabakitzen duzuna,  
zure eskuetan uzten ditugu geure bizia eta izatea;  
ken gugandik kalterako zaiguna  
eta eman oraingo eta geroko bizitzarako zure laguntza.  
Zure Seme Jesu Kristoren bitartez... AMEN.

### Deuteronomio liburutik 11,18.26-28

Moisesek honela hitzegin zion herriari:

- 'Sar itzazue hitz hauek zuen bihotzetan eta gogoetan; lotu ezaugarritzat zuen eskumuturretan, eta seinaleztat zuen bekokian.

Horra, bedeinkapena eta madarikapena eskaintzen dizkizuet gaur; bedeinkapena, gaur ematen dizkizuedan Jaunaren, zuen Jaungoikoaren, aginduak aditzen badituzue; madarikapena, Jaunaren, zuen Jaungoikoaren, aginduak aditzen ez badituzue, eta agintzen dizuedan bidetik saihesten bazarete, ezagutu ez dituzuen jainko arrotzetara bihurtzeko”.

### ERANTZUN-SALMOA 30

#### EZ EGON, JAUNA, NIGANDIK URRUN; ZUREA NAUZU, ZATOZKIT LAGUN.

Zugana biltzen naiz, Jauna,  
ez nadila behinere lotsa:  
zure zuzentasunez onik nazazu atera.  
Belarri hori hurbil iezaidazu;  
zatoz laister, aska nazazu.

Izan zakizkit harkaitz, ni gordetzeko,  
gaztelu sendo, ni salbatzeko.  
Zu bait zaitut harkaitz eta gaztelu,  
zure izenagatik eraman nazazu eta gidatu.

Zertarako du gizonak mundu guztia irabaztea, bere bizia galtzen eta hondatzen badu? Norbait Niretaz eta Nik erakutsiaz lotsatzen bada, Gizonaren Semea ere lotsatu egingo da hartaz, bere edertasunean eta Aitaren eta aingeru santuen aintzatan datorrenean”.

### Oparigaien otoitza

Atsegin bekizu, Jauna,  
Inazio santuaren jaiegunean ekarri dizugun eskaintza;  
eta santutasun guztiaren iturri den sakramentu honek  
gu ere santu egin gaitzala egian.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.  
Zure Semearen lagun izatera  
deitu bait zenuen Loiolako Inazio santua,  
Haren maitasunak berotuta, beste askoren gogoak  
zure aintzarik haundiena bilatzera piztu zitzaizun,  
zure serbitzurik zintzoena mundu guztian iragar zezan  
eta apostolu-maitasuna ezaugarri duen Lagundia sortu,  
zure herriaren onerako, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean.  
Beronen bitartez, aingeruek zure handitasuna goستن dute,  
espíritu dohatsuek zure ospea adoratzen,  
goiko indarrek Zuri ahuspez agur egiten,  
poztasun berak bait ditu zerutar guztiak elkartzen.  
Onar ezazu, Jauna, haien gorespenekin bat egin ditzagula  
guk ere geure kantu-hotsak:

### Jaunartzeko antifona

Lurrean sua jartzera etorri naiz –dio Jaunak–, eta nahiago nuke dagoeneko sutan balego.

### Jaunartze ondorengo otoitza

Jauna, Inazio santuaren egun honetan Zuri eskerrak emateko eskaini dizugun gorespen-opariak eraman gaitzala betieran zure aintza neurrigabea gorestera. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

Bai dohatsu, gaiztoen asmoari jarraitzen ez zaiona,  
hobendunen bidean ez dabilena,  
lotsagabeen batzarrean esertzen ez dena.  
Ostera, Jaunaren legean atsegin duena,  
gau eta egun Haren legea hausnartzen duena.

Ur ertzean aldaturiko zuhaitza bezala izango da,  
bere garaian ematen du fruitua;  
eta historik ihartzen ez zaio;  
zeregin guztietan ongi doakio.

### **San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1 Kor 10,31-11,1**

Senideok: Nahiz jan, nahiz edan, nahiz beste edozer egiten  
duzularik, egizue dena Jaungoikoaren aintzarako. Ez eman  
gaizbiderik, ez judutarrei, ez greziarrei, ez Jaungoikoaren Elizari.

Nik ere neure aldetik guztiei ematen diet atsegin, ez nire  
onari begira, haienari baizik, guztiak salba daitezen. Izan zaitezte  
nire antzeko, ni Kristoren antzeko naizen bezala.

**ALELUIA** Poztu zaitezte eta alaitu,  
handia izango da-eta zuen saria zeruetan. **ALELUIA!**

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Lukasen liburutik 9,18-26**

Aldi hartan, Jesus bakarrik otoitzean ari zela Hamabien  
aurrean, honela galdetu zien: “Ni nor naizela dio jendeak?”

Haiek erantzun: ‘Batzuek, Joan Bataiatzailea; beste  
batzuek, Elias; besteek, berriz, aintzinako profetaren bat biztu  
dela’.

Hark orduan: “Eta zuek, nor naizela diozue?”

Pedrok erantzun zion: ‘Jaungoikoaren Mesias’.

Baina Hark inori ez esateko agindu zien zorrotz. Eta esan  
zient: “Beharrezkoa da, Gizonaren Semeak neke haundiak jasatea:  
zaharrek, apaiz nagusiek eta idazlariek gaitzetsi egingo dute eta  
hil; baina hirugarren egunean biztuko da”.

Eta guztiei esan zien:

- “Nirekin etorri nahi duenak, uko egin biezaio bere buruari,  
har beza egunero bere gurutzea, eta jarrai biezait. Izan ere, bere  
bizia salbatu nahi duenak, galdu egingo du; baina bere bizia  
Niregatik galtzen duenak, salbatu egingo du.

### **San Paulo Apostoluak Erromatarrei 3,21-25a.28**

Senideok: Orain, Legean eta Profetetan zegoen  
Jaungoikoaren zuzentasuna, Legerik gabe agertu da; Jesu Kristogan  
sinestetik dator Jaungoikoaren zuzentasuna, sinesten duten  
guztiengana, bereizkuntzarik egin gabe. Guztiek egin dute bekatu,  
eta Jaungoikoaren aintza galdu dute; eta Haren graziaz, hutsean  
iristen dute zuzentasuna, Jesu Kristoren erospinari esker.

Hau jarri du Jaungoikoak opari bakegarri, Haren odolean  
sinesten dela. Uste dugu-ta, gizonak fedearen bidez iristen duela  
zuzentasuna, Legeko egintzarik gabe.

**ALELUIA** Ni naiz mahatsondoa, eta zuek aihenak –dio Jaunak–;  
Nigan dagoenak, eta Ni harengan,  
fruitu asko ematen du. **ALELUIA!**

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 7,21-27**

Aldi hartan, honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- “Neri ‘Jauna, Jauna!’ ari zaizkidanak, ez dira guztiak sartuko  
zeruetako erreinuan; zeruan dagoen nire Aitarek nahia egiten  
dutenak baizik. Egun hartan askok esango dit: ‘Jauna, Jauna, ez al  
ginen zure izenean profeta izan? Ez al genituen zure izenean  
deabruak uxatu, eta zure izenean mirari asko egin?’ Orduan esango  
diet garbi: “Ez zaituztet behinere ezagutu; alde Niregandik,  
gaizkileok!”

Beraz, nire hitz hauek entzuten eta betetzen dituenak, bere  
etxea harkaitz gainean eraiki zuen gizon zentzudunaren antzekoa  
da. Egin zuen eurria, etorri ziren uholdeak, atera zuen haizea, eta jo  
zuten etxe hura; baina ez zen erori, harkaitz gainean oinarritua bait  
zegoen. Nire hitz hauek entzuten dituenak, eta betetzen ez, bere  
etxea hondar gainean eraiki zuen gizon burugabearen antzekoa da.  
Egin zuen eurria, etorri ziren uholdeak, atera zuen haizea, jo zuten  
etxe hura, eta erori egin zen; eta haundia izan zen haren  
hondamena”.

**Oparigaien otoitza**

Zure bihotzean uste on dugula etorri gara, Jauna, gure eskaintzekin:  
zure grazia lagun ospatzen dugun sakramentuak garbi gaitzala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Sinestu ezazue, otoitzean eskatutako guztia iritsi duzuela, eta hartuko duzue –dio Jaunak–.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Zure Semearen gorputz-odolez janaritu gaituzunok, Jauna, gida gaitzazu, arren, zure Espirituaren eraginez;  
Zu egitez eta benetan aitorturik,  
eta ez mingainez eta hitzez bakarrik,  
zeruetako erreinuan sartzea iritsi dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**LOIOLAKO INAZIO SANTUA - uztailak 31****Sarrerako antifona**

Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezela –zeruan, lurrean eta lurpean- eta mingain guztiak aitor dezatela: Jesu Kristo Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, zure izenaren aintza gero eta gehiago zabaltzeko eman zenion Elizari Loiolako Inazio santua; iguzu, bera lagun eta ejenplu dugula, gudukaturik lur honetan, harekin parte izan dezagula zeruko zorionean. Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Deuteronomio liburutik 30, 15-20**

Jauna honela mintzatu zitzaion herriari Moisesen ahoz:

- “Begira, bizia eta zoriona, heriotza eta zorigaitza jartzen dizkizut gaur aurrean. Aditzen badituzu gaur ematen dizkizudan aginduak: Jauna, zure Jainkoa, maitatuz, Haren bidetik ibiliz, eta Haren aginduak, erabakiak eta esanak betez, biziko zara eta ugarituko; eta bedeinkatuko zaitu Jaunak, zure Jainkoak, jabe izateko sartuko zaren lurraldean.

Baina zure bihotza okertzen bada, aditzen ez baduzu eta zeure burua liluraten uzten baduzu, jainko arrotzei belauna makurtzen badiezu eta serbitzu egiten, gaurtik esaten dizut, nahitanahiez hondatuko zarela, eta ez duzula luzaro iraungo, Jordan igarota menperatzera zoazen lurraldean.

Zeru-lurrak deitzen ditut gaur testigu: bizia eta heriotza, bedeinkapena eta madarikapena jartzen dizkizuedala aurrean. Zuk eta ondorengoek bizi nahi baduzue, aukera ezazue bizia Jauna, zure Jaungoikoa, maitatuz, Haren esana adituz, eta Hari loturik; Bera baita zure bizia eta zure egunen luzagarria; eta biziko zara Jaunak zure guraso Abrahami, Isaaki, eta Jakobi emango ziela hitz eman zien lurraldean”.

**ERANTZUN-SALMOA 1**

**BAI DOHATSU, GAU TA EGUN  
JAUNAREN LEGEA  
HAUSNARTZEN DUENA.**

**Prefazioa**

Egoki da, bai, eta zuzen  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun, betiereko Artzain Horri.

Santiago, Kristoren testigu kuttunak, iragarri zuen  
zure Semearen heriotza eta piztueratik datorren erreinua,  
eta bera izan zen apostoluen artean lehenengoa  
Jaunaren kaliza edaten;  
Beronen zaindari-laguntzaz  
gordetzen da sinesmena gure herrietan,  
eta zabaltzen lur osoan;  
berau dute lagun  
Zuganako bidean erromes doazenek,  
Zugana heldu arte,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Horregatik, Jauna, aingeru guztiekin batean  
orain eta beti goresten zaitugu,  
fede apalez abesten dugula:

**Jaunartze-antifona**

Jaunaren kaliza edan zuen, eta Jainkoaren adiskide egin zen.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,  
zure herriaren zaindari den Santiago apostoluaren  
jaiegunean hartu ditugun dohain santuengatik;  
bera laguntzaile dugula.  
zaindu gaitzazu beti zure babespean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. Amen.

**URTEAN ZEHAR X IGANDEA****Sarrerako antifona**

Jauna dut argi eta salbamen, nork ni beldurtu? Jauna biziaren  
babes, nork ni izutu? Nere etsai eta arerioak irratitzen dira eta erortzen.

**Kolekta otoitza**

On guztien iturri zaren Jauna,  
entzun gure otoitza;  
zure argiak argi egin diezaigula, zuzen dena ezagutzeko,  
eta zure laguntzak indar eman, betetzeko.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Oseas Profetaren liburutik 6,3b-6**

Ahalegin gaitzen, Jauna ezagutzen:  
egunsentia bezala da Haren etorrera;  
argia bezala altxatzen da Haren erabakia.  
Neguko euria bezala isuriko da gure gainera,  
lurra girotzen duen udaberriko euria bezala.  
Zer egingo dizut zuri, Efrain?  
Zer egingo dizut zuri, Juda?  
Zure errukia goizeko lainoa bezala da,  
lurruntzen den goizeko ihintza bezala.  
Horregatik zauritu zaituztet Nik profeten bitartez,  
eta galdu zaituztet nere ahoko hitzez.  
Opariak ez, baino leialtasuna nahi baitut Nik;  
Jainkoaren ezaguera dut nahiago,  
erre-opariak baino.

**ERANTZUN-SALMOA 49****ZUZEN DABILENARI DIOT  
JAINKO-SALBAMENA ERAKUSTEN.**

Jauna, jainkoen Jainkoa, mintzo da:  
dei egiten dio lurrari batzarrera  
eguzkiaren sorlekutik sarlekura.  
Ez zaitut salatzen zeure sakrifizioengatik:  
zure erre-opariak aurrean ditut beti.

Eskaini esker oneko oparia Jainkoari,  
bete zeure promesak Goi-goikoari.  
Dei egidazu larrialdian:  
libratuko zaitut, eta zuk goretsi egingo nauzu..

### San Paulo Apostoluak Erromatarrei 4,18-25

Senideok: Abrahamek, itxaropenean oinarriturik, sinetsi egin zuen itxaropen guztien kontra, herri askoren aita izango zela; esan zitzaion bezala: “Hainbestekoa izango da zure ondorengoa”.

Eta bere sinesmenean ahuldu gabe iraun zuen, bere gorputza ordurako hila ikusten bazuen ere –ehun bat urte baitzituen–, eta Sararen sabela ere agorra. Jaungoikoaren agintzariaren aurrean, Abraham ez zen sinesgogor izan; sinesmenean indartu egin zen, aintza emanik Jainkoari; bazekien eta Jaungoikoak baduela ahalmen, hitzemandakoa betetzeko. Hori zela eta, sinesmena aintzat hartu zitzaion zuzentasunerako.

Baina ‘aintzat hartu zitzaioa’, Liburu Santuak ez du hori harengatik bakarrik esaten, gurengatik ere bai: guri ere aintzat hartuko zaigu, Jesu Kristo gure Jauna hilen artetik berpiztu zuen Harengan sinesten badugu: gure bekatuengatik emana izan bait zen, eta gure zuzentasunerako berpiztua.

**ALELUIA** Behartsuei Berri Ona ematera bidali nau Jaunak,  
eta gatibuei askatasuna. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,9-13

Aldi hartan, Jesusek, bidez zihoala, Mateo zeritzan gizon bat ikusi zuen zergalari-mahaian eserita, eta esan zion:

- “Jarrai Neri”.

Eta Mateok, zutitu eta jarraitu egin zion.

Jesu mahaian zegoela Mateoren etxean, zergalari eta bekatari asko etorri zen, eta mahaian eseri ziren Jesusekin eta Honen ikasleekin. Farisearrek, hori ikusita, honela esan zieten ikasleei:

- ‘Zergatik jaten du zuen Maisuak zergalari eta bekatariekin?’

Jesusek, hori entzunik, esan zion:

### Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 20,20-28

Aldi hartan, zebedeotarren ama hurbildu zitzaion Jesusi bere semeekin, eta aurrean ahuspeztu, eskabide bat egiteko.

Jesusek galdetu zion:

- “Zer nahi duzu?”

Eta berak:

- ‘Eser eraz ditzazula nire bi seme hauek, bata zure eskuinetan eta bestea zure ezkerretan, zure erreinuan’.

Eta Jesusek:

- “Ez dakizue zer eskatzen duzuen. Gauza al zarete zuek, Nik edango dudan kaliza edateko?”

Haiek:

- ‘Bai, gauza gara’.

Berak orduan:

- “Nire kaliza edan, bai, edango duzue; baina nire ezker-eskuin esertze hori, ez dago nire esku inori ematea; hori nire Aitak erabakitzen duen haientzat da”.

Beste hamarrak, hori entzutean, biziro haserre jarri ziren bi anaiekin. Jesusek, berriz, Beregan bilduta, esan zien:

- “Ba dakizue, herrietako agintariek gogor hartzen dutela menpean herria, eta haundiek azpian hartzen dutela. Ez bedi izan horrela zuen artean; baizik, zuen artean haundi izan nahi duena, bego zuen serbitzari; eta zuen artean lehenengo izan nahi duena, bego zuen menpeko. Gizonaren Semea ere ez bait da etorri besteen serbitzuak hartzera, besteak serbitzatzera baizik, eta bere bizia askoren erospen-sari ematera”.

### Oparigaien otoitza

Garbi gaitzazu, Jauna,  
zure Semearen nekaldiko bataio salbagarriaz;  
Kristoren kaliza edateko  
lehenengo izan zen Santiago apostoluaren jaiegunean  
opari atsegingarria eskain diezaizugun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**MALKOZ EREIN BAZUTEN,  
POZEZ BILDUKO DUTE.**

Jaunak Siongo atxilotuak erakartzean,  
bageunden amets antzean.  
Orduan bete zitzaigun ahoa barrez,  
gure mihia goratzarrez.

Atzerrietan, orduan, esan zuten:  
'Jauna haundikiro jokatua dute'.  
Gurekin haundikiro jokatu da Jauna:  
Hau da poza daukaguna!

**San Paulo Apostoluak Korintoarrei 2 Kor 4,7-15**

Senideok: Ondasun hau buztinezko ontzitan darabilgu, honenbesteko indarra Jaungoikoarengandik dela ager dadin, eta ez guregandik. Alde guztietatik estutzen gaituzte, baina ez itotzen: larri gaude, baina ez etsita; erasopean bai, baina ez eskutik utzita; lurrera botatzen gaituzte, baina ez hiltzen. Nonnahi eta beti Jesusen heriotza daramagu gorputzean, Jesusen bizia ere gure gorputzean ager dadin. Bizi garen bitartean, beti heriotzara eramaten gaituzte Jesusengatik; Jesusen bizia ere ager dadin gure izate hilkor honetan. Horrela guregan heriotza ari da; zuengan, berriz, bizia.

Liburu Santuak honela dio: 'Sinetsi dut, eta horregatik hitzegin dut'. Eta guk ere sinesmen-espíritu bera dugularik, sinesten dugu, eta horregatik hitz egiten dugu; jakinik, Jesus Jauna piztu duenak Berak piztuko gaituela gu ere Jesusekin eta bere ondoan ipiniko zuekin batera. Hau guztia zuen onerako da; graziadunak ugaritzen direlarik, haien esker ona ere ugariago izan dadin Jaungoikoaren aintzarako.

**ALELUIA** Gure Elizaren izar dirdaitsu, Santiago apostolua:  
zure gorputza bakean dago;  
zure aintza gure artean bizi da. **ALELUIA!**

- "Ondo daudenek ez, baino gaixo daudenek behar dute sendagile. Zoazte, bada, eta ikas zer esan nahi duen esaera hark: '*Opariak ez, baino errukia nahi dut Nik*'. Ez bait naiz zintzoei dei egitera etorri, bekatariei baizik".

**Oparigaien otoitza**

Begi onez begira, Jauna, aldareko gure serbitzuari:  
gure eskaintza Zuretzat atsegingarri izan dadin  
eta gure maitasunarentzat sendogarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Jaungoikoa maitasuna da; eta maitasunean dagoena  
Jainkoarekin dago eta Jainkoa harekin.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko guztiz ona,  
Zuk emandako sendabide honek  
gure gaiztakerietatik atera gaitzala  
eta bide zuzenera eraman.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**URTEAN ZEHAR XI IGANDEA****Sarrerako antifona**

Jauna, nere deiadar-hotsa entzun ezazu. Laguntza zaitut, ez nazazula zapuztu; Jainko, nere salbamen, eskutik utzi ez nazazu.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, Zugan itxaroten dutenen indarra,  
entzun bihotz onez gure otoitza;  
eta Zu gabe gizonaren ahuleriak ezer ez bait dezake,  
emaiguzu beti zure graziaren laguntza;  
zure aginduak betez,  
Zuretzat atsegingarri izan gaitezen gogoz eta egitez.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Exodo liburutik****19,2-6a**

Egun haietan, israeldarrak Sinai-ko basamortura iritsi ondoren, han ipini zituzten oihal-txabolak mendiaren aurrez aurre.

Moises Jaungoikoagana igo zen. Eta Jaunak menditik dei egin eta esan zion:

-“Honela hitz egingo diozu Jakobean etxeari, eta hau hots egingo israeldarrei: ‘Ikusi duzue ejiptoarrei egin diedana, eta zuek arrano-hegaletan eraman zaituztedala eta Nigana erakarri.

Orain, beraz, benetan entzuten baduzue nire hitza, eta nire elkargoa gordetzen, zuek izango zarete nire ondasun berezia, herri guztien artean, nirea baita lur osoa; zuek, berriz, apaiz-herri eta herri santu izango zarete Niretzat”.

**ERANTZUN-SALMOA****99****LUR OSOA,  
EGIOZU IRRINTZI JAINKOARI.**

Lurtar guztiok, egin irrintzi Jaunari,  
serbitza ezazue Jauna pozetan,  
sar zaitezte oihu alaiz haren aurrera.

Jakizue Jauna dela Jainko,  
Hark egin gaitu, berarenak gara,  
haren herri eta haren larreko artalde.

**SANTIAGO - uztailak 25****Sarrerako antifona**

Jesusek, Galileako itsas bazterrean zebilela, Santiago eta haren anaia Joan ikusi zituen, sare-konpontzen ari zirela, eta dei egin zien; eta Boanerges izena ipini zien, hau da, trumoikume.

**Kolekta otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
Santiago izan zen  
Ebanjelioagatik bere odola isuri zuen lehenengo apostolua;  
egizu, haren odol-isurtzeaz sendo dadila zure Eliza,  
eta haren zaindaritzapean dagoen zure herriak  
leial jarrai diezaiola beti Kristo Jaunari.  
Zurekin eta Espirituarekin... AMEN.

**Apostoluen Eginetatik****4,33; 5,12.27-33; 12,2**

Egun haietan, apostoluek kementsu ematen zuten Jesus Jaunaren Biztueraren aitormena, eta guztiek oso ongi ikusiak ziren. Apostoluen eskuz herrian mirari eta harrigarri asko egiten zen. Batzarre Nagusiaren aurrera ekarri zituzten apostoluak, eta apaiz nagusiak galdetu zien:

- ‘Ez al genizuen zorrotz agindu, Horren izenean ez erakusteko? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zuen erakutsiz, eta gizon horren odolaren erantzukizuna guri ezarri nahi diguzue’.

Pedrok eta apostoluek erantzun zuten:

- ‘Jaungoikoaren esana egin behar da aurrena, ez gizonena. Gure arbasoen Jaungoikoak biztu egin zuen, zuek habetik zintzilik hil zenuten Jesus. Jaungoikoak goratu egin du bere eskuinez, eta Buruzagi eta Salbatzaile egin, Israeli bihotzberritza eta bekatuen barkamena emateko. Gu gara gauza hauen testigu, baita Jaungoikoak bere esana egiten dutenei ematen dien Espiritu Santua ere’.

Erantzun honek haserretu zituen biziro batzarrekoak, eta haiek hiltzea erabaki zuten.

Eta Herodes erregeak Joanen anaia Santiagori ezpataz lepoa moztu zion.



Zuri emango dizkizut zeruetako erreinuaren giltzak. Eta zuk lurrean lotua, zeruetan ere lotua izango da; eta zuk lurrean askatua, zeruetan ere askatua”.

### Oparigaien otoiiza

Zure apostoluen otoiiza izan dezala lagun, Jauna, ekarri dizugun emaitzak; eta zure gogoko egin gaitzala, opari hau eskaintzerakoan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea, Jauna, Aita guztiz santu, Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri. Pozez beterik goratzen ditugu gaur Pedro eta Paulo zure apostoluak: Pedro, fedearen lehenengo aitorlea; Paulo, fede beronen argitzailea; bata, Israelgo ondarrak bilduz, Eliza eraiki zuena; bestea, salbameneko berri ona jentilei ezaguterazi ziena. Biok, bakoitzak bere graziaz, lan egin zuten Kristoren familia bakarra biltzen; eta biak orain ospe berean bat eginik dauzkagu, gure gorespenak hartzeko. Horregatik, santu eta aingeru guztiekin goresten zaitugu, beti eta beti abesten dizugula:

### Jaunartze-antifona

Pedrok esan zion Jesusi: Zu Mesias zara, Jaungoiko biziaren Semea. Jesusek erantzun zion: Zu “Harria” zara, eta harri horren gainean eraikiko dut Nik nere Eliza.

### Jaunartze ondorengo otoiiza

Sakramentu honen bidez indarberritu gaituzunoi, Jauna, emaguzu lehenengo kristauen antzera bizitzea Elizan; ogia zatitzean eta apostoluen erakutsietan zintzo iraunez, bihotz bat eta anima bat izan gaitezen, zure maitasunak sendoturik. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

## San Paulo Apostoluak Erromatarrei 5,6-11

Senideok: Oraindik indargabe geundela, Kristo, bere orduan, gaiztoen alde hil zen. Nekez hil daiteke norbait gizon zuzen baten alde; gizon on baten alde, baliteke norbaitek hil nahi izatea.

Baina, hontan erakusten du Jaungoikoak guretzat duen maitasuna: gu bekariak ginelarik, Kristo gure alde hil bait zen.

Beraz, orain Haren odolaz zuzentasuna iritsi dugunez gero, are gehiago salbatuko gara haserretik Berari esker. Etsai ginelarik, Jainkoarekin adiskidetuak izan baginen, bere Semearen heriotzari esker, are gehiago salbatuak izango gara Haren biziari esker, adiskidetuak gaudelarik. Gehiago oraindik: harrotu ere egiten gara Jaungoikoagan Jesu Kristo gure Jaunaren bidez; orain, Beronen bidez Jainkoarekin adiskidetzea iritsi dugu-eta.

**ALELUIA** Hurbil da Jaungoikoaren erreinua;  
Bihozberri zaitzete eta sinetsi berri ona. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 9,36-10,8

Aldi hartan, Jesusek gizataldeak ikustean, erruki izan zituen, nekaturik, eta lur jota bait zeuden, artzairik gabeko ardiak bezala. Eta orduan ikasleei esan zien:

- “Uzta ugaria da; baina langileak gutxi. Egin, beraz, otoiiz uzta-jabeari, bidal ditzala langileak bere uztara”.

Bere hamabi ikasleei dei egin eta ahalmena eman zien espiritu likitsak uxatzeko, eta gaitz eta min guztiak sendatzeko.

Hamabi apostoluen izenak hauek dira: aurrena Simon, Pedro deritzana, eta Andres, honen anaia; Santiago Zebedeorena eta Joan, honen anaia; Felipe eta Bartolome, Tomas eta Mateo zerga-biltzailea, Santiago Alfeorena eta Tadeo; Simon kanaandarra eta Judas Iskariote, saldu zuena bera.

Hamabi hauek bidali zituen Jesusek, ohar hauek eginez:

- “Ez joan jentil-lurretara, ez sartu Samariako herrietan; baizik-eta zoazte, galduta dabiltzan Israel-etxeko ardiatara: Eta bidean zoaztela, hotsegin ezazue, hurbil dela zeruetako erreinua. Senda itzazue gaisoak, biztu hilak, garbitu lepradunak, uxatu deabruak; hutsean hartu duzue, eman hutsean”.

**Oparigaien otoitza**

Jainko Jauna, orain eskaintzen dizkizugun dohainetan aurkitzen ditugu bizitza honetako janaria eta bizi berriaren sakramentua; egizu, gure gorputz-arimak ez daitezela gerta inoiz ere hauen laguntzarik gabe. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Aita guztiz santu, zaindu itzazu Zeuk, Neri eman dizkidazun hauek, Gu bezala bat izan daitezen –dio Jaunak–.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jaunartze honek, Jauna, fededunak Zurekin bat direla adierazten du; ekar dezala zure Elizan guztiok elkarrekin bat egitea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**ERANTZUN-SALMOA**

33

**TXASTA EZAZUE TA IKUS ZEIN SAMUR DEN JAUNA.**

Bedeinka dezadan aldi oro Jauna, nere ahoan beti Haren gorespena. Gailendu bekit bihotza Jaunarekin, poztu bitez apalak hori entzutearekin.

Jaunaren aingeruak txabolak ipintzen ditu beldur diotenen inguruan, eta babesten ditu. Dasta ezazue ta ikus zein samur den Jauna, bai dohatsu, Harengana ihes dihoana.

**San Paulo Apostoluak Timoteori 2 Tm 4,6-8.17-18**

Anaia maite: Nire odola isurtzeko zorian nago ni; nireak laster egingo du. Borroka ona egin dut, ibilaldia bukatu dut, gorde dut sinesmena. Orain prestaturik dago niretzat zuzentasunaren koroa, Jaunak, epaile zuzenak, egun hartan emango didana; ez, ordea, niri bakarrik; baita Haren etorrera maite duten guztiei ere. Zatozkit lehenbaitlehen.

Jauna nire alde nuen eta Berak indartu ninduen, Berri On osoa nire bidez zabal zedin eta herri guztiek entzun zezaten; Berak atera ninduen lehoiaren ahotik. Jaunak aterako nau berriz ere gaitz guztietatik; salbatuko nau eta bere zeru-erreinura eramango. Berari aintza gizaldiz gizaldi. Amen.

**ALELUIA** Zu 'Harria' zara;

harri horren gainean eraikiko dut Nik nere Eliza; eta heriotzaren indarrak ez zaizkio nagusituko. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 16,13-19**

Aldi hartan, Jesusek, Filipoko Zesarea aldera etorri zelarik, honela galdetu zien bere ikasleei: "Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?" Eta haiek: 'Batzuek, Joan Bataiatzailea dela; beste batzuek, Elias; besteek, Jeremias edo profetaren bat'.

Jesusek orduan: "Eta zuek, nor naizela diozue?" Eta Simon Pedrok erantzun zion: 'Zu Mesias zara, Jaungoiko biziaren Semea'.

Jesusek: "Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea! Ez haragik, ez odolek, ez bait dizu adierazi hori zuri, zeruan dagoen nere Aitak baizik. Eta horra Nik esan: Zu 'Harria' zara; harri horren gainean eraikiko dut Nik nere Eliza; eta heriotzaren indarrak ez zaizkio nagusituko.

**SAN PEDRO ETA SAN PAULO** - ekainak 29**Sarrerako antifona**

Hauek dira, bizi zirela, Eliza beren odolaz eraiki zutenak: Jaunaren kaliza edan zuten eta Jainkoaren adiskide egin ziren.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, alaitasun santuz betetzen gaituzu  
Pedro eta Paulo Apostoluen jai honetan;  
egizu, zure Elizak kristau fedearen lehenengo berria  
haiengandik izan zuen bezala,  
haien erakutsietan zintzo jarrai dezala beti.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Apostoluen Eginetarik 12,1-11**

Egun haietan, Herodes erregea gogor erasotzen hasi zen eliztar batzuen aurka, eta Joanen anaia Santiagori ezpataz lepoa moztu zion. Eta judutarrei poz ematen ziela ikusirik, baitu erazi egin zuen Pedro ere. Pazko-astea zen. Eta, loturik, espetxean sarrarazi zuen, eta launa gudariko lau sailek zaindu zezatela agindu. Pazko-ondorenean herriaren aurrean hilarazteko asmoa zuen. Pedro giltzapean ondo zainduta zeukaten bitartean, Eliza otoitzean ari zitzaion Jaungoikoari haren alde, etengabe.

Herodesek hura atera behar zuen aurreko gauean, lo zegoen Pedro, bi gudarien erdian, haiei katez loturik. Eta espetxe-zainak ate-aurrean zeuden hura zaintzen. Bat-batean Jaunaren aingerua agertu zen, eta gela-barrua argitu egin zen. Eta saihetsean ukituz, esnarazi zuen Pedro, esanez: "Jaiki azkar!". Kateak eskuetatik erori zitzaizkion. Eta aingeruak berriro: "Lotu gerrikoa eta jantzi oinetakoak".

Hala egin zuen Pedrok; eta aingeruak berriz: "Jantzi soingainekoa; eta jarrai neri". Pedro, atera eta atzetik zihoakion. Ez zuen uste, ordea, aingeruak ari zuena egia zenik; irudipena zerizkion. Eta lehenengo eta bigarren zaintzaile-taldeak igaro ondoren, herrira daraman burdinezko ateraino iritxi ziren, eta berez zabaldu zitzairen. Atera eta kale bat igaro zuten; orduan, aingerua bat-batean ezkutatu egin zitzaion. Pedrok, bere baitara etorririk, honela zioen: 'Bai, egia zen; Jaunak bere aingerua bidali du, Herodesen eskuetatik eta judutarren ikusi-nahi guztietatik ni ateratzeko'.

**URTEAN ZEHAR XII IGANDEA****Sarrerako antifona**

Jauna du indar bere herriak, babes eta salbamen bere Gantzutuak. Salba, Jauna, zure herria, eta zure ondarea onetsi; larra itzazu eta eragiezu beti.

**Kolekta otoitza**

Izan dezagula beti, Jauna,  
zure izen santuaren beldurra eta maitasuna:  
ez bait dituzu behinere zeure eskutik uzten  
zure maitasunean sendo jarri dituzunak.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Jeremias profetaren liburutik 20,10-13**

Honela mintzo zen Jeremias:  
'Marmar hauek entzuten nizkion jendeari:  
–Beldurra nonahi.  
Sala ezazue; sala dezagun–.  
Nere adiskideak berak ere begira dauzkat,  
ni noiz eroriko:  
–Ea liluratzen dugun, eta menperatu egingo dugu;  
hartu eta bere ordaina emango diogu–.  
Baina nirekin daukat Jauna, gudari indartsu;  
eroriko dira nire etsaiak,  
eta ez zaizkit gailenduko.  
Beren asmoak ezin bete dituztelako,  
behinere ahaztuko ez den lotsa gorria izango dute.  
Diren guztien Jauna, zintzoa aztertzen  
eta bihotzaren barne-muinetan ikusten duzuna,  
Ikus dezadala nik, haien kontrako zure bendekua;  
zure gain utzi dut nik nere auzia.  
Kanta Jaunari, goretsazue Jauna,  
Harek askatu du gaiztoen eskutik  
behartsuen bizia'.

**ERRUKI HUTSA DUGU JAUNA,  
ERRUKIA TA MAITASUNA.**

Zuregatik jasan ditut irainak,  
Zuregatik lotsaz gorritua dut aurpegia.  
Arrotz gertatu naiz neure senideentzat,  
ezezagun neure amaren seme-alabentzat.  
Zure tenpluaren maiteminak erretzen nau,  
eta gainera datozkit Zuri egindako irainak.

Baina nik Zuri dagizut otoitz;  
mesede-garaia duzu, Jauna.  
Erantzun, ene Jainko, zeure maitasun handiaz,  
zeure salbamen leialaz.  
Erantzun, Jauna, samurra baita zure maitasuna,  
bihur nigana begiak zeure erruki handiaz.

**San Paulo Apostoluak Erromatarrei 5,12-15**

Senideok: Gizon batengatik bekatua mundura sartu zen bezala, eta bekatuarengatik heriotza; eta horrela, heriotza gizon guztietara zabaldu zen, guztiek egin zutelako bekatu... Legea baino lehen, munduan bekatua izanik ere, ez zitzaion inori bekatu ezartzen, Legerik ez zegoelako. Baina, hala ere, Adan-engandik Moises-enganaino, nagusi izan zen heriotza, Adan-en hutsegitearen antzeko bekatu egin ez zutenen gain ere; eta Adan, etortzekoa zenaren iduri da.

Graziarekin ez da bekatuarekin bezala gertatu. Izan ere, baten bekatuaz guztiak hil dabira, askoz ugariago zabaldu da guztientzat Jaungoikoaren grazia eta dohaina, gizon bakarrari esker: Jesu Kristori esker, alegia.

**ALELUIA** Egiaren Espirituak egingo du aitormen Nitaz  
—dio Jaunak—,  
eta zuek ere egingo duzue aitormen. **ALELUIA!**

**Prefazioa**

Egoki da, bai, eta zuzen  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri,  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Beronen bidegile eta amen semeetan haundiena den  
Joan Bataiatzailea ospatzean  
zure miragarriak goستن ditugu.

Jaio-aurretik amaren sabelean pozez jauzi egin zuen,  
gizon-emakume guztien Salbatzailea etorri zitzaionean;  
jaiotzan, berriz, poz handia ekarri zion munduari;  
profeta guztien artean, bera bakarrik izan zen  
Jainkoaren Bildotsa erakutsi zuena.

Berak bataiatu zuen Jordanen Bataioaren egilea  
eta urari salbamen-indarra emango ziona;  
eta, bere odola isuriz,  
aitormenik ederrena eman zion Kristo Jaunari.

Horregatik, zeruko talde guztiekin,  
lurrean beti eta beti goستن zaitugu,  
Zuri, Jainko guztiz haundi Horri,  
etengabe kantatuz:

**Jaunartze-antifona**

Gure Jainkoaren errai errukitsuengatik, agertu zaigu Goiz-eguzkia gainetatik.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Zeruko Bildotsaren mahaian indarberritu gaituzu, Jauna;  
egizu, egun honetan Joan Bataiatzailearen jaiotza  
pozez ospatzen duen zure Elizak  
jaiotza berriaren egilea ezagutu dezala  
berehala etortzekoa zela  
hark erakutsi zuen zure Semearengan.  
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

**ALELUIA** Zu, haurra, Goi-goikoaren profeta deitua izango zara,  
Jaunaren aurpegi aurretik joango baitzara  
Hari bidea prestatzera. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Lukasen liburutik 1,57-66.80**

Etorri zitzaion ordua Isabeli, eta semea izan zuen. Entzun zuten auzokoek eta ahaideek Jaunak egin zion erruki haundia, eta zorionak ematen zizkioten. Zortzigarren egunean, haurra erdaintzera eraman zuten, eta Zakarias deitzen zioten, aitari bezala. Amak, ordea, esan zuen:

- 'Ez! Joan izango du izena'.

Haiek, berriz:

- 'Ez duzue zuen senitartean inor, izen hori duenik'.

Orduan aitari keinuka hasi zitzaizkion, ea zer izen eman nahi zion haurrari. Eta hark, idatz-ohol bat eskatu, eta idatzi zuen:

- 'Joan du bere izena'.

Eta denak harriturik gelditu ziren. Bat-batean askatu zitzaion mihia, eta hitzegiten hasi zen eta Jaungoikoa goresten. Beldurrak hartu zituen auzokoak; eta berri hau Judeako mendialde guztietan zabaldu zen. Entzuten zutenek, beren barruan pentsaka, honela zioten:

- 'Zer izango ote da haur hau?'

Jainkoaren eskua harekin bait zegoen.

Haurra hazten ari zen, eta bizkortzen haren espiritua; eta basamortuan bizi izan zen, Israel-herriaren aurrean agertu zen egunera arte.

**Oparigaien otoitza**

Zure aldarean ezarri ditugu, Jauna, emaitza hauek,  
San Joanen jaioteguna egoki ospatzeko:  
berak esan bait zuen munduaren Salbatzailea hurbil zegoela,  
baita, etorri zenean, erakutsi ere.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 10,26-33**

Aldi hartan honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- "Ez izan beldurrik. Ez bait da ezer ezkuturik, agertuko ez denik; ez ezer gorderik, jakingo ez denik. Gaueko ilunbetan esaten dizuedana, esazue eguneko argitan; eta belarrira entzuten duzuen, hotsegin etxe gainetatik. Ez izan beldurrik gorputza hiltzen dutenei, baina arima ezin hil dezaketenei; izan beldur, inori izatekotan, gorputz-arimak su-leizean gal ditzakeenari.

Ez al dira txanpon batetan saltzen bi txori? Eta haietako bakar bat ere ez da lurrera erortzen, zuen Aitaren baimenik gabe. Zuen buruko ile guztiak ere kontaturik daude. Beraz, ez izan beldurrik; txori guztiak baino gehiago zarete zuek.

Gizonaren aurrean nire alde ateratzen denak, bere alde izango nau Ni ere, zeruetan dagoen nire Aitaren aurrean. Gizonaren aurrean Ni ukatzen nauena, ordea, ukatu egingo dut Nik ere, zeruan dagoen nire Aitaren aurrean".

**Oparigaien otoitza**

Onar, Jauna, bakezko eta gorespenezko opari hau;  
beronek garbi gaitzala bekatuetatik  
eta Zuretzat opari atsegingarri egin.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Ni naiz Artzain ona, eta nere bizia ematen dut Nik ardiengatik –dio Jaunak–.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Kristoren gorputz santuaz eta odol baliotsuaz  
janaritu gaituzu, Jauna;  
zure bihotz onari eskatzen diogu,  
Mezan ospatzen duguna betiko salbamen izan dakigula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**URTEAN ZEHAR XIII IGANDEA****Sarrerako antifona**

Herri guztiok, txalo jo ezazue, Jainkoari irrintzi egiozue.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna,  
zure semetzat hartuz, argiaren seme-alaba egin gaituzu;  
iguzu, ez gaitzala inguratu gezurraren ilunpeak,  
eta zure egiaren argi ederrean bizi gaitzela beti.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Erregeen liburutik****2 Erg 4,8-11.14-16a**

Behin batean, Eliseo Sunandik barrena igarotzen zelarik, hango andre aberats batek bazkaltzera eraman zuen; eta geroztik Eliseo handik igarotzen zen guztietan, harengana joaten zen bazkaltzera. Andreak honela esan zion senarrari:

- 'Begira, badakit Jaungoikoaren gizon hori santu bat dela. Egin diezaiozun etxe-gainean gela txiki bat, sarritan baitator gurera; jar diezaizkiogun han ohe, mahai, aulki eta argi-mutil bat, gurera datorkenean bertan geldi dadin'.

Halako batean, etorri zen Eliseo, gela hartan sartu eta bertan etzan zen. Eliseok Gejazi bere morroiari esan zion:

- 'Zer egin dezakegu andre honen alde?'

Gejazik erantzun zion: 'Ez du haurrik, eta bere senarra zaharra da'.

Eliseok Gejaziri: 'Dei egiozu'.

Dei egin zion Gejazik, eta atean agertu zen andrea. Eliseok esan zion: 'Datorren urtean garai honetan, seme bat izango duzu besoetan'.

**ERANTZUN-SALMOA****88****JAUNA, ZURE MAITASUNA  
ABESTUKO DUT BETIREN BETI.**

Jauna, zure maitasun-egintzak kantatuko ditut beti,  
zure leialtasuna iragarriko gizaldiz gizaldi.  
Bai, aitortzen dut:  
'Betiko eraikia dago zeruan zure maitasuna,  
sendo ezarria zure leialtasuna.'

Eta hau esan dit:

"Oso gutxi da zu nire serbitzaria izatea,  
Jakoben leinuak eraikitzeke  
eta gelditzen diren israeldarrak herriratzeko.  
Atzerrien argi egiten zaitut,  
nire salbamena lurraren azken mugaraino iritxi dadin".

**ERANTZUN-SALMOA****138****JAUNA, ZURE MAITASUNA  
ABESTUKO DUT BETIREN BETI.**

Jauna, Zuk aztertzen nauzu eta Zuk ezagutzen:  
Zuk dakizu noiz esertzen naizen, noiz jaikitzen.  
Urrundik ulertzen dituzu nire gogorakizunak,  
noiz nabilen, noiz natzan, Zuk ikusten duzu,  
nire bide guztiak ezagunak dituzu.

Nire barrena Zuk antolatu duzu,  
amaren sabelean Zuk eho nauzu.  
Gora Zu, hain harrigarri egin nauzulako,  
Zuk eginak hain miragarri direlako.

**Apostoluen Eginetatik****13,22-26**

Egun haietan, Paulok honela zioen: 'Jaungoikoak Dabid eman zien errege, harentzat aitormen hau eginez: "*Aurkitu dut Dabid, Jeseren semea, neure gogoko gizona, nire agindu guztiak beteko dituena*".

Hitzemana zeukanez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea, Jesus. Berau etorri baino lehen, Joanek bihotz-berritzeko bataioa hotsegin zion Israel-herri osoari. Eta bere bizia bukatzera zihoanean, honela zioen Joanek:

- 'Ez naiz ni, zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor Haren oinetakoak askatzeko ere'.

Senideok, Abrahamen ondorengo eta Jaungoikoaren beldur zaretenok: Zuei bidali zaizue salbamen-hitz hau'.

**SAN JOAN BATAIATZAILEAREN JAIOTZA** - ekainak 24

Eguneko meza

**Sarrerako antifona**

Agertu zen gizon bat, Jaungoikoak bidalia: Joan zuen izena. Argiaren aitormen egitera etorri zen, eta Jaunarentzat herri egoki bat prestatzera.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, zure Semearentzat herri on bat prestatzeko sortu zenuen Joan Bataiatzaile santua; emaiozu zure Elizari bihotzeko pozaren dohaina, eta eraman itzazu zure fededun guztien gogoak bake eta salbamen-bidetik. Zure Seme Jesu Kristo...AMEN.

**Isaias profetaren liburutik 49,1-6**

Uharteak, entzun! Urrutiko herriak, aditu!  
Amaren sabeletik deitu ninduen Jaunak,  
amaren errailetatik zidan izen eman.

Ezpata zorrotz egin zuen nire ahoa,  
bere gerizpean gorde ninduen;  
gezia bezala zorrotzurik,  
gezi-ontzian sartu ninduen.

Eta esan zidan:

“Zu, (Israel), nire morroi zara,  
zukan dut gorespina”.

Nik neure baitan esaten nuen:

‘Alferrikakoak, nire nekeak;  
hutsean erre ditut nire indarrak’.

Baina egiaz, Jaunak zeukan nire zuzenbidea;  
nire Jainkoak zeukan nire saria.

Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabeletik  
bere serbitzurako deitu ninduena;

Jakob Beregana bihurtzeko  
eta Israel biltzeko;

izan ere, halako ospea eman zidan Jaunak,  
eta Jainkoa izan zen neure indar.

Zorionekoa, Zu pozik goستن dakien herria!  
Zure argitan ibiliko da, Jauna:  
zure izenean da egunero alaitzen,  
zure salbamen-egintzaz harrotzen.

**San Paulo Apostoluak Erromatarrei 6,3-4.8-11**

Senideok: Bataioaz Kristo Jesusi lotuak izan garenok, Haren heriotzari lotuak izan gara. Bataioaren bitartez Berarekin heriotzan hobiratuak izan gara; Kristo hilen artetik Aitaren aintzaz biztua izan zen bezala, gu ere biziera berri batean ibil gaitzen.

Beraz, gu Kristorekin hil bagara, sinesten dugu, bizi ere Berarekin biziko garela; izan ere, badakigu Kristo hilen artetik biztu zenez gero, ez dela berriro hilko; heriotzak ez du Harengan gehiago aginterik. Haren hiltzea, bekatuarentzat behin betiko hiltzea izan baitzen; eta Haren bizitza, Jaungoikoarentzat bizitza da. Horrela, bada, zuek ere eduki itzazue zeuron buruak bekatuarentzat hilak bezala eta Jaungoikoarentzat biziak, Kristo Jesus gure Jaunagan.

**ALELUIA** Zuek jatorri hautatua zarete,  
errege-apaizgo, enda santu;  
Oihuka itzazue, ilunpetik atera eta argi zoragarria  
dei egin dizuenaren egintza harrigarriak. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 10,37-42**

Aldi hartan honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- “Aita eta ama Ni baino maiteago dituenak, ez da Niretzat gai; semea edo alaba Ni baino maiteago dituenak, ez da Niretzat gai; eta bere gurutzera hartu eta Nirekin ez datorrena, ez da Niretzat gai. Bere bizia beretzat gordetzen duenak, galdu egingo du; eta bere bizia Niregatik galtzen duenak, beretzat gordeko du.

Zuek hartzen zaituztenak, Ni hartzen nau; eta Ni hartzen nauenak, Ni bidali nauena hartzen du. Profeta bat, profeta delako, hartzen duenak, profeta-saria izango du; eta zintzo bat, zintzo delako, hartzen duenak, zintzo-saria izango du. Nire ikasle delako, txiki hauek bati baso bat ur hotz edateko ematen dionak, benetan diotsuet, ez du galduko bere saria”.

**Oparigaien otoitza**

Jauna, Zuk ematen diezu sakramentuei beren indarra;  
 iguzu, gure serbitzuak gai egin gaitzala  
 zure dohain santuak hartzeko.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Aita, hauengatik eskatzen dizut, hauek ere Guregan bat izan  
 daitezela, munduak sines dezan Zuk bidali nauzula –dio Jaunak–.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Eskaini eta hartu dugun opariak  
 eman diezaigula bizia, Jauna;  
 maitasunean beti Zurekin bat eginik,  
 fruitu iraunkorrek ekar ditzagun.  
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Ba zen emakume profeta bat, Ana zeritzana, Fanuelen alaba, Aserren jatorrikoa. Adin haundikoa zen; gazte-gazterik ezkondua, zazpi urtez senarrarekin bizi izan zen, eta orain ba zituen larogeitalau urte, eta alargun zegoen. Gau eta egun jauretxean zegoen, barau eta otoitz, Jaungoikoa serbitzatzen. Ordu hartan han gertatu zen, eta Jaungoikoa goresten eta haurraz mintzatzen hasi zitzaizen Israelgo askatasunaren zain zeuden guztiei.

Dena Jaungoikoaren Legeak agintzen duen bezala bete zutenean, Galileara itzuli ziren, beren herri Nazareta. Haurra hazten eta indartzen ari zen, eta jakinduriaz betetzen; eta Jaungoikoaren grazia Harekin zegoen].

**Oparigaien otoitza**

Atsegin dakizula, Jauna,  
 Elizak pozik egiten dizun eskaintza,  
 Zuk nahi izan bait duzu  
 zeure Seme maitea bildots garbi Zuri eskainia izatea  
 munduaren bizirako.  
 Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

**Prefazioa**

Egoki da, bai, eta zuzen  
 nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
 Jauna, Aita guztiz santu,  
 Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.  
 Zure betiko Semea  
 gaurko egunez eskainia izan zen jauretxean,  
 eta Espiritu Santuak adierazi zuen  
 Berau zela Israelen edergarria eta atzerrien argia.  
 Horregatik, pozez beterik  
 Zuk bidalitako Salbatzailearen bidera goazela,  
 aingeru eta santu guztiekin goresten zaitugu,  
 beti eta beti abesten dizugula:

**Jaunartze-antifona**

Ikusi dute nere begiok Zugandiko salbamena, herri guztien  
 aurrean ipini duzuna.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Simeonen itxaropena bete duzun Jauna, emaguzu, Eukaristia  
 honi esker, zure graziaren betea; eta egizu, hark, hil aurretik, Kristo  
 besoetan hartzeko poza izan zuen bezala, guk ere, Jaunaren bidera  
 goazenok, betiko bizia iritsi dezagula. Jesu Kristo gure Jaunaren  
 bitartez. AMEN.



**Ebertarrei egindako epistolatik 2,14-18**

Familia berekoak odol eta haragi bat-bera dute; eta Jesusek ere gure odola eta haragia hartu zituen, bere heriotzaz heriotzaren nagusia, deabrua, ezerezteko, eta heriotza-beldurrez bizitza guztian morroi zeudenak askatzeko. Eta bere eskua luzatu die, ez aingeruei, Abrahamen jatorriari baizik. Horregatik, gauza guztietan senideen antzeko izan behar zuen, errukior izan zedin eta Jainkoarenganako gauzetan apaiz nagusi leial, herriaren bekatuak ordaintzeko. Berak, tentaldiak eta oinazeak izan zituelako, lagun diezaieke tentaldian daudenei.

**ALELUIA** Atzerriak argitzeko argia  
eta zure herri Israelen edergarria. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Lukasen liburutik 2,22-40**

Aldi hartan, Mariarentzat, Moisesen Legearen arauera, garbikundeko egunak bete zirenean, gurasoek Jerusalem eraman zuten Jesus, Jaunari aurkezteko (Jaunaren Legean idatzirik bait dago: *Lehen-semea Jaunari eskainia izango da*), eta opari egiteko (Jaunaren Legeak agintzen duen eran: *Bi usapal edo bi usakume*).

Simeon izeneko gizon bat bizi zen orduan Jerusalemenean, gizon zintzo eta jainkozalea, Israelen poza itxadoten zuena, eta Espiritu Santua berekin zuena. Espiritu Santuak adierazi zion ez zuela heriotzarik ikusiko, Jaunaren Mesias ikusi arte. Eta Espiritu Santuak eraginda jauretsera joan zen. Gurasoek Jesus eraman zutenean, Legeak agindua Harekin betetzera, hartu zuen Simeonek haurra besoetan eta Jaungoikoa bedeinkatu zuen, esanez:

‘Orain utz dezakezu, Jauna, morroi hau bakean joaten, Zeuk hitzeman bezala. Ikusi bait dute nere begiok Zuregandiko salbamena, herri guztien aurrean ipini duzuna: Atzerriak argitzeko argia, eta zure herri Israelen edergarria’.

[Haurraren aitamak harriturik zeuden, haurrarentatik esaten zirenekin. Eta Simeonek bedeinkatu zituen, eta haurraren ama Mariari esan zion:

- ‘Begira, israeldar asko erortzeko eta beste asko altxatzeko ipinia dago hau; eta eztabaida sortzen duen ezaugarri izango da, horrela bihotz askotako asmoak argitan ager daitezken; eta zerorri ezpata batek alde alde zulatuko dizu arima’.

**URTEAN ZEHAR XIV IGANDEA****Sarrerako antifona**

Gogoratzen dugu, Jainko zure maitasuna, zure jauretze erdian. Zure izena bezala, Jainko, zure gorespena, iristen da lurraren bazterrera: zure eskuina zuzentasunez dago betea.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, zure Semea beheratuz,  
jaso egin duzu eroria zegoen mundua;  
eman zure fededunei egiazko poza,  
eta egizu, bekatuaren uztarpetik askatu dituzunek  
betiko zoriona izan dezatela.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Zakarias profetaren liburutik 9,9-10**

Honela mintzo da Jauna  
“Poztu zaitez, Siongo alaba;  
kanta ezazu, Jerusalengo alaba.  
Hor datorkizu zure erregea  
zintzo eta garaile;  
apal, asto-gainean,  
astakume baten gainean jarrita.  
Honek hondatuko ditu Efraingo guda-gurdiak  
eta Jerusalengo zaldiak;  
honek hautsiko guda-uztaiak,  
eta hots egingo bakea atzerriei.  
Honen agintaritza itsasotik itsasora,  
eta Eufrestetik lurraren azken-mugetaraino”.

**ERANTZUN-SALMOA 144****JAUNA, ZURE MAITASUNA  
ABESTUKO DUT BETIREN BETI.**

Goratuko zaitut, ene Jainko, ene errege,  
bedeinkatuko dut zure izena betiren beti.  
Egunero zaitut bedeinkatuko,  
zure izena goretsiko beti.

Errukiorra eta bihotzbera da Jauna,  
haserregaitza eta onginahiez betea.  
Ona da Jauna guztientzat,  
gupidaz betea bere sorkari guztientzat.

### San Paulo Apostoluak Erromatarrei 8,9.11-13

Senideok: Zuek ez zarete haragiaren menpean aurkitzen, Espirituaren menpean baizik, Jaungoikoaren Espiritua zuengan bizi baita. Norbaitek Kristoren Espiritua ez badu, hori ez da Kristorena. Jesus hilen artetik piztu zuenaren Espiritua zuengan bizi bada, Jesus hilen artetik piztu zuenak, bizieraziko ditu zuen gorputz hilkorrek ere, zuengan den bere Espirituaren bitartez.

Beraz, zorretan gaude, baina ez haragiarekin, haragi-erara bizi izateko. Haragi-erara bizi bazarete, hilko zarete; baina Espirituarekin gorputzaren egiteak hilarazten badituzue, biziko zarete.

**ALELUIA** Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna,  
zure erreinuko misterioak  
jende xumeari erakutsi baitizkiozu. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 11,25-30

Aldi hartan, Jesusek honela esan zuen:

- "Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsuei eta burutsuei gorde, eta jende xumeari erakutsi bait dizkiozu. Bai, Aita, hala nahi izan duzu.

Nire Aitak dena eman dit; inork ez du ezagutzen Semea, Aitak baizik; ezta Aita ere, Semeak baizik, eta Semeak agertu nahi izan dionak baizik.

Zatozte Niregana nekatuok, lanpetuok; eta Nik arinduko zaitzuet. Har ezazue nire uztarria eta ikas Niregandik: bihotzbera naiz eta apala; eta aurkituko duzue zuen arimentzat atsedean. Nire uztarria leuna bait da, eta nire zama arina".

### Malakias profetaren liburutik 3,1-4

Honela mintzo da Jaungoiko Jauna:  
"Begira, hor bidaltzen dut Nik  
nire mezularia nere aurretik,  
bidea prestatzera.

Berehala etorriko da santutegira  
zuek bila zabiltzaten Jauna,  
eta zuek irrikatzen duzuen  
elkargo-mezularia.

Horra non datorren

–dio diren guztien Jaunak–.

Nork jasan haren etorrera-eguna?

Nor zutik egon, Hura etortzen denean?

Urtzailearen sua bezala izango da,  
lixibagilearen zurigarria bezala;

zilarra garbitzen duen

urtzailea bezala ariko da;

zilarra eta urrea bezala

garbituko ditu Lebiren semeak;

eta behar bezala eskainiko diote  
oparia Jaunari.

Orduan atsegin izango zaio Jaunari

Judako eta Jerusalengo oparia,  
lehengo urteetan bezala".

### ERANTZUN-SALMOA

23

#### JAUNA DA GURE SALBATZAILEA, GURE INDARRA ETA BAKEA.

Ateburuak, gora zaitetze,  
aspaldiko ateak, luza zaitetze,  
Errege ospetsua sar dadin.

Nor da Errege ospetsu hori?  
Jaun indartsu eta ahaltsua,  
guduan Jaun ahaltsua.

**JAUNAREN AURKEZPENEA** - otsailak 2*Kandelen bedeinkapena eta elizbira***Antifona**

Ba dator gure Jauna bere indarrez: Berak argituko ditu bere morroien begiak. Aleluia.

**Oharpena**

*Senide maiteok: Orain berrogei egun, pozaren pozez ospatu genuen Jaunaren Jaiotza-eguna. Gaur, berriz, Jesus elizara eraman zuteneko eguna dugu; Jesus aurkeztean, itxuraz, legea betetzea besterik ez zuten egiten; baina egiaz fededunen herriari bidera zetorkion Jesus. Espiritu Santuak erakarririk, han zeuden elizan Simeon eta Ana zoriotsuak; eta Espiritu berak argituta, haur txiki harengan Jauna ezagutu zuten, eta pozik zabaldu zuten Haren berria. Gu ere, Espiritu Santuak bilduta, goazen Jaunaren etxera, Kristoren bidera. Ogia zaitzuan aurkitu eta ezagutuko dugu Bera, berriro aintzaz agertuko zaigun arte.*

**Bedeinkapen otoitza**

Jainko Jauna, argi guztien iturri eta egile,  
herrialde guztien argia den Kristo  
erakutsi zenion gaurko egunez Simeon zintzoari:  
santu egizkizu kandela hauek zure + bedeinkapenez;  
entzun zure herriaren eskariak, argiak eskuetan ditugula  
zure izena gorestekoa hemen bildu garenok  
bide honetatik ibil gaitzela, betiko argira iritsi gaitezen.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Sarrerako antifona**

Gogoratzen dugu, Jainko, zure maitasuna, zure jauretze erdian.  
Zure izena bezala, Jainko, zure gorespina iristen da lurraren bazterrean:  
zure eskuina zuzentasunez dago betea.

**Kolekta otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa;  
zure Seme bakarra, gurea bezalako giza izatez jantzirik,  
aurkeztua izan zen Jerusalengo jauretzean;  
egizu, gu ere bihotzez garbi  
aurkeztuak izan gaitzela zure aurrean.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Oparigaien otoitza**

Eskaintzen dizugun opari honek  
garbi gaitzala, Jauna,  
eta eraman gaitzala  
egunetik egunera zerutar antzerago bizitzera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Zatozte Nigana, nekatuok, lanpetuok, eta Nik arinduko zaituztet –dio Jaunak–.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Hain dohain haundiak harturik, Jauna, eskatzen dizugu  
salbamen-fruituak iritsi ditzagula  
eta Zu goresten bizi gaitzela.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

## URTEAN ZEHAR XV IGANDEA

### Sarrerako antifona

Nik, zuzentasunean, zure begitartea dut ikusiko; esnatzean zure aurpegiaz naiz aseko.

### Kolekta otoitza

Zure egiak, Jauna, argitu egiten ditu oker dabiltzanak,  
bide zuzenera itzul daitezen;  
egizu, izenez kristau direnek  
egintzetan bete dezatela eta agertu  
beren kristau izatea.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

### Isaias profetaren liburutik 55,10-11

Honela mintzo da Jauna:  
“Euria eta elurra zerutik jaisten dira,  
eta ez dira berriro hara itzultzen,  
lurra ase, ernaldu eta lehertarazi gabe,  
ereileari hazia eman diezaion,  
eta jaleari ogia;  
hala izango da nere ahotik ateratako hitza:  
ez da Nigana hutsik itzuliko;  
baizik egingo du Nik nahi nuena,  
eta beteko Nik agindutakoa”.

### ERANTZUN-SALMOA 64

#### ZURE HITZAK, JAUNA, ESPIRITU ETA BIZI DIRA.

Agertu zataizkio lurrari eta euriz beratu duzu,  
oparo aberastu duzu.  
Jainko-ibaia urez da betea,  
eman diezu gari-alea.

Zeure ondasunez burutu duzu urtea,  
guritasunez jarioka daude zure bideak.  
Mendiko larreak hor daude guri,  
eta muinoak atseginez apaindurik.

## Prefazioa

Egoki da, bai, eta zuzen  
nonahi eta beti Zuri eskerrak ematea,  
Jauna, Aita guztiz santu,  
Jaungoiko ahalguztidun betiereko Horri.

Zure Seme bakarra, Jesu Kristo gure Jauna,  
poz-olioz gantzutuz,  
betiko apaiz eta diren guztien Errege sagaratu duzu,  
opari garbi eta baketzaille eskainiz,  
gure erospenaren misterioa betetzeko;  
eta izaki guztiak bere menpeko eginik,  
Zuri, Jaun guztiz haundi Horri, eskura emateko  
mugarik ez daukan betiko erreinua,  
egiaren eta biziaren erreinua,  
santutasun eta graziaren erreinua,  
zuzentasun, maitasun eta bakearen erreinua.

Horregatik, aingeru eta goiaingeruekin  
eta zeruko talde guztiekin,  
zure aintzari goratzarre hau  
beti eta beti (esaten) abesten dizugu:

### Jaunartze antifona

Jauna errege eseriko da betierean, bere herria  
bedeinkatuko du bake emanaz Jaunak.

### Jaunartze ondorengo otoitza

Betiereko biziaren ogia harturik, Jauna,  
Zuri deiez gaude:  
Kristo zeru-lurren Erregearen aginduak betetzea  
aintzagarri daukagunok iritsi dezagula  
Berarekin zeruetako erreinuan beti bizitzea.  
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

- “Zatozte, nere Aitaren bedekatuok; har ezazue, munduaren sortzetik zuentzat prestaturik dagoen erreinua. Gose bait nintzen, eta zuek jaten eman zenidaten; egarri nintzen, eta edaten eman zenidaten; arrotz nintzen, eta etxean hartu ninduzuen; bilutsik nengoen, eta jantzi egin ninduzuen; gaisorik nintzen, eta ni ikustera etorri zineten; espetxean nengoen, eta Niregana etorri zineten”.

Orduan zintzoek erantzungo diote:

- ‘Jauna, noiz ikusi zintugun goserik, eta eman genizun jaten; edo egarri, eta edaten eman? Noiz ikusi zintugun arrotz, eta etxean hartu; edo bilutsik, eta jantzi? Noiz ikusi zintugun gaisorik edo espetxean, eta joan ginen Zuregana?’

Eta erregek erantzun eta esango die:

- “Benetan diotsuet: Nere senide diren txiki hauetako bati egin, neuri egin zenidaten”.

Orduan honela esango die ezkerrekoei:

- “Alde niregandik, madarikuok, deabruarentzat eta haren aingeruentzat prestaturik dagoen betiko sutara. Gose bait nintzen, eta ez zenidaten jaten eman; egarri nintzen, eta ez zenidaten edaten eman; arrotz nintzen, eta ez ninduzuen etxean hartu; bilutsik nengoen, eta ez ninduzuen jantzi; gaisorik eta espetxean nengoen, eta ez zineten ni ikustera etorri”.

Haiek erantzungo diote:

- ‘Jauna, noiz ikusi zintugun goserik edo egarri, arrotz, bilutsik, gaisorik edo espetxean, eta guk lagundu ez?’

Orduan erantzungo die:

- “Benetan diotsuet: Txiki hauetako bati egin ez zeniotena, neuri ez zenidaten egin”.

Eta hauek betiko oinazetara joango dira; zintzoak, berriz, betiko bizitzara”.

### Oparigaien otoitza

Gizona Zurekin baketzen duen oparia eskainiz,  
apalik eskatzen dizugu, Jauna:  
zure Semeak berak eman diezaiela herri guztiei  
batasuna eta bakea.  
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

### San Paulo Aposotluak Erromatarrei 8.18-23

Senideok: Nire iritzian, oraingo neke-lanak ezer gutxi dira, gero gugan azalduko den aintzaren aldean. Izadia bera ere zain-zain dago, Jaungoikoaren seme-alaben agerkunde beteari itxaroten. Hutsaren menpeko egin baitago; ez, ordea, bere nahiz, menperatu zuen harengatik baizik. Baina, beti ere, izadiak berak badu itxaropen, ustelkeria-morrontzatik aterata, Jaungoikoaren seme-alaben aintzazko askatasunera iritsiko dela.

Badakigu, jakin ere, izadi osoa orain arte, erdimenez eta intzirika dagoela, eta ez hura bakarrik; bai gu ere, Espiritua lehen-dohain bezala daukagunok, intziriz gaude geure barruan, noiz Jaungoikoaren seme-alaba izango, noiz gure gorputza salbatuko!

**ALELUIA** Hazia Jainkoaren hitza da; ereilea, berriz, Kristo;  
Honi aditzen dianak izango du betiko bizia. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 13,1-23

Aldi hartan, Jesus etxetik atera eta itsas ertzean eseri zen. Jendetza haundia bildu zitzaion inguruan, eta horregatik ontzixka batera igo zen, eta han eseri. Jende guztia itsas bazterrean zegoen.

Gauza asko esan zien parabolatan:

- “Atera zen ereilea ereitera: Eta ereitean, hazi batzuk bide bazterrean erori ziren; etorri ziren txoriak, eta jan egin zituzten.

Beste batzuk, lur gutxi zegoen leku harritsu batean erori ziren; berehala jaio ziren, lurra ez bait zen lodia; baina eguzkia atera orduko, erre egin ziren eta, zainik ez zutelako, ihartu.

Beste batzuk arantz artean erori ziren; eta arantzek, hazi zirenean, ito egin zituzten.

Beste batzuk lur onean erori ziren, eta eman zuten alea: batzuek bateko ehun, besteek hirurogei, eta besteek hogeitamar.

Belarririk duenak, entzun dezala”.

[Ikasleek, hurbilduta, galdera hau egin zioten Jesusi:

- ‘Zergatik hitzegiten diezu parabolatan?’

Harek erantzun zien:

- "Zuei eman zaizue, zeruetako erreinuaren misterioak ezagutzea; horiei, berriz, ez. Izan ere, duenari eman egingo zaio eta gainezka izango du; baina ez duenari, duen hura ere kendu egingo zaio. Horregatik hitzegiten diet parabolatan: begiratu arren, ez dutelako ikusten; entzun arren, ez dutelako, ez aditzen, ez ulertzen. Horietan betetzen da Isaias profetak esandako hura:

*Zuen belarri entzungo duzue, eta ez duzue ulertuko;*

*zuen begiz begiratuko duzue, eta duzue ikusiko;*

*gogortu egin bait da herri honen bihotza.*

*Belarri-gogorak dira*

*eta begiak itxi egin dituzte:*

*begiz ez ikusteko, eta belarri ez entzuteko;*

*bihotzez ez ulertzeko, eta ez bihotz-berritzeko,*

*Nik senda ditzadan.*

Zorionekoak, ordea, zuen begiak, ikusten dutelako; eta zuen belarriak, entzuten dutelako. Benetan diotsuet: Profeta eta zintzo askok ikusi nahi izan zuen, zuek ikusten duzuen, eta ez zuten ikusi; eta entzun, zuek entzuten duzuen, eta ez zuten entzun.

Entzun, beraz, zuek ereilearen parabola:

Erreinuko hitza entzun bai, eta ulertzen ez duenari, Gaiztoak, etorrira, kendu egiten dio bihotzean ereindakoa; hori da bide bazterrean ereindakoa.

Lur harritsuan ereindakoa, hitza entzuten duena da eta, berehala hartan, pozik hartzen duena; baina zainik ez du, ezta iraupenik ere; eta hitz hori dela-eta eraso eta nekea sortu orduko, berehala hutsegiten du.

Arantz artean eraindakoa, hitza entzuten duena da; baina munduko grinek eta aberastasunen lilurek hitza ito egiten dute, eta uztarik eman gabe gelditzen da.

Lur onean eraindakoa, berriz, hitza entzun eta ulertzen duena da. Hark, bai, ematen du alea: honek bateko ehun, hark hirurogei, besteak hogeitamar".]

### Oparigaien otoitza

Begira, Jauna, otoitzean dagoen Elizaren eskaintzari,  
eta egizu, opari hau hartuko dugunok  
santuagoak izan gaitzela.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Jaunartze-antifona

Nere haragia jaten duena eta nere odola edaten, Nigan dago eta Ni harengan –dio Jaunak–.

### Jaunartze ondorengo otoitza

Zure dohainak harturik, otoitz egiten dizugu, Jauna:  
misterio hau ospatzen dugun bakoitzean  
gehitu dadila gure salbamena.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Zoriona eta grazia ditut aldean,  
nere bizi guztiko egunetan;  
eta Jaunaren etxean naiz biziko  
luzaroen luzaro.

### San Paulo Apostoluak Korintoarrei 1Ko 15, 20-26a. 28

Senideok: Piztu da Kristo hilen artetik, hildakoen lehen-fruitu bezala. Izan ere, gizon baten bidez etorri bazen heriotza, gizon baten bidez etorri da hildakoen biztuera ere. Adanengan guztiek heriotza duten bezala, Kristorengan bizia izango dute guztiek. Baina bakoitzak bere mailan: aurrena Kristok, lehen-fruitu bezala; gero kristau guztiek, Hura berriz etortzean. Ondoren, azkenekoek, Kristok Jainko Aitari erreinua itzultzen dionean, ahalmena, aginte eta indar guztiak ezereztu ondoren.

Berak eduki behar du erregetza, Jainkoak 'etsai guztiak Haren oin-azpian ipini arte'. Heriotza izango da, azkenik ezereztuko den etsaia. Gauza guztiak bere menpean aurkitzen direnean, orduan Semea bera ere menpean jarriko zaio, gauza guztiak azpian ipini zizkion Aitari. Eta horrela, guztia izango da Jaungoikoa guztientzat.

**ALELUIA** Bedeinkatua, Jaunaren izenean datorrena!  
Bedeinkatua,  
gure aita Dabidengandik datorren erreinua! **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,31-46

Aldi hartan, honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- "Gizonaren Semea –eta aingeru guztiak Harekin– bere aintza haunditan etortzen denean, bere jaun-aulki ospetsuan eseriko da; eta herri guztiak Haren aurrean bilduak izango dira. Hark batzuk besteengandik bereiziko ditu, artzaiak ardiak ahuntzengandik bereizten dituen bezala: ardiak bere eskuin aldean ipiniko ditu; ahuntzak, berriz, ezker aldean. Orduan erregek honela esango die bere eskuinekoei:

**URTEAN ZEHAR XXXIV IGANDEA**  
JESU KRISTO ERREGE

**Sarrerako antifona**

Indarra eta aberastasuna, jakinduria, ahalmena eta ospea hartzeko ba da nor hila izan den Bildotsa. Aintza eta agintea Berari gizaldi eta gizaldietan.

**Kolekta otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
zure Seme maitea, diren guztien Erregea,  
gauza guztien oinarri eta buru ezarri zenuen;  
egizu, izaki guztiek, bekatuaren uztarritik askatuta,  
beti eta beti Zu serbitza zaitzatela eta goretsi.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Ezekiel profetaren liburutik 34, 11-12. 15-17**

Honela dio Jaunak: “Ni neroni joango naiz neure ardiak biltzera, haien aztarrenei jarraituz. Artzainak, bere artaldea sakabanatuta aurkitzean, ardien aztarrenei jarraitzen dien bezala, hala jarraituko diet Nik neure ardien aztarrenei; eta egun ilun eta lainotsuan sakabanatu diren toki guzietatik nere eskuz aterako ditut.

Neronek larratuko ditut nere ardiak, eta abaro egin araziko diet –dio Jaunak–. Bilatuko ditut nere ardiak, bilduko ihes joanak; lotuko zaurituak; sendatuko gaisoak; gizen eta indartsuak zaindu egingo ditut eta behar bezala larratuko”.

Zuek, ene ardiok, entzun Jaunak dioena: “Epai egingo dut Nik ardi eta ardiren artean, aharien eta akerraren artean”.

**ERANTZUN-SALMOA 22**

**JAUNA DUT ARTZAIN,  
EZ NAIZ EZEREN BEHARREAN.**

Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean;  
larre gurietan etzan arazten nau.  
Atsedenezko iturrira narama,  
eta berpizten dit barrena.  
Banarama bidezidor zuzenetatik,  
bere izenagatik.

**URTEAN ZEHAR XVI IGANDEA**

**Sarrerako antifona**

Nik Jainkoa dut laguntzaile, Jauna da nire biziaren eusle. Gogotik eskainiko dizut oparia; ospatuko dut, Jauna, zure izena, ona bait da.

**Kolekta otoitza**

Begira, Jauna, zure serbitzariei  
eta emaitzietan ugari zure graziaren dohainak,  
fedea, esperantzak eta maitasunak indarturik,  
zure aginduetan erne iraun dezaten.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Jakinduriaren liburutik 12,13.16-19**

Ez da Zu beste jainkorik;  
gauza guztien ardura duzu,  
horrela erakusteko, ez duzula zuzengabe epaitzen.  
Zure indarra zuzentasunaren hasiera da,  
eta guztien Jaun izateak  
guztien barkatzaile egiten zaitu.  
Guztiz ahaltzu zarela sinesten ez duenari,  
zure indarra agertzen diozu;  
eta zapaltzen duzu  
indar horren berri ez dutenen ausardia.  
Zuk, agintari guztiz ahaltzu Horrek,  
neurritz epaitzen duzu,  
eta begirapen handiz erabiltzen gaituztu,  
nahi duzun guztia egin baitezakezu.  
Horrela eginez irakatsi diozu zure herriari,  
gizon zuzenak bihotz oneko izan behar duela,  
eta zure semeei itxaropen ona eman diezu,  
bekatuen ondoren damu-bidea ematen duzula.

**ERRUKI HUTSA DUGU JAUNA,  
ERRUKIA TA MAITASUNA.**

Ona zara, Jauna, eta gupibera,  
deitzen zaituzten guztientzat onginahiz betea.  
Entzun, Jauna, nire otoitza,  
adi nire eskariaren hotsa.

Izan ere, Zu, Jauna,  
Jainko errukior zaitut eta onbera,  
berant-haserre, guztiz maitekor eta leiala.  
Begiraiezaidazu eta erruki zakizkit.

**San Paulo Apostoluak Erromatarrei 8,26-28**

Senideok: Espiritua datorkigu gure ahuleriaren lagun, guk ez baitakigu zer eta nola eskatu; Espirituak berak eskatzen du, ordea, gure alde, esan ezin halako intziriz. Eta bihotzak aztertzen dituenak ezagutzen du zer den Espirituaren gogoia, eta Espirituak Jaungoikoaren asmoen erara eskatzen duela, zintzoen alde.

**ALELUIA** Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna,  
zure erreinuko misterioak  
jende xumeari erakutsi baitizkiozu. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 13,24-43**

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zion jendeari:

- "Zeruetako erreinua, bere soroan hazi ona erein zuen gizonaren antzekoa da. Mutilak lo zeudelarik, etorri zen etsaia, eta gari artean iraka erein eta hala aldegin zuen. Garia ernetzen eta burutzen hasi zeneko, han azaldu zen iraka ere. Etxeko mutilak joan zitzaizkion nagusiari, eta esan zioten:

- 'Jauna, ez al zenuen hazi ona erein soroan? Nondik dator, bada, iraka?'

Nagusiak erantzun zien: 'Etsairen batek egin du hori'.

Mutilek orduan: 'Nahi al duzu, biltzera gu joatea?'

Eta nagusiak: 'Ez! Iraka biltzen hasita, bai bait liteke irakarekin batean garia ere ateratzea. Utzi biak batera hazten uzta arte; eta uzta-garaian esango diet igitariei: Bil ezazue lehendabizi iraka, eta lotu balatan erretzeko; garia, berriz, pila ezazue nire galtegian'".

Hurbildu zen bi talentu hartu zituen, eta esan zion:

- 'Jauna, bi talentu utzi zenizkidan; begira, beste bi irabazi ditut'.

Nagusiak esan zion:

- "Ederki, morroi zintzo eta leiala! Gutxian zintzo izan zarela, askoren buruzagi egingo zaitut; sar zaitez zure nagusiaren pozetara".

Azkenean hurbildu zen talentu bat hartu zuena, eta esan zion:

- 'Jauna, ba nekien gizon zorrotza zinela; erein ez duzun tokian igitaitzen duzuna, eta zabaldu ez duzun tokian biltzen duzuna. Beraz, beldurrez joan nintzen, eta lurpean gorde nuen zure talentua. Hor duzu zeurea!'

Nagusiak erantzun zion:

- "Morroi gaizto eta alferra! Ba zenekien, beraz, nik, erein ez dudana tokian igitaitzen dudala, eta zabaldu ez dudanean, biltzen. Horregatik nire dirua dirulariei utzi behar zenien, nik, etortzean, irabazi eta guzti jaso nezan. Ken iezaiozue talentu hori, eta eman hamar dituenari. Duenari eman egingo bait zaio, eta gainezka izango du; ez duenari, berriz, duen hura ere kendu egingo zaio. Eta morroi alfer huts hori bota kanpoko ilunbeetara. Han izango da negarra eta hortz-karraska!".

**Oparigaien otoitza**

Atsegin bekizu, Jauna, gure eskaintza:  
bete gaitzala Zuganako maitasunez  
eta ekar diezagula betiko biziaren zoriona.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze antifona**

Egiaz diotsuet: sines ezazue, otoitzean eskatutako guztia iritsi duzuela, eta hartuko duzue –dio Jaunak–.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Zure dohain santuak harturik,  
apalik eskatzen dizugu, Jauna:  
zure Semeak bere oroigarri egiteko agindu digun  
Eukaristia honek ugari dezala gugan maitasuna.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.



Zure emaztea mahasti emankorraren antzean,  
zure etxe barnean;  
zure seme-alabek badirudite olio-kimuak,  
zure mahai inguruan.

### San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei 1 Ts 5,1-6

Senideok: Noiz eta nola izango denik, ez duzue nik idatzi beharrik; zeurok dakizue aski ongi, Jaunaren eguna lapurra gauetz bezala etorriko dela.

‘Bakea eta lasaitasuna’ esaten ari direnean, orduan, ustekabean etorriko zaie hondamendia gainera, haurdun dagoenari erdiminak bezala; eta ez dute ihes egiterik izango. Zuek, ordea, senideok, ez zarete ilunpetan bizi, egun horrek lapurrak bezala harrapatzeko zorian; guztiok argiaren eta egunaren seme zarete. Ez gara gauarenak, ez ilunarenak. Beraz, ez dezagun lorik egin besteek bezala; gauden erne, eta izan gaitezen neurritsu.

**ALELUIA** Zaudete Nigan eta Ni zuengan –dio Jaunak–;  
Nigan dagoenak fruitu asko ematen du. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik. 25,14-30

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien bere ikasleei:

- “Gizon batek, urrutira joaterakoan, bere morroiei dei egin eta bere ondasunak utzi zizkien. Bati bost talentu eman zizkion; beste bati bi; beste bati bakarra; bakoitzari bere trebetasunaren arauera. Eta gero joan egin zen. Bost talentu hartu zituena, haiekin lanean hasi zen berehala, eta beste bost irabazi zituen. Bi hartu zituenak ere berdin egin zuen, eta beste bi irabazi zituen. Bat hartu zuenak, ordea, lurrean zulo bat egin eta han gorde zuen bere nagusiaren dirua.

Handik luzarora, etorri zen morroi haien nagusia, eta kontuak garbitzen hasi zitzaien. Hurbildu zen bost talentu hartu zituena, eta beste bost eraman zizkion, esanez:

- ‘Jauna, bost talentu utzi zenizkidan; begira, beste bost irabazi ditut’.

Nagusiak esan zion:

- “Ederki, morroi zintzo eta leiala! Gutxian zintzo izan zarelako, askoren buruzagi egingo zaitut; sar zaitetz zure nagusiaren pozetara”.

[Beste parabola hau ere esan zien:

- “Zeruetako erreinua, gizon batek bere sorozan ereiten duen mostaza-haziaren antzekoa da. Hazi guztietan txikiena da; baina hazten denean, beste barazki guztiak baino landare haundiagoa gertatzen da, eta zuhaitz egiten; etortzen dira txoriak, eta haren adarretan egiten dute habia”.

Beste parabola bat esan zien:

- “Zeruetako erreinua orantzaren antzekoa da; emakume batek hartu eta hiru lakari-irinetan sartzen du, eta orantzak ore guztia harrotzen du”.

Guzti hauek parabolatan esaten zizkion jendeari; eta parabolarik gabe ez zien hitzegiten, profetak esana bete zedin:

*Parabolatan zabalduko dut nire ahoa;  
eta lurra lur denetik ezkutuan daudenak  
agertuko ditut.*

Orduan Jesus, jendea utzirik, etxera joan zen. Ikasleak hurbildu zitzaizkion, esanez:

- ‘Argi iezaguzu soroko irakaren parabola’.

Jesusek erantzun:

- “Hazi ona ereiten duena Gizonaren Semea da; soroa, mundua; hazi ona, erreinuko semeak dira; iraka, berriz, Gaiztoaren umeak; erein duen etsaia, deabrua da; uzta, munduaren azkena; eta uzta-biltzaileak, aingeruak.

Beraz, iraka bildu eta sutan erretzen den bezala, hala izango da munduaren azkenean. Gizonaren Semeak bidaliko ditu bere aingeruak, eta hauek bilduko dituzte, Haren erreinutik, erorbide izan diren guztiak eta gaizkile guztiak. Eta su-labera botako dituzte: han izango da negarra eta hotz-karraska! Orduan zintzok eguzkiak bezala argi egingo dute, beren Aitaren erreinuan.

[Belarririk duenak, entzun dezala”.]

### Oparigaien otoiiza

Jainko Jauna, Itun Zaharreko opari guztiak beren betera ekarri dituzu gurutzeko opari bakarrean; onar ezazu eta santu egin zure serbitzarion eskaintza, Abelena bedeinkatu zenuen bezala; eta bakoitzak Zu goresteke eskaintzen duena guztien salbamenerako izan dadila. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Jaunartze-antifona

Horra, atean nago atejoka –dio Jaunak–; norbaitek nere mintzoa entzuten badu eta atea irekitzen badit, harengana sartuko naiz eta elkarrekin afalduko dugu.

### Jaunartze ondorengo otoiiza

Zaude beti, Jauna, zure herriarekin;  
eta sakramentu hauen graziaz bete dituzunei  
emaiezu, beren izate zaharra utzirik,  
jainkozko bizi berriaren erara bizitzea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

## URTEAN ZEHAR XVII IGANDEA

### Sarrerako antifona

Jainkoa bere egoitza santuan da bizi; Jainkoak aterpe ematen die baztertuei, Berak ematen dio indar eta kemen bere herriari.

### Kolekta otoitza

Jainko Jauna, Zugan uste on dutenen zaintzailea,  
Zu gabe ez da ezer sendorik, ez ezer santurik;  
erakus iezaiguzu zure erruki ugaria;  
Zu gidari eta erakusle zaitugula,  
lurreko ondasunak erabil ditzagun  
zerukoak iristeko eran.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

### Erregeen liburutik **1Er 3,5.7-12**

Egun haietan, Jauna agertu zitzaion Salomoni gaez ametsetan, eta honela esan zion:

- "Eska iezaidazu nahi duzuna".

Salomonek erantzun:

- 'Jauna, ene Jainko, Zuk ipini nauzu, zure serbitzari hau, nire aita Dabiden lekuan errege. Ni, ordea, ume naiz; ez dakit nondik nora jo. Zure serbitzari hau, Zuk aukeratutako herriaren erdian dago, ugariaren ugariz ezin konta eta zenbatu-halako herri haundian. Emaiozu zure serbitzari honi bihotz zentzuduna, zure herria gidatzeko, ona eta txarra bereizteko. Izan ere, nork gida dezake zure herri haundi hau?'

Gogoko izan zitzaion Jaunari, Salomonek eskabide hau egitea, eta esan zion:

- "Hori eskatu duzulako, eta ez zeuretzat bizi luzerik, ez aberastasunik, ezta zure etsaien heriotzarik ere, baizik-eta zuzen erabakitzeak jakinduria eskatu duzulako, beteko dut Nik, zuk eskatua: emango dizut bihotz zentzudun eta jakintsua, zuk baino lehen inork izan ez duen bezalakoa, eta zure ondoren ere inork izango ez duen bezalakoa".

## URTEAN ZEHAR XXXIII IGANDEA

### Sarrerako antifona

Ba dakit Nik zer asmo ditudan zuentzat –dio Jaunak–: Bake-asmoak, ez atsekabe-asmoak; dei egingo didazue eta Nik entzun egingo dizuet, eta bildu egingo zaituztet sakabanatu zintuztedan leku guzietatik.

### Kolekta otoitza

Jainko gure Jauna, emaguzu Zuri beti pozik serbitzatu egitea; on guztien egile Horren serbitzuan bizitzea bait da guretzat egiazko zorion betea.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

### Esatera Zaharren liburutik **31,10-13.19-20.30-31**

Nork aurki lezakeen etxeoandre ona!  
Harribitxiena baino haundiagoa da haren balioa.  
Harengan du uste on senarraren bihotzak;  
eta ez da harekin galduan aterako.  
Bizitzako egun guzietan,  
emango dio onik asko, txarrik ez.  
Artilea eta lihoa eskuratuko ditu,  
eta eskulanetan trebe ariko da.  
Lotzen dio eskua linaiari,  
eta eragiten diote haren behatzek ardatzari.  
Ez duenari zabaltzen dio eskua,  
eta behartsuari luzatzen besoa.  
Gezurria da liraintasuna, iheskorra edertasuna,  
goresgarria, ordea,  
Jaunaren beldur den etxeoandrea.  
Goretsazue bere eskulanengatik,  
eta haren egiteak izan bitez haren goresgarri herriko ateetan.

### ERANTZUN-SALMOA **127**

#### **BAI DOHATSU, GAU TA EGUN, JAUNAREN LEGEA AUSNARTZEN DUENA.**

Dohatsu, Jaunaren beldur dena,  
Haren bideetan dabilena!  
Zeure eskuen lana bait duzu jango,  
zoriontsu izango zara eta ongi zaizu joango.

**Oparigaien otoitza**

Begi onez begira, Jauna, gure eskaintza honi;  
zure Semearen nekaldiko misterioa ospatzen dugunok  
haren fruituak iritsi ditzagun.  
Errege bizi bait da gizaldi eta gizaldietan. AMEN.

**Jaunartze antifona**

Ogia zatitzean ezagutu zuten ikasleek Jesus Jauna.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Eukaristia harturik.  
eskerrak ematen dizkizugu, Jauna,  
eta zure bihotz onari eskatzen diogu,  
zure Espiritua isur diezaigula,  
zeruko indarra hartu dugunon bihotzetan  
leialtasunaren graziak iraun dezan  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**ERANTZUN-SALMOA**

118

**BAI MAITE DUDALA, JAUNA,  
ZURE LEGEA.**

Hau da, Jauna –esan dut–, nire ondarea:  
zure hitzak betetzea.  
Niretzat zure ahoko legea  
urre eta zilar asko baino hobea.

Horregatik ditut zure aginduak urrea baino,  
urre garbia baino maiteago.  
Horregatik hartzen ditut zure arauen bideak  
eta gorroto ditut bide gezurtiak.

**San Paulo Apostoluak Erromatarrei 8,28-30**

Senideok: Badakigu, gauza guztiak onerako ari direla,  
Jaungoikoa maite dutenentzat, Haren erabakiz deituentzat.

Izan ere, Jainkoak aurrez ezagutu zituenak, aukeratu ere egin  
zituen, bere Semearen irudiko izan zitezen; Hau, senide askoren  
artean lehen-seme izan zedin. Aurrez aukeratu dituenak, deitu ere  
egin zituen; deituei, berriz, bere zuzentasuna eman zien; eta zuzen-  
eginak, aintzaz bete zituen.

**ALELUIA** Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurren Jauna,  
zure erreinuko misterioak  
jende xumeari erakutsi baitizkiozu. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 13,44-52**

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zion jendeari:

- “Zeruetako erreinua, soroan ezkutatutako gordailuaren  
antzekoa da. Aurkitzen du gizon batek eta gorde egiten du. Pozez  
beterik joaten da, saltzen ditu dauzkan gauza guztiak, eta soroa  
erosten du.

Era berean, zeruetako erreinua, harri bitxi ederren bila dabilen  
merkatariaren antzekoa da. Bat oso bikaina aurkitzen duenean,  
joaten da, saltzen ditu dauzkan gauza guztiak, eta harri bitxia erosten  
du.

[Era berean, zeruetako erreinua itsasora botazen den sarearen antzekoa da. Era guztietako arraiak hartzen ditu. Beterik dagoenean, ateratzen dute itsas bazterrera eta, eseririk, onak saskirako bereizten dituzte, eta txarrak kanpora botatzen. Horrela gertatuko da gizaldiaren azkenean: aterako dira aingeruak eta, zintzoen artetik gaiztoak bereizi, eta su-leizera amilduko dituzte. Han izango da negarra eta hotz-karraska!"]

Orduan Jesusek galdetu zien: "Ulertu al duzue?"

Haiek erantzun: 'Bai!'

Eta Jesusek: "Beraz, zeruetako erreinuan ikasia den idazlaria, bere gordailutik gauza zaharrak eta berriak ateratzen dituen etxe-nagusiaren antzekoa da".]

### Oparigaien otoitza

Onar, Jauna,  
zure esku zabaletik hartuta ekarri ditugun eskaintzak;  
misterio santu honek, zure graziaren indarrari esker,  
santu egin dezala oraingo gure bizia  
eta eraman gaitzala betiko zorionera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Jaunartze-antifona

Zorionekoak errukitsuak,  
hauek iritsiko dute-eta errukia.  
Zorionekoak bihotzez garbi direnak,  
hauek ikusiko dute-eta Jaungoikoa.

### Jaunartze ondorengo otoitza

Zeruko sakramentua hartu dugu, Jauna,  
zure Semearen nekaldiaren betiko oroigarri:  
Berak bere maitasun neurrigabea eman digun dohain hori  
izan dakigula salbamenerako.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei 1 Ts 4,13-17

Senideok: Hildakoez zuek ezjakinean egoterik ez dugu nahi, goibel ez zaitezten, itxaropenik ez duten beste horien antzera. Jesus hil eta poiztu zela sinesten dugun bezala, Jesusengan hil direnak ere, Jaungoikoak Harekin batean Beraganatuko ditu.

[Jaunaren hitzez diotsuet nik: Bizi garenok, Jaunaren etorrerarako geldituok, alegia, ez diegu hil direnei aurrea hartuko. Jauna bera, goiangeru-oihuz eta turuta-hotsez, deika jaitsiko da zerutik; eta aurrena, Kristogan hilak piztuko dira; gero gu, oraindik bizi garenok, haiekin batean, lainoetan gora Jaunaren bidera eramango gaituzte. Eta horrela beti Jaunarekin egongo gara. Poztu ezazue, beraz, elkar, hitz hauekin].

**ALELUIA** Zaudete erne,  
uste ez duzuen orduan etorriko zaizue-eta  
Gizonaren Semea. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 25,1-13

Aldi hartan, parabola hau esan zien Jesusek bere ikasleei:

- "Begira zeren antzekoa izango den zeruetako erreinua.

Hamar neskatxa, beren krisailuak eskuetan zituztela, senargaiaren bidera atera ziren. Haietan bost zentzugabeak ziren; eta beste bostak, zentzudunak. Zentzugabeek krisailuak hartu zituzten, baina oliorik ez berekin. Zentzudunek, berriz, krisailuekin batera olioia ere hartu zuten ontzietan. Senargaia berandu zetorrelarik, logaletzen hasi ziren denak eta lo gelditu ziren. Baina gauerdian oihu bat entzun zen:

- 'Ba dator senargaia; irten zakizkiote bidera!'

Jaiki ziren orduan neskatxa guztiak, eta prestatu zituzten beren krisailuak. Zentzugabeek honela esan zieten zentzudunei:

- 'Ekartzue zuen oliotik, gure krisailuak itzaltzen ari zaizkigu-eta'.

Zentzudunek, ordea, erantzun zieten:

- 'Behar bada, ez dugu nahikorik guretzat eta zuentzat.

Zoazte saltzaileetara eta erosi'.

Baina eroatera zihoazela, iritsi zen senargaia; eta prest zeudenak sartu ziren harekin ezteietara, eta itxi zen atea. Gerorago etorri ziren beste neskatxak ere, esanez:

- 'Jauna, Jauna, ireki iezaiguzu!'

Baina hark erantzun zien:

- 'Egia esan, ez zaituztet ezagutzen'. Zaudete, beraz, erne; ez bait dakizue, ez egunik, ez ordurik".

## URTEAN ZEHAR XXXII IGANDEA

## Sarrerako antifona

Hel bekizu nere eskaria, nere oihura makur ezazu, Jauna, belarria.

## Kolekta otoitza

Jainko ahalguztidun errukiorra,  
baztertu gugandik eragozpen guztiak,  
gorputz ta animaz geure buruaren jabe  
izan gaitezen zure nahia betetzeko.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

## Jakinduriaren liburutik 6,13-17

Dizdiratsua da jakinduria, ezin-zimeldua;  
hura maite dutenek erraz ikusten dute bera,  
eta erraz aurkitzen haren bila dabiltzanek.  
Irrikatzen dutenei, aurrera datorkie;  
bera lehenik azaltzen zaie.  
Haren bila jaikitzen dena ez da nekatuko;  
bere atean eserita aurkituko bait du.  
Hura gogoan erabiltzea, jakinduria betea da;  
harengatik esna dagoena  
laster izango da kezkarik gabe.  
Inguruka dabil, bera maite dutenen bila;  
bideetan aurpegi alaiz agertzen zaie,  
eta asmo guztietan bidera ateratzen.

## ERANTZUN-SALMOA 62

ZURE EGARRIZ DAUKAT GOGOIA,  
JAUNA, ENE JAINKOA.

Jainko, nere Jainko zaitut,  
goizetik bilatzen zaitut,  
zure egarriz daukat gogoa, zure irrikaz haragia,  
lur idor, egarri, urgabe iduria.

Egona nauzu Zuri begira jauretxean,  
zure ospea eta indarra ikusi nahian.  
Bizia baino hobea bait da zure maitasuna,  
ezpainok egingo dute zure goralpena.

## URTEAN ZEHAR XVIII IGANDEA

## Sarrerako antifona

Otoi, Jainko, ni onik atera; Jauna, zatozkit azkar laguntzera.  
Laguntzaile eta salbatzaile zaitut; Jauna, ez, arren, luzatu.

## Kolekta otoitza

Zatozkie lagun, Jauna, zure serbitzariei  
eta ager iezaiezu beti zure bihotz ona otoizka ari zaizkizunei;  
eta, egile eta nagusi aitortzen bait zaituzte,  
emaiezu bizi berria  
eta zaindu itzazu beti bizi berri horretan.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN..

## Isaias profetaren liburutik 55,1-3

Honela mintzo da Jauna:  
“Egarri zareten guztiok, zatozte uretara,  
dirurik ez duzenok ere bai;  
zatozte, erosi garia eta jan ordaindu gabe,  
ardoa eta esnea hutsean.  
Zergatik eralki dirua, janari ez den gauzetan?  
Eta zuen lansaria, asetzen ez duten gauzetan?  
Entzun Niri, entzun eta ondo jango duzue;  
janari gozoen atsegina izango duzue.  
Erne belarriak, etorri Nigana;  
entzun, eta bizkortuko zarete.  
Betiko elkargoa egingo dut zuekin:  
Dabidi agindu nion agintzaria”.

## ERANTZUN-SALMOA 144

ERRUKI HUTSA DUGU JAUNA,  
ERRUKIA TA MAITASUNA.

Gupibera da Jauna eta errukiorra,  
berant-haserre eta guztiz onbera.  
Ona da Jauna guztientzat,  
errukior Berak egin dituenentzat.

Guztien begiak daude Zuri begira,  
Zuk ematen diezu beren garaian janaria.  
Zabaltzen duzu zeure esku hori,  
pozik ematen ase bidez guztiei.

### San Paulo Apostoluak Erromatarrei 8,35.37-39

Senideok: Nork aldenduko gaitu Kristoren maitasunetik? Nahigabeak, larriak, erasoaldiak, goseak, jantzirik-ezak, arriskuak, ezpatak? Hala ere, guzti hoietan garaile ateratzen gara gu, maite izan gaituen Harengatik.

Badakigu zihur: ez heriok, ez bizik, ez aingeruk, ez nagusik, ez indarrek, ez oraingok, ez gerokok, ez izarrek, ez zeruk, ez itsas-leizek, ez beste izakik, ezingo gaituela alden, Jesu Kristo gure Jaunagan agertzen den Jainkoaren maitasunetik.

**ALELUIA** Gizona ez da ogiz bakarrik bizi,  
Jaungoikoaren ahotik ateratzen den  
hitz guztitik baizik. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 14,13-21

Aldi hartan, Joan Bataiatzailearen heriotzaren berri izan zuenean, Jesus itsas ontzian leku bazter eta baketsu batera joan zen; jakin zuen hori jendeak, eta oinez jarraitu zion hirietatik. Ontzitik ateratzean, jendetza haundia ikusi zuen Jesusek; erruki izan zituen, eta gaixoak sendatzen hasi zen. Ilunabarrean, ikasleak hurbildu eta honela mintzatu zitzaizkion:

- 'Leku bazterra da hau, eta berandu da. Bidal ezazu jendea; doazela auzoetara, eta eros dezatela jatekoa'.

Jesusek orduan:

- "Ez dute joan beharrik, emaezue zeuek jaten".

Haiek erantzun:

- 'Ez bait dugu hemen, bost ogi eta bi arrai besterik!'

Eta Jesusek:

- "Ekarzkitazue".

Jendea belar gainean eser erazi ondoren, hartu zituen bost ogiak eta bi arraiak; eta, begiak zerura jasorik, bedeinkapen-otoitza egin zuen, zatitu zituen ogiak, eta ikasleei eman zizkien; eta ikasleek jendeari. Jan zuten denek, ase ziren arte; eta gelditutako hondarrekin hamabi saski bete bildu zituzten. Jan zutenak, bost bat mila gizon ziren, emakumeak eta haurrak gabe.

Zama astun eta eraman-ezin halakoak egiten dituzte, eta besteren bizkarrean jarri; beraiek, ordea, behatz batez ere heldu ez. Egiten duten guztia, jendeak ikusteagatik egiten dute; uhal-zirrinda luzeak erabiltzen dituzte, eta soinekoetan galartzu zabalak. Afarietan lehenengo jarlekuak, eta sinagogetan aurreneko aulkiak nahi izaten dituzte, eta enparantzetan agurrak; eta jendeak 'maisu' deitzea.

Zuek, ordea, ez utzi inori 'maisu' izenik zuei ematen; bakarra bait da zuen maisua, eta zuek guztiok elkarren senide zarete. Eta zuen artean ez eman inori 'aita' izenik lur gainean; bakarra bait da zuen Aita: zerukoa. Ez eman zeuen buruari 'zuzendari' izenik; bakarra bait da zuen zuzendaria: Kristo. Zuetan haundiena dena, izan bedi zuen serbitzari. Bere burua goratzen duena, beheratua izango da; eta bere burua beheratzen duena, goratua".

### Oparigaien otoitza

Eskaintza hau egin bedi, Jauna,  
Zuretzat opari garbi  
eta guretzat zure errukiaren iturri santu.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Jaunartze-antifona

Bizi den Aitak bidali nau, eta Ni Autarengandik bizi naiz; era berean, Ni jaten nauena Nigandik biziko da –dio Jaunak–.

### Jaunartze ondorengo otoitza

Gero eta gehiago agertu bedi gugan, Jauna, zure indarra;  
hartu ditugun sakramentuez sendoturik,  
beroiek agintzen dizkiguten ondasunak  
lortzeko zure graziak gai egin gaitzan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**EZ EGON, JAUNA, NIGANDIK URRUN;  
ZUREA NAUZU, ZATOZKIT LAGUN.**

Jauna, nere bihotz hau ez dago harro,  
begiak ez dauzkat behar baino gorago.  
Ez nabil gauza handien atzetik,  
ni baino gorago dauden harrigarrien atzetik.

Ostera, bil-bil egin naiz neuregan,  
arimaren bakean,  
hautxoa bezala amaren altzoan;  
hautxoa bezala baita nere arima nere baitan.

**San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei 1 Ts 2,7b-9.13**

Senideok: Apal agertu ginen zuen artean, bere haurrak maiteki zaintzen dituen ama bezala. Zuen maitez, ez Ebanjelioa bakarrik, baita geure bizia ere zuei emateko prest geunden; hainbestearino maite zintuztegun. Gogoan izan gure neke eta ahaleginak: zuetako inorentzat astun ez izateagatik, gau eta egun lan eginez adierazi genizuen Jaungoikoaren berri ona.

Gu ere, Jaungoikoari beti eskerrak ematen ari gara; bere hitza gure ahotik hartu zenutenean, ez bait zenuten gizonen hitza bezala hartu, baizik-eta egiaz denez, Jainkoaren hitza bezala, zuengan –sinesten duzuenongan– ari dena.

**ALELUIA** Bakarra da zuen Aita: zerukoa;  
eta bakarra zuen zuzendaria: Kristo. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 23,1-12**

Aldi hartan, Jesus honela mintzatu zitzaizen gizataldeari eta bere ikasleei:

- "Idazlariak eta farisearrak Moisesen maisu-aulkian eseri dira. Egizue, beraz, eta bete, haiek esandako guztia; baina ez egin, haiek egiten dutenik; esan, esaten bait dute; baina egin ez.

**Oparigaien otoitza**

Jainko guztiz ona, santu egizkizu dohain hauek  
eta, eukaristi oparia onarturik,  
egin gaitzazu gu ere Zuretzat betiko opari.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Ni naiz biziaren ogia –dio Jaunak–; Nigana datorrena ez da gosetuko; eta Nigan sinesten duena, ez da behinere egarrituko.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Zaindu itzazu beti, Jauna,  
zeruko dohainez berritu dituzunak;  
eta honela indarberritzen gaituzunok  
eraman gaitzazu betiko salbamenera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**URTEAN ZEHAR XIX IGANDEA****Sarrerako antifona**

Begira iezaiozu, Jauna, zure itunari, ez ahaztu betiko zure gaisoen bizia. Jaiki zaitetz, ene Jainko, egizu auzi zeure alde, ez ahaztu zure bila dabiltzanen oihuak.

**Kolekta otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
Zuri Aita esateko eskubidea ematen diguzu;  
eraman bere betera gure bihotzetan  
zure seme-alabatzako espiritua,  
hitzemana zaigun ondarea iritsi dezagun.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Erregeen liburutik****1Erg 19,9a.11-13a**

Egun haietan, Elias Horeba, Jaungoikoaren mendira etorri, eta hango haitzulo batean sartu zen. Jaunak honela esan zion:

- "Atera, eta zaude mendian, Jaunaren aurrean; Jauna igaroko baita".

Hara, Haren aurretik haize zakar haundi bat igaro zen, mendiak urratzen eta harkaitzak porrokatzen zituela; baina Jauna ez zegoen haizean. Haizearen ondoren, lurrikara; baina Jauna ez zegoen lurrikaran. Lurrikararen ondoren, sua; baina Jauna ez zegoen suan. Suaren ondoren, haize goxoaren zuzmurra.

Hura entzun orduko, aurpegia soin-gainekoz estali zuen Eliasek; atera eta zutik gelditu zen haitzuloaren aurrean.

**ERANTZUN-SALMOA****84****JAUNA, ZURE ONGINAHIA ERAKUS IEZAIGUZU;  
ZURE SALBAMENA EMAIGUZU.**

Entzungo dut Jainko Jaunak dioen hitza:  
"Bakezkoa da Jainkoaren hitza".  
Hurbil zaie Haren beldur direnei salbamera:  
gure lurrean Haren aintza biziko da.

**URTEAN ZEHAR XXXI IGANDEA****Sarrerako antifona**

Ez ni utzi, Jauna, eskutik; ene Jainko, ez egon urrun neregandik; zatorz ni laguntzera lehenbaitlehen, ene Jauna, ene salbamen.

**Kolekta otoitza**

Jainko ahalguztidun errukitsua,  
zure graziari esker,  
ongi serbitzatzen zaituzte fededunek;  
egizu, arren, Zuk agindutako ondasunetara  
eragozpenik gabe joan gaitezela.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Malakias profetaren liburutik 1,14b-2,2a.8-10**

Ni naiz Errege Haundia –dio diren guztien Jaunak–,  
eta nire izena beldurgarria da herrialdeetan.  
Orain, apaizok, zuentzako da agindu hau:  
Ez baduzue entzun nahi, eta ez baduzue ajolarik  
nire izenari aintza emateko,  
–dio diren guztien Jaunak–,  
nere madarikapena bidaliko dut zuen gainera.  
Atera egin zarete bidetik,  
eta oztopo eginarazi diozue askori Legean;  
hautsi egin duzue Lebiren elkarte,  
–dio diren guztien Jaunak–.  
Horregatik iguingarri egingo zaituztet eta zirtzil  
herri guztiaren aurrean,  
zuek nere bideei eutsi ez diezuelako,  
eta Legeari buruz alderdikeriak egin dituzuelako,  
nor zein den begiratu.  
Ez al dugu guztiok Aita bera?  
Ez al gaitu Jaun berak egin?  
Zergatik dabilza, beraz, gizonak elkar saltzen,  
gure gurasoen elkargoa lohituz?"



**Oparigaien otoitza**

Begira, Jauna, ekarri dizkizugun eskaintza hauei,  
guk, zure serbitzariok, egiten dugun hau  
Zuretzat goresgarri izan dadin.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Kristok maite izan gaitu, eta bere burua guretzat eman du,  
eskaingai eta Jainkoarentzak opari usaintsu bezala.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Zure sakramentuok, Jauna,  
egin dezatela guran beroiek adierazten dutena,  
orain irudipean egiten duguna  
gero egiaz eta osorik har dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Onginahia eta leialtasuna elkarren bidera aterako dira,  
zuzentasuna eta bakea laztanka biziko dira.  
Lurretik erneko da leialtasuna,  
zerutik begira egongo zuzentasuna.

**San Paulo Apostoluak Erromatarrei 9,1-5**

Senideok: Kristau naizenez egia esan behar dut; Nire  
barruak, Espiritu Santuak argituta, esaten dit ez diodala gezurrik.  
Handia da nire atsekabea; etengabea, nere bihotzaren mina.

Anatema, Kristorengandik aldentua, izan nahi nuke nik,  
haragi aldetik nire senide eta senitarteko direnen alde. Israeldarrak  
dira hauek; eta beroiek dituzte semetzakoa, aintza, elkargoa, Legea,  
gurtza eta agintzariak. Haienak dira Aitalehenak, haiengadik dator,  
haragi-aldetik, Kristo: gauza guztien gainetik dagoena, Jaungoiko  
bedeinkatua gizaldietan. Amen.

**ALELUIA** Jaunagan itxaroten nago,  
nire barrena Haren hitzaren zain dago. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 14,22-33**

Aldi hartan, jendea ase zenean, Jesusek ikasleak ontzian sar  
erazi zituen, itsasoaz beste aldera joan zitezen bere aurretik, Berak  
jendea bidali bitartean. Jendea bidali zuenean, mendira igo zen Bera  
bakarrik, otoitz egitera; eta, ilundu zuenean, han zegoen bakar-  
bakarrik. Ordurako, ontzia lehorretik oso urruti zihoan, olatuek  
astinduta, haizea aurretik zuten-eta. Goiz aldera, Jesus ur gainean  
oinez hurbildu zitzairen. Ikasleak, ur gainean zebilela ikusi zutenean,  
ikaratu ziren eta honela zioten:

- 'Mamuren bat da!'

Eta beldurraren beldurrez deiadarka hasi ziren. Jesus  
berekala mintzatu zitzairen:

- "Izan bihotz! Ni naiz; ez izan beldurrik!"

Orduan Pedrok erantzun:

- 'Jauna, Zu baldin bazara, agindu iezadazu, Zuregana  
joateko ur gainean'.

Jesuek esan zion: "Zatoz!"

Pedro ontzitik atera eta ur gainean zebilen; eta Jesusengana zihoan. Baina haize zakarra zela ikusirik, beldurtu egin zen; urperatzen hasi zen eta deiadar egin zuen:

- 'Jauna, salba nazazu!'

Berehala Jesusek, eskua luzaturik, hartu zuen, eta esan zion:

- "Sinesmen gutxiko gizona! Zergatik hasi zara zalantzan?"

Ontzira igo zirenean, haizea gelditu zen; eta ontzian zeudenak ahuspez jarri ziren Jesusen aurrean, esanez:

-'Egiaz Jaungoikoaren Semea zara Zu!'

### Oparigaien otoitza

Bihotz onez, hartu, Jauna, zure Elizaren dohain hauek; errukiturik, Zeuk eman bait dizkiozu eskaintzeko eta Zeuk egingo dituzu gure salbameneko sakramentu. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Jaunartze-antifona

Nik emango dudan ogia nere haragia da munduaren bizirako – dio Jaunak–.

### Jaunartze ondorengo otoitza

Hartu dugun sakramentuak salba gaitzala, Jauna, eta sendo jarri zure egiaren argitan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Gora Jauna! Bedeinkatua nere Harkaitza!  
Jaso bezate gorespenez Jainkoa, nere Salbatzailea!  
Garaipen handiak eman bait dizkio bere erregeari,  
ta maitasuna agertu bere Gantzutuari.

### San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei 1 Ts 1, 5c-10

Senideok: Badakizue nola jokatu genuen zuen artean, zuen onerako. Eta zuek gure eta Jaunaren jarraitzaile egin zineten, Espiritu Santuaren pozetan hitza hartuz, hainbesteko estualdien artean. Horrela, eredu izan zineten Mazedoniako eta Akaiako fededun guztientzat.

Izan ere, Jaungoikoaren hitza zuen bitartez zabaldu da, eta ez Mazedoniara eta Akaiara bakarrik; bazter guztietara iritsi da Jaungoikoaganako zuen sinesmena, guk ezer hitz egin beharrik ez izateraino. Izan ere, guztien ahotan dabil, nolako sarrera izan genuen zuen artean, eta nola sasijainkoetatik Jaungoikoarengana itzuli zineten, egiazko Jaungoiko biziaren serbitzari izateko, eta Harek hilen artetik berpiztutako bere Seme Jesus zerutik noiz etorriko den zain egoteko; Berak salbatzen bait zaituzte, geroko haserretik.

**ALELUIA** Ni maite nauenak, beteko du nere hitza  
–dio Jaunak–;  
nire Aitak maiteko du,  
eta harengana etorriko gara. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22, 34-40

Aldi hartan, farisearrek jakin zutenean Jesusek saduzearrak isilerazi zituela, elkarrekin bildu ziren eta beren arteko legegizon batek, azpikeriaz, galdetu zion:

- 'Maisu, zein da Legeko agindurik nagusia?'

Hark erantzun zion:

- "*Maita ezazu Jauna, zure Jaungoikoa, bihotz-bihotzez, gogo-gogoz, adimen osoz.* Hau da agindurik nagusia eta lehenengoa. Eta bigarrena, horren parekoa da: *Maita ezazu lagunurkoa zeure burua bezala.* Bi agindu horietan dute oinarri Lege osoak eta Profetek".

**URTEAN ZEHAR XXX IGANDEA****Sarrerako antifona**

Poztu bedi Jaunaren bila dabilzanen barrena. Bila ezazue Jauna eta Haren ahalmena, bila beti Haren aurpegia.

**Kolekta otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
haunditu guban sinesmena, esperantza eta maitasuna;  
eta zure agintzariak iristeko,  
egizu, maita ditzagula zure aginduak.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Exodo liburutik****22,21-27**

Honela mintzo da Jauna:

- "Ez egin arrotzari, ez zapalketarik, ez nahigaberik, zuek ere Egiptoko lurtean arrotz izanak bait zarete.

Ez egin kalterik, ez alargunari, ez umezurtzari; holakorik egiten baduzue, eta haiek Neri dei egin, entzungo dut haien deia; sutuko da nere haserrea, eta ezpataz hilko zaituztet, eta zuen emazteak alargun geldituko dira eta zuen semeak umezurtz.

Nire herriko bati, zure herritar behartsu bati, dirua aurreratzen badiozu, ez izan harekin hartzekodun biotzgabea, ez kendu diru-saririk. Zure lagun hurkoari soingainekoa bahituran hartzen badiozu, itzul iezaiozu eguzkia sartu baino lehen; beste estalkirik ez izanik, zertan gorputza bilduta egingo du lo? Dei egiten badit, entzungo diot, errukiorra naiz-eta Ni".

**ERANTZUN-SALMOA****17****ERRUKI HUTSA DUGU JAUNA,  
ERRUKIA TA MAITASUNA.**

Maite zaitut, Jauna, nire indar,  
Jauna, nere harkaitz, gaztelu eta salbatzaile;  
Zugana biltzen naiz, harkaitz zaitudan Jainko,  
nere babes, salbamen-indar, nere gordeleku.  
Egiten diot dei Jaun goresgarriari,  
eta salba naiteke etsaiengandik.

**URTEAN ZEHAR XX IGANDEA****Sarrerako antifona**

Begira iezaiozu, Jainko, gure Babeskiari, so egiozu zure Gantzutuaren aurpegiari; Hobe da, noski, egun bat zure atarietan eta ez mila bestelakoetan.

**Kolekta otoitza**

Ondasun miragarriak dituzu, Jauna, maite zaituztenentzat;  
biztu gure bihotzetan zure maitasunaren garra,  
Zu gauza guztietan eta gauza guztien gainetik maite izanez,  
iritsi ditzagun guk asma ala baino haundiagoak diren  
Zuk agindutako ondasunak  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Isaias profetaren liburutik****56,1.6-7**

Honela mintzo da Jauna:

"Egin bidezko dena,  
eta zabilzate zuzentasunez;  
brehala etorriko baita nere salbamina,  
eta agertuko nere garaipena.  
Jauna serbitzeko, Haren izena maitatzeko  
eta Haren morroi izateko  
Berari itsatsi zaizkion arrotzak,  
larunbata hutsegin gabe gordetzen  
eta nere elkargoan leial irauten dutenak:  
bilduko ditut nere mendi santuan,  
poztuko ditut nere otoitz-etxean;  
onartuko ditut nere aldare-gainean  
haien erre-opariak eta eskaintzak.  
Nere etxea otoitz-etxe baita,  
eta hala deituko dute herri guztiek".

**ERANTZUN-SALMOA****66****O JERUSALEN,  
ZURE JAUNARI KANTUZ EKIN.**

Erruki bekigu Jainkoa, bedeinka gaitzala,  
ager diezagula aurpegi alaia;  
ezagutu dezaten lurtean zure bidea,  
herri guztietan Zugandiko salbamina.

Poztu bitez kantari atzerriak,  
zuzenbidez bait daramazu izadia;  
zintzo bait dituzu gidatzen herriak,  
eta zaintzen lurrean atzerriak.

### **San Paulo Apostoluak Erromatarrei 11,13-15.29-32**

Senideok: Zuei diozuet, jentiloi: Jentilen apostolu naizenez, goresmen egingo diot nire serbitzuari, ea nire odolekoen bekaizgoa pizten dudan eta horietako batzuk salbatzen ditudan. Haien gaitzesteak munduari baketzea badakarkio, zer izango da haien berriz-hartzea, heriotzatik bizira itzultzea baizik.

Aldaezinak dira Jainkoaren dohainak eta deia. Zuek, garai batean Jainkoari obeditu ez zeniotenak, orain judutarrek ez obeditzean, errukia iritsi duzuen bezala; haiek ere, orain obeditzen ez dioteneak, zuei egin zaizuen errukia dela eta, iritsiko dute errukia. Jaungoikoak, obeditzen ez dutenen arteko egin gaitu gizaki guztiak, guztioi erruki egiteko.

**ALELUIA** Jesusek erreinuko berri ona hotsegiten zuen,  
eta gaitz guztiak sendatzen zituen herrian. **ALELUIA!**

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 15,21-28**

Aldi hartan, Jesus Tiro eta Sidongo lurraldera joan zen. Kanaandar emakume bat, alderdi haietatik aterata, deiadarka hasi zitzaion: 'Jauna, Dabiden Seme, erruki zakizkit! Deabru gaizto-gaizto bat du nire alabak'.

Jesusek, ordea, ez zion hitzik erantzun. Ikasleak, hurbildurik, erreguka ari zitzaizkion: 'Egiozu nahi duena, eta doala, atzetik datorkigu-eta deiadarka'.

Eta Hark erantzun zion: "Israelgo ardi galduetara bakarrik bidali naute".

Emakumea hurbildu zen, ordea, eta, ahuspezturik, honela esan zion: 'Lagun iezadazu, Jauna!'

Jesusek erantzun: "Ez da egoki seme-alaben ogia hartu eta zakurrei botatzea".

Eta emakumeak: 'Egia, Jauna; baina txakurkumeek ere jaten dituzte, beren nagusien mahaitik jalkitako ogi-apurrak'.

Orduan Jesusek erantzun zion: "Emakume, haundia da zure sinestea! Gerta bekizu, nahi duzun hori".

Eta ordu hartantxe sendatu zitzaion alaba.

- 'Maisu, ba dakigu egizale zarela, eta Jaungoikoaren bidea egiaz erakusten duzula, inorengatik atzera egin gabe, ez bait duzu nor zein den begiratzen. Esaiguzu, beraz, zer deritzazu: zilegi al da Zesarri zerga ematea, ala ez?'

Jesusek, haien azpikeria ezaguturik, esan zien:

- "Itxurazale maltzurak! Zer zabilzate Ni zirikatzen?"

Erakustazue zerga-txanpona".

Haiek denario bat ekarri zioten. Berak orduan:

- "Norenak dira, irudi hau eta idatzi hau?"

Eta haiek:

- 'Zesarrenak'.

Jesusek orduan:

- "Emaiozue, bada, Zesarri Zesarrena, eta Jainkoari Jainkoarena".

### **Oparigaien otoitza**

Iguzu, Jauna,  
dohain hauek bihotz zabalez eskaintzean,  
zerbitzari gaituen sakramentu honek  
garbi gaitzala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren biartez. AMEN.

### **Jaunartze-antifona**

Gizonaren Semea bere bizia askoren erospen-sari ematera etorri da.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Eukaristia ospatzea balia dakigula, Jauna;  
bizitza honetarako laguntza izan dakigun  
eta betirako argi.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**JAUNARI KANTA, ONA BAIT DA,  
HAIN DU HAUNDIA BERE BETIKO ERRUKIA.**

Kanta Jaunari kantu berri,  
kanta, lur osoa, Jaunari.  
Kanta Jaunari, bedeinka haren izena,  
iragarri egunez egun Harengandiko salbamena.  
Zabaldu Haren ospea atzerrietan,  
Haren mirariak herri guztietan.

Jauretsazue Jauna jantzi gurenean,  
ikara zaitezte, lurbira guztia, Haren aurrean.  
Esazue atzerrietan: 'Jauna errege da,  
herriak zuzenbidez epaitzen ditu'.

**San Paulo Apostoluak Tesalonikarrei 1 Ts 1, 1-5b**

Paulo, Silbano eta Timoteok, Tesalonikan Jaungoiko Aitaren eta Jesu Kristo Jaunaren elizbatzarkide zaretenoi: grazia zuei eta bakea.

Jaungoikoari eskerrak ematen ari gara beti zuen guztiongatik, gure otoitzetan etengabe gogoan zaituztegun. Jainko gure Aitaren aurrean gogora ekartzen ditugu zuen sinesmen-egintzak, zuen maitasun-lanak eta itxaropenaren sendotasuna Jesu Kristo gure Jaunarengan.

Badakigu, senideok, Jaungoikoaren maiteok, Hark aukaratuak izan zaretela. Izan ere, hotsegin zitzaizuen Ebanjelioa ez zen hitz hutsetan gelditu zuengan; Espiritu Santuaren indar aberats bihurtu zen eta sinesmen sakon.

**ALELUIA** Izar argiak bezala agertzen zarete munduan,  
bizitzaren zentzubidea emanaz. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa San Mateoren liburutik 22,15-21**

Aldi hartan, farisearrek batzarre egin zuten, Jesusi hitzetik nola helduko zioten; eta beren ikasleetako eta Herodesen aldeko batzuk bidali zizkieten. Hauek galdetu zioten:

**Oparigaien otoitza**

Onar, Jauna, gure dohain hauek;  
beroien bidez hartueman miragarriak ditugu Zurekin;  
iguzu, Zuk emanak eskainiz,  
Zeu izan zaitzagula sari.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Ni naiz ogi bizia, zerutik jaitsia –dio Jaunak–; ogi honetatik jaten duena betirako biziko da.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko Jauna, sakramentu honetan Kristorekin bat eginik,  
zure errukiari epalik deika gaude:  
lur honetan Kristoren antzeko izanik,  
zeruetan Haren lagun izatea iritsi dezagula.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

## URTEAN ZEHAR XXI IGANDEA

### Sarrerako antifona

Makur ezazu, Jauna, belarri hori, entzun nazazu. Zugan uste on duen morroi hau salba ezazu. Erruki nitaz, Jauna, Zuri deiez atergabe ari bait naiz.

### Kolekta otoitza

Jauna, zure fededunen bihotzak gogo bateko egiten dituzu;  
egizu, zure herriak maita dezala Zuk agindua  
eta itxaron Zuk hitzemanana;  
mundu aldakor honetan dauden bitartean  
gure bihotzek sendo iraun dezaten  
egiazko zoriona dagoen lekuan.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

### Isaias profetaren liburutik 22,19-23

Honela dio Jaunak Sobna-ri, errege-etxeke buruari:  
“Kendu egingo zaitut zure lekutik  
eta atera zure eginkizunetik.  
Egun hartan nire serbitzari Eliakini dei egingo diot,  
Alkiasen semeari:  
zure soinekoa eta zure gerrikoa jantziko dizkiot,  
eta zure aginpidea haren eskutan ipiniko dut;  
eta aita izango da Jerusalem bizi direnentzat  
eta Judako etxeoentzat.  
Hari ipiniko diot lepotik Dabiden etxeke giltza;  
hark irekia, ez du inork itxiko;  
hark itxia, ez du inork irekiko.  
Ziria egur gogorrean bezala sartuko dut,  
bere aitaren etxeari aulki ospetsua emango dio”.

### ERANTZUN-SALMOA 137

#### JAUNARI KANTA, ONA BAITA, HAIN DU HAUNDIA BERE BETIKO ERRUKIA.

Jauna, bihotz-bihotzez dizkizut eskerrak emango,  
nire hitzak entzun dituzulako.  
Eresi egingo dizut aingeruen aurrean,  
ahuspeztuko naiz zure jauretze santuan.

## URTEAN ZEHAR XXIX IGANDEA

### Sarrerako antifona

Deika naukazu, Jainko, entzuten bait nauzu: aldera iezaidazu belarri hori, nere hitza entzun ezazu. Gorde nazazu begi-ninia bezala, zure hegalen itzalpeak ezkuta nazala.

### Kolekta otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
egizu, Zuri eskainirik bizi gaitzezela beti  
eta bihotz leialez serbitza zaitzagula.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

### Isaias profetaren liburutik 45,1.4-6

Honela mintzo zaio Jauna bere gantzutuari,  
eskutik daraman Zirori,  
honek menperatuko baititu atzerriak,  
eta erregei gerriko armak kenduko dizkie;  
ateak bere aurrean zabalduko zaizkio,  
eta sarrerarik ez zaio itxiko;  
“Jakob nere serbitzariarengatik,  
Israel nere aukeratuarengatik,  
zeure izenez deitu zaitut,  
izen haundi bat eman dizut,  
zuk Ni ezagutzen ez banauzu ere.  
Ni naiz Jauna, eta ez da besterik;  
ez da jainkorik, Ni baizik;  
Nik jazten dizkizut gerriko armak,  
zuk Ni ezagutzen ez banauzu ere;  
eguzki-alde batetik besteraino jakin dezaten,  
ez dela Ni besterik.  
Ni naiz Jauna, eta ez da besterik”.

Haiek, ordea, ez-entzun egin zuten, eta bata bere lurretara joan zen; bestea bere sal-erosketara; gainerakoek, berriz, morroiei heldu eta, gaizki erabil ondoren, hil egin zituzten.

Haserretu zen erregea, eta bere gudamutilak bidali zituen, hiltzaile haiek galtzera eta haien herriari su ematera. Gero honela mintzatu zitzairen bere morroiei:

- 'Ezteiak prest daude, baina deituek ez zuten merezi. Zoazte, beraz, bidegurutzetara, eta aurkitzen dituzuen guztiei dei egiezue ezteietara'.

Atera ziren morroiak bideetara, eta bildu zituzten aurkitutako guztiak, txar eta on. Eta hala bete zen bazkaldarrez eztei-lekua.

[Sartu zen erregea bazkaldarrak ikustera, eta eztei-jantzirik gabeko bat ikusi zuen han. Eta esan zion:

- 'Adiskide, nolaz sartu zara hemen, eztei-jantzirik gabe?'

Eta hark hitzik ez. Erregeak orduan honela esan zien bere serbitzariei:

-'Esku-oinak loturik, bota ezazue kanpoko ilunbeetara. Han izango da negarra eta hortz-karraska!'

Asko bait dira deituak; baina gutxi aukeratuak".]

### Oparigaien otoitza

Onar, Jauna,  
zure fededunen eskariak eta eskaintzak.  
maitasunez ospatzen dugun Eukaristia honek  
eraman gaitzala zeruko zorionera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### Jaunartze-antifona

Jauna agertzen denean Haren antzeko izango gara,  
den bezalakoa ikusiko bait dugu.

### Jaunartze ondorengo otoitza

Gure Jainko haundia  
apalik eskatzen dizugu,  
zure Semearen Gorputz-Odol santuez  
janaritu gaituzunok  
Berarekin bat egin gaitzazula zure jainkotasunean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Benetan garai da Jauna, umilari dio begiratzen;  
harroa, berriz, urrundik du ezagutzen.  
Betiko dago, Jauna, zure maitasuna,  
ez eskutik utzi zeure eskuz egin duzuna.

### San Paulo Apostoluak Erromatarrei 11,33-36

Senideok: Bai handia, Jaungoikoaren esku-zabala, jakinduria eta ezaguera! Bai aztertuezinak Haren erabakiak, eta ezagutuezinak Haren bideak! Nork ezagutu ditu inoiz Jaunaren asmoak? Nor izan da Haren kontsejatzaille? Nork eman dio Berari lehendabizi, Berak gero bihurtzekotan? Harengandik dira gauza guztiak, Haren bidez eta Harentzat. Berari aintza gizaldietan. Amen.

**ALELUIA** Zu Harria zara;  
harri horren gainean eraikiko dut Nik neure Eliza:  
eta heriotzaren indarrak ez zaizkio nagusituko. **ALELUIA!**

### Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 16,13-20

Aldi hartan, Jesusek, Filipoko Zesarea aldera etorri zelarik, honela galdetu zien bere ikasleei:

- "Gizonaren Semea nor dela dio jendeak?"

Eta haiek: 'Batzuek, Joan Bataiatzaillea dela; beste batzuek, Elias; besteek, Jeremias edo profetaren bat'.

Jesusek orduan: "Eta zuek, nor naizela diozue?"

Eta Simon Pedrok: 'Zu Mesias zara, Jaungoiko biziaren Semea'.

Jesusek orduan:

- "Zorionekoa zu, Simon, Jonasen semea! Ez haragik, ez odolek, ez bait dizu adierazi hori zuri, zeruan dagoen nire Aitak baizik. Eta horra Nik esan: Zu 'Harria' zara; harri horren gainean eraikiko dut Nik nire Eliza; eta heriotzaren indarrak ez zaizkio nagusituko. Zuri emango dizkizut zeruetako erreinuaren giltzak. Eta zuk lurrean lotua, zeruetan ere lotua izango da; eta zuk lurrean askatua, zeruetan ere askatua".

Orduan, Bera Mesias zenik inori ez esateko agindu zien bere ikasleei.

**Oparigaien otoitza**

Kristoren opari bakarraren bidez, Jauna,  
zure seme-alaben herri egin gaituzu;  
emiozu zure Elizari batasuna eta bakea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Nere haragia jaten duenak eta nere odola edaten, ba du betiko  
bizia –dio Jaunak–; eta Nik Biztuko dut hura azken egunean.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Eraman ezazu bere betera, Jauna,  
zue errukizko salbamera;  
eta egizu, Zuk lagundurik,  
gauza guztietan zure gogoko izan gaitzela.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**ERANTZUN-SALMOA****22****JAUNA DUT ARTZAIN,  
EZ NAIZ EZEREN BEHARREAN.**

Jauna dut artzain, ez naiz ezeren beharrean:  
larre gurietan etzan arazten nau.  
Atsedenezko iturrira narama  
eta berpizten dit barrena.

Atontzen didazu mahaia,  
etsaiak dauzkadala begira;  
olioz gantzutzen didazu burua,  
gainezka dago nere edontzia.

**San Paulo Apostoluak Filipotarrei 4,12-14.19-20**

Senideok: Badakit eskasian bizitzen; badakit ugarian bizitzen;  
denetan eta denetara jarria nago: bai gosera, bai asera,  
ugaritasunera eta eskasiara. Denetarako badut indar, indartzen  
nauen Harengan. Nolanahi ere, ondo egin duzue, nere estualdietan  
lagunduz.

Ordainetan, nere Jaungoikoak oparo beteko du zuen eskasia  
guztia, bere aberastasunen arauera Kristo Jesusengan. Jaungoiko  
gure Aitari aintza gizaldi eta gizaldietan. Amen.

**ALELUIA** Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak  
argi bitza gure bihotzeko begiak,  
horrela jakin dezagun  
nolakoa den Haren deiaren itxaropena. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 22,1-14**

Aldi hartan, Jesusek, berriz ere parabolatan, honela esan zien  
apaiz nagusi eta herriko zaharrei:

- "Zeruetako erreinua, bere semearen ezteiak ospatzen zituen  
errege baten antzekoa da. Bidali zituen morroiak, ezteietarako  
deituei hotsegitera; baina hauek ez zuten etorri nahi izan.

Berriz ere, bidali zituen beste morroi batzuk, esanez:  
'Esaiezue deituei: Prest daukat nere jai-otordua; zekorrak eta  
haragitarako gizenduak hilak ditut, eta dena prest dago: zatozte  
ezteietara'.



## URTEAN ZEHAR XXVIII IGANDEA

**Sarrerako antifona**

Gure erruak gogoan badauzkazu, Jauna, nor dagoke zutik, Jauna? Baina, barkamena Zugar daukazu, Israelgo Jainko.

**Kolekta otoitza**

Etor bekigu bidera, Jauna, zure grazia,  
eta azkeneraino lagun izan dezagula,  
beti ongi egiteko prest egon gaitzen.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Isaias profetaren liburutik 25,6-10a**

Egun hartan, jai-otordu bat emango die  
diren guztien Jaunak  
mendi hontan herri guztiei,  
jaki guriekin, edari bikainekin,  
haragi gizen-mamitsuekin eta ardo zahar-garbiekin.  
Mendi hontan kenduko du,  
herri guztien gainean edatua dagoen estalkia,  
jende guztiak estaltzen dituen oihala.  
Betiko hondatuko du heriotza;  
txukatuko ditu Jaunak  
aurpegi guztietako negar-malkoak,  
eta lur osotik aldenduko du  
bere herriaren lotsakizuna  
–hala dio Jaunak–.  
Eta egun hartan esango da:  
'Hara gure Jainkoa';  
Hau da guk salbatzaile itxaro genuen Jauna.  
Poztu gaitzen eta alaitu  
salbatu gaituelako.  
Jaunaren eskua mendi hontan kokatuko da.

## URTEAN ZEHAR XXII IGANDEA

**Sarrerako antifona**

Erruki nitaz, Jauna, Zuri deiez atergabe ari bait naiz; ona zara, Jauna, eta kupibera, deitzen zaituzten guztientzat onginahiez betea.

**Kolekta otoitza**

Zeru-lurren Jaungoikoa, Zugandik dator on guztia;  
sartu gure bihotzetan zure izenaren maitasuna;  
lotu gaitzazu gero eta estuago Zeurekin,  
gure baitan bizierazi dezazun ona den guztia  
eta bizierazi duzuna arreata haundiz zaindu.  
Zure Seme Jesu Kristo ... AMEN.

**Jeremias profetaren liburutik 20,7-9**

Liluratu ninduzun, Jauna,  
eta nik, lilurutzen utzi;  
ni baino indartsuago zara,  
eta menperatu ninduzun.  
Farregarri nintzen egun guztian;  
burlaka ari zitzaizkidan denak.  
Hitz egin behar nien bakoitzean,  
oihu hau egin behar: 'Zigorra!',  
deiadar hau: 'Hondamendia!'.  
Eta Jaunaren hitza lotsaizun eta iseka zen  
niretzat egun guztian.  
Eta esan nuen nire baitarako:  
'Gogoratu ere ez dut egingo;  
ez dut gehiago Haren izenean hitz egingo'.  
Baina Haren hitza su kiskalgarria zen nire bihotzean,  
nire hezurretaraino sartua;  
menpean eduki nahi nuen, eta ezin.

**ZURE EGARRIZ DAUKAT GOGOA,  
JAUNA, ENE JAINKOA.**

Jainko, nire Jainko zaitut,  
goizetik bilatzen zaitut,  
zure egarriz daukat gogoa, zure irrikaz haragia,  
lur idor, egarri, urgabe iduria.

Zu gertatu baitzara nire laguntzailea,  
pozez oihu dagit zure hegal-itzalean.  
Nire gogoa Zuri itsatsia dago,  
zure eskuinak eutsita nago.

**San Paulo Apostoluak Erromatarrei 12,1-2**

Senideok: Jaungoikoaren errukiagatik eskatzen dizuet, eskain ditzazuela zeuen buruak, opari bizi, santu eta atsegingarri Jainkoarentzat; hori da zuen egiazko gurtza. Ez zaitezte mundu honen antzeko egin, baizik-eta antzberritu zaitezte zuen iritzietan, Jaungoikoaren nahia ezagutu dezazuen: on eta bikain dena, eta atsegingarri zaiona.

**ALELUIA** Jesu Kristo gure Jaunaren Aitak  
argi bitza gure bihotzeko begiak,  
horrela jakin dezagun nolakoa den  
Haren deiaren itxaropena. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 16,21-27**

Aldi hartan, Jesus bere ikasleei adierazten hasi zitzairen, beharrezkoa zela, Bera Jerusalem joatea, han neke haundiak jasatea zahar, apaiz nagusi eta idazlariengandik, hila izatea eta hirugarren egunean biztea. Orduan Pedrok, Jauna bereiz harturik, honela esan zion haserre-antzean:

- 'Jainkoarengatik, hori ez, Jauna! Ez zaizu gertatuko horrelakorik!'

Jesusek, Pedrori begira, esan zion:

- "Ken zaitez nire aurretik, Satanas! Erorbide zara Niretzat; zure gogoetak ez bait dira Jaungoikoarenak, gizonarenak baizik".

Orduan Jesusek honela esan zien bere ikasleei:

**Oparigaien otoitza**

Onar, Jauna,  
zeure aginduz egiten dizugun oparia;  
eta, Zu goresteko ospatzen dugun  
Eukaristia honen bidez,  
santu egin gaitzazu eta emaguzu zeure salbamena.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Ogia bat da, eta horrela gu, asko izan arren, gorputz bat gara; ogi bakarretik jaten bait dugu guztiok, eta kaliza beretik edaten.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jainko ahalguztiduna,  
Ogi-ardo hauetan hartu ditugun  
Kristoren gorputz-odolek  
Beraren irudiko egin gaitzatela.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Gainerakoan, ene senideok, aintzakotzat har ezazue, egiazko, jator, zuzen, garbi, maitagarri, izen oneko den guztia; hartu aintzakotzat onbidetsu edo goragarri den guztia. Egizue, nigandik ikasi eta hartutakoa, nigandik entzun eta ikusitakoa. Eta bakearen Jaungoikoa zuekin izango da.

**ALELUIA** Nik aukeratu zaituztet mundutik,  
joan zaitezten eta fruitu eman dezazuen,  
eta zuen fruituak iraun dezan –dio Jaunak–. **ALELUIA!**

### **Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 21,33-43**

Aldi hartan, honela esan zien Jesusek apaiz nagusiei eta herriko zaharrei:

- “Entzun ezazue parabola hau: Ba zen etxeko jaun bat; eta mahasti bat landatu zuen, hesiz inguratu, bertan dolare bat egin eta dorre bat eraiki zuen; eta nekazari batzuei eman zien errentan eta bera urrutira joan zen.

Mahats-garaia etorri zenean, bere morroiak bidali zituen nekazariengana, zegozkion hartzekoak jasotzera. Nekazariak, ordea, morroiei heldu, eta bata jo, bestea hil egin zituzten, eta hirugarrenari harrika eman zioten. Berrito beste morroi batzuk bidali zituen, lehen baino gehiago; eta haiekin ere berdin egin zuten. Azkenean bere semea bidali zien, bere baitarako esanez: ‘Izango diote begirune nere semeari’.

Nekazariak, ordea, semea ikusita, honela zioten elkarri: ‘Hori da oinordekoa; goazen eta hil dezagun, eta guretzat izango da ondarea’. Heldu zioten, mahastitik kanpora bota, eta hil egin zuten. Mahasti-jabeak, datorrenean, zer egingo die nekazariei?”

Erantzun zioten:

- ‘Gaizto horiei heriotze gaiztoa emango die; eta bere garaian ordainak emango dizkioten beste nekazari batzuei utziko die mahastia’.

Jesusek esaten die:

- “Ez al duzue Liburu Santuan behin ere irakurri:

*Etxegileek baztertutako harria  
berori gertatu da giltzarria.  
Jaunak egin du hori,  
gure begien harrigarri?.*

Horregatik diotsuet Nik: Jaungoikoaren erreinua zuei kendu egingo zaizue, eta uzta ekar eraziko dion beste herri bati emango zaio”.

- “Nirekin etorri nahi duenak, uko egin biezaio bere buruari, har beza bere gurutzea, eta jarrai biezat. Izan ere, bere bizia salbatu nahi duenak, galdu egingo du; eta bere bizia Niregatik galtzen duenak, beretzat gordeko du. Zertarako du gizonak mundu guztia irabaztea, bere bizia hondatzen badu? Edo-ta zer eman dezake gizonak, bere bizia berriro eskuratzeko? Etorriko bait da Gizonaren Semea Aitaren aintzatan, bere aingeruekin; eta orduan bakoitzari bere egiteen neurriko ordaina emango dio”.

### **Oparigaien otoitza**

Eskaintza santu honek, Jauna,  
ekar diezaigula beti zure salbamenaren dohaina,  
sakramentuetan ospatzen duguna  
zure indarrak bete dezan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### **Jaunartze-antifona**

Zorionekoak bakegileak,  
Jaungoikoaren seme-alaba esango bait zaie.  
Zorionekoak erasotuak,  
hauena da-eta zeruetako erreinua.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Mahai santuko ogia harturik, Jauna,  
otoitz egiten dizugu:  
maitasunaren janari honek bizkor ditzala gure bihotzak  
eta eraman gaitzala Zu gure senideetan serbitzatzera.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**URTEAN ZEHAR XXIII GANDEA****Sarrerako antifona**

Zuzena zara Zu, Jauna, zure erabakiak ere zuzenak dira; joka zaitez zure ontasunaren neurrira morroi honekin.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, Zuk gaituzu salbatzen  
eta zeure seme-alabatza hartzen;  
ikus begi onez hain maite dituzun zeure seme-alabak,  
eta Kristorengan sinesten dugunoi  
emaiguzu egiazko askatasuna eta betiko bizia.  
Zure Seme Jesu Kristo ... Amen.

**Ezekiel profetaren liburutik 33,7-9**

Honela dio Jaunak:

- "Adanen seme, zu Israel-etxeko begirale ipini zaitut. Nire ahoko hitzak entzuten dituzunean, oihu egingo diezu nire izenean. Nik gaiztoari esaten badiot: 'Gaizkile, heriotzara galdua zaude', eta zuk hitz egiten ez baduzu, hura jakinaren gainean egon dadin eta bere jokabide okerra alda dezan, gaiztoa bere erruz hilko da, baina haren odolaren kontua zuri eskatuko dizut. Baina zuk jakinaren gainean jartzen baduzu gaiztoa, bere jokabide okerra alda dezan, eta hark aldatzen ez badu bere jokabide okerra, hau bere erruz hilko da; zuk, ordea, salbatu izango duzu zeure bizia".

**ERANTZUN-SALMOA 94****ENTZUNGO AL DUZUE GAUR JAUNAREN MINTZOA:  
"EZ GOGORTU ZUEN BIHOTZA".**

Zatozte, pozez oihu dagiogun Jaunari,  
txalo dagiogun salbamen dugun Harkaitzari.  
Hurbil gakizkion aurrera esker kantuekin,  
jai dagiogun txalo eta eresiekin.

Entzungo al duzue gaur Jaunaren mintzoa:  
"Ez gogortu zuen bihotza Meriban bezala,  
Masa-egunean basamortuan bezala.  
Zuen gurasoek han zirikatu ninduten,  
Nik eginak ikusi arren, tentatu ninduten".

Hesiak kenduko dizkiot,  
larre-soro izan dadin;  
Inguruko horma botako diot,  
hankapean ibilia izan dadin.  
Eremu bihurtuko dut,  
eta ez dute, ez inausiko, ez jorratuko;  
sasi eta larrek hartuko dute.  
Eta hodeiei aginduko diet,  
euririk ez dezatela egin haren gainera.  
Horra, bada: Israel-etxea da  
diren guztien Jaunaren mahastia;  
Judako gizonak dira  
hango landare aukeratuak.  
Jaunak zuzentasuna itxaro zuen,  
eta horra, odol ixurketak;  
zuzenbidea itxaron,  
eta horra, garrasi-hotsak.

**ERANTZUN-SALMOA 79****JAUNA, ZURE ONGINAHIA ERAKUS IEZAIGUZU,  
ZURE SALBAMENA EMAIGUZU.**

Egiptotik mahatsondoa atera zenuen,  
atzeriak iraitzirik landatu zenuen.  
Zabaldtu ditu adarrak itsasoraino,  
eta muskilak ibairaino.

Itzul zakizkigu, gudari-taldeen Jainko,  
begira zerutik, ikus, mahatso honi ager zakizkio:  
zeure eskuz landatu duzun aldaxka honi,  
Zeuk indartu duzun landareari.

**San Paulo Apostoluak Filipotarrei 4,6-9**

Senideok: Ez euki ezeren kezkarik; baizik-eta beti eta beti zuen esker onezko otoitz eta eskarietan agertu zuen eskabideak Jaungoikoari. Eta gogoeta guztiak baino haundiagoa den Jaungoikoaren bakeak, gordeko ditu zuen bihotzak eta zuen gogapenak Kristo Jesusi lotuak.

## URTEAN ZEHAR XXVII IGANDEA

### Sarrerako antifona

Zure esku daukazu, Jauna, den guzia; ez da inor zure nahiari gogor egin diezaiokenik. Zuk egin dituzu zeru-lurrak eta zerupean diren harrigarriak. Zu zara guztien jabe.

### Kolekta otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
neurrigabea izanik zure maitasuna,  
guk merezi eta uste dugun baino gehiago  
betetzen dituzu gure eskariak;  
isur ezazu gure gainera zure errukia,  
gaiztakeria guzietatik garbi gaitzazun  
eta eskatzera ausartzen ez garena ere  
eman diezaiguzun.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

### Isaias profetaren liburutik 5,1-7

Nire adiskidearen izenean nator ni kantari,  
maite kantu bat haren mahastiari.  
Bazuen mahasti bat nere adiskideak,  
mendi hegal gainean.  
Aitxurto zuen, harriak bildu,  
eta landare aukeratuak sartu.  
Dorrea eraiki zuen erdi-erdian  
eta tolarea jarri.  
Mahats ona itxaro zuen,  
eta basa-mahatsa eman zion.  
Orain, Jerusalem bizi zaretenok  
eta Judako gizonok,  
izan zaitezte zuek epaile,  
nik eta nire mahastiak dugun auzian.  
Zer da nere mahastiarentzat egin ahal izan,  
eta egin ez dudarik?  
Zergatik, mahats ona itxaro izanik,  
harek basa-mahatsa eman zidan?  
Orain, beraz, jakinaraziko dizuet nik,  
zer egingo diodan nere mahastiari:

## San Paulo Apostoluak Erromatarrei 13,8-10

Senideok: Ez euki zorrik inorekin, elkar maite izatekoa besterik. Maite duenak, bete du Legea. Izan ere, arako 'ez ezkontzarik nahasi, ez inor hil, ez lapurtu, ez grinaz irrikatu', eta beste edozein agindu, hitz honetan biltzen da: 'Maita lagunurkoa zeure burua bezala'.

Lagunurkoa maite duenak, ez dio gaitzik egiten. Maitatzea da, beraz, Lege osoa betetzea.

**ALELUIA** Jaungoikoa mundua Berekin adiskidetzen  
ari zen Kristogan,  
eta guri eman zigun adiskidetzearen hitza. **ALELUIA!**

## Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 18,15-20

Aldi hartan, honela esan zien Jesusek bere ikasleei:

- "Zure anaiak hutsegiten badizu, joan eta aitor eraz iezaiozu zuen bion artean bakarka. Entzuten badizu, irabazi duzu zeure anaia. Entzuten ez badizu, har itzazu zeurekin beste bat edo bi; bi edo hiru testiguren hitzak erabaki dezan gauza. Eta haiei entzuten ez badie, esan elkarteari. Eta elkarteari ere entzuten ez badio, arrotz edo zergalari bezala izan bedi zuretzat.

Benetan diotsuet: Zuek lurrean lotua zeruetan ere lotua izango da; eta zuek lurrean askatua, zeruetan ere askatua.

Benetan diotsuet hau ere: Zuetako bik elkar hartzen badute lur honetan zerbait eskatzeko, emango die zeruetan dagoen nire Aitak. Izan ere, bi edo hiru lagun nire izenean bildurik dauden batzarrean, han nago Ni haien erdian".

### Oparigaien otoitza

Jainko Jauna, bakearen eta egiazko maitasunaren iturria,  
iguzu, eskaintza honekin zure haunditasuna gores dezagula  
eta, sakramentu hau harturik,  
gogo leialez Zurekin bat egin gaitzela.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Ni naiz munduaren argia –dio Jaunak–; nere ondoren datorrena ez dabil ilunpetan, izango du bizirako argia.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Jauna, zure fededunak  
hitzaren eta sakramentuaren janariaz  
hazten dituzu eta biziberritzen;  
emaiguzu,  
zure Seme maitearen dohain haundiez baliaturik,  
beti Berarekin bat eginik bizitzea.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 21,28-32**

Aldi hartan honela esan zien Jesusek fariseearrei:

- “Zuek zer deritzazue? Bi seme zituen gizon batek. Eta zaharrenari esan zion: ‘Seme, zoaz gaur mahastira, lanera’. Hark erantzun zion: ‘Ez dut nahi’. Baina gero damutu eta joan egin zen. Bigarrenari ere gauza bera esan zion. Eta honek ‘banoa, jauna’ erantzun bai, baina ez zen joan. Bietatik, nor egin zuen aitaren gogoa?”

- ‘Lehenengoak’. Erantzun zioten.

Orduan Jesusek:

- “Egiaz diotsuet: Zergalariak eta emagalduek zuek baino lehenago datoz Jaungoikoaren erreinura. Izan ere, etorri zen Joan zuen artera, zuzenbidea hotseginez, eta ez zenioten sinetsi; zergalariak eta emagalduek, berriz, sinetsi egin zioten. Zuek, ordea, ikusi eta gero ere, ez zineten bihotz-berritu eta ez zenioten sinetsi”.

**Oparigaien otoitza**

Jainko guztiz errukitsua,  
atsegin dakizula gure eskaintza hau  
eta berak ireki dezaigula  
bedeinkapen guztien iturria.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**Jaunartze-antifona**

Honetan ezagutu dugu Jainkoaren maitasuna: Hark bere bizia eman bait du gugatik; guk ere geure bizia eman behar dugu senideentzat.

**Jaunartze ondorengo otoitza**

Sakramentu honek, Jauna,  
gure gorputz-arimak berri ditzala,  
Kristoren heriotza iragartzen dugunok  
Haren nekaldian bezala  
Haren Biztueran ere parte izan dezagun.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Oroi zaitetz zeure errukiaz, Jauna,  
 oroi zeure maitasunaz, betidanik bait dira.  
 Ez oroitu, Jauna, nere gaztealdiko hobenez,  
 ezta nere bekatuez;  
 oroi zaitetz nitaz zure maitasunean,  
 Jauna, zure ontasunean.

### San Paulo Apostoluak Filipotarrei 2,1-11

Senideok: Kristoren pozbidea eman nahi badidazue, eta ni arindu, Espiritu batek berak elkartzen bagaitu eta elkarrentzat bihotz-errukirik baldin badugu, emaidazue poz haundi hau: irauan elkarturik eta bihotzez bat, maitasun bera eta sentiera bera dituzuela. Ez egin ezer alderdikieriaz, ez haundikieriaz, baizik-eta apaltasunez; nork bere burua baino haundiagotzat besteak edukiz; ez bakoitzak berea eginez, batak bestearena baizik.

Izan itzazue zuengan Kristo Jesusi dagozkion asmoak:

Harek, Jainkoaren izaera bereko izanik,  
 ez zion gogor eutsi Jainkoarekin berdinean izateari;  
 bestela baizik, bereaz hustu egin zen,  
 morroi izaera hartuz,  
 eta beste edozein bezala azalduz.

Eta gizon bezala agerturik,  
 apaldu egin zuen bere burua,  
 menpeko eginez heriotzaraino,  
 gurutzeko heriotzaraino.

Horregatik Jainkoak goratu egin zuen,  
 eta izen guztien gaineko izena eman zion.

Jesusen izenera belaun guztiak makur daitezten,  
 zeruan, lurlean eta lurpean,  
 eta mingain guztiek aitortzen dezaten:

Jesu Kristo, Jauna da, Aita Jainkoaren aintzarako.

**ALELUIA** Nere ardiek aditzen dute nere mintzoa –dio Jaunak–;  
 Nik ezagutzen ditut,  
 eta haiek ondortik datozkit. **ALELUIA!**

## URTEAN ZEHAR XXIV IGANDEA

### Sarrerako antifona

Emaiezu bakea, Jauna, Zuregan uste on dutenei, zure profetak sinesgarri izan daitezten; entzun zure serbitzariaren eskaria eta Israel zure herriarena.

### Kolekta otoitza

Diren guztien egile eta nagusi zaren Jainko Jauna,  
 begira iezaiguzu,  
 eta emaguzu bihotz guztiz Zu serbitzea,  
 zure errukiaren ondasunak iritsi ditzagun.  
 Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

### Sirak-en liburutik 27,33-28,9

Iguingarri dira gorrotoa eta haserrea;  
 hoien jabe da bekataria.

Bendeku egiten duenak,  
 bendeku hartuko du Jainkoarengandik,  
 eta Jainkoak zorrotz eramango du  
 haren bekatuen kontua.

Barka zure lagunurkoari berak hutsegina,  
 eta hala, zuk eskatzean,  
 zuri ere barkatuko zaizkizu zure bekatuak.

Gizon batek beste bati gorrotoa baldin badio,  
 nola eskatu Jaunari osasuna?

Gizonak bere kidekoarentzat errukirik ez badu,  
 nola otoitz egin bere bekatuengatik?

Gizonak, bera haragizkoa izanda,  
 besteri gorroto badio,  
 nor izango du bere bekatuentzat barkamen-opari?

Izan gogoan bizitzaren azkena, eta utzi gorrotoa;  
 izan gogoan heriotza eta usteltzea,  
 eta jarrai leial aginduei.

Izan gogoan aginduak,  
 eta ez izan gorrotorik lagunurkoari;  
 izan gogoan Jaunaren elkargoa eta barka hutsegiteak.

**ERRUKI HUTSA DUGU JAUNA,  
ERRUKIA TA MAITASUNA.**

Ene arima, goretsazu Jauna,  
nire barren osoak Haren izen deuna.

Ene arima, goretsazu Jauna,  
eta ez ahaztu Hark zuri egina.

Hark sendatzen bait ditu zure hobenak,  
sendatzen zure gaitzak denak;  
begiratzen du heriotzatik zure bizia,  
ematen dizu koroatzat grazia eta errukia.

**San Paulo Apostoluak Erromatarrei 14,7-9**

Senideok: Guretakorik inor ez da beretzat bizi; ezta inor beretzat hiltzen ere. Bizi baldin bagara, Jaunarentzat gara bizi; eta hiltzen bagara, Jaunarentzat gara hiltzen. Beraz, nahiz bizitzan, nahiz heriotzean, Jaunarentzat gara. Honetarako hil eta biztu zen Kristo: bizien eta hilen Jauna izateko.

**ALELUIA** Agindu berria ematen dizuet –dio Jaunak–:  
Maite ezazue elkar,  
Nik maite izan zaituztedan bezala. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 18,21-35**

Aldi hartan Pedrok, Jesusengana hurbildurik honela esan zion:

- ‘Jauna, nere anaiak hutsegiten badit, zenbat aldiz barkatu behar diot? Zazpi aldiz?’

Jesusek erantzun zion:

- “Zazpi aldiz ez, baizik zazpitan zazpi hamar aldiz.

Horregatik, zeruetako erreinua, morroiekin bere harremanak garbitu nahi izan zituen erregearen antzekoa da. Hasteko, hamar mila talentu zor zizkion bat ekarri zioten. Eta nondik ordaindurik ez bait zeukan, nagusiak agindu zuen haren emazte, seme-alaba eta zituen guztiak saltzeko, eta horrela zorrak ordaintzeko.

**Sarrerako antifona**

Egin diguzun guztia, Jauna, zuzenbidez egin duzu; bai, bekatu egin dugu zure aurka, eta ez ditugu bete zure aginduak; baina emaitza goralmen zure izenari, eta har gaitzazu zure erruki haundiz.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, barkatzen eta errukitzen agertzen duzu batez ere zure ahalmen haundia; isur ezazu gure gainera etengabe zure grazia, Zuk agindutako ondasunetara leiatuz, zeruko zoriona iritsi dezagun. Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Ezekiel profetaren liburutik 18,25-28**

Honela mintzo da Jauna:  
“Zuek diozue: ‘Ez da zuzena Jaunaren jokabidea’.  
Entzun, bada, Israel-etxe:  
Nere jokabidea zuzena ez dela?  
Jokabide okerra ez ote da, gero, zuena?  
Zintzoa, bere zuzentasunetik okertu,  
gaiztakeria egin eta hiltzen bada,  
egindako gaiztakeriengatik hiltzen da.  
Eta gaiztoak, egindako bekatua damu duenean,  
eta legez eta zuzentasunez dabilenean,  
berak bizierazten du bere burua.  
Bere bekatuak ikusita, bihotzberritzen bada,  
eta egindako gaiztakeria guztiak damu baditu,  
biziko da eta ez da hilko”.

**ERANTZUN-SALMOA 24**

**EZ EGON, JAUNA, NIGANDIK URRUN;  
ZUREA NAUZU, ZATOZKIT LAGUN.**

Erakuts neri, Jauna, zeure bideak,  
adierazi zeure bidexkak.  
Eraman nazazu zeure egi bidetik, eta argitu,  
Zu bait zara nere Jainko salbatzaile,  
Zu zaitut egun osoan neure itxaropide.



- 'Adiskide, ez dizut bidegabekeriarik egin. Ez al ginen eguneko denario batetan hizketatu? Har ezazu zeurea duzuna, eta zoaz. Azkeneko honi ere, ordea, zuri adina eman nahi diot. Ez al zait neri zilegi, nahi dudana egitea nere gauzetan? Edo bekaizti izan behar al duzu zuk, ni ezkuzabala naizelako?'

Horrela, bada, azkenekoak lehenengo izango dira, eta lehenengoak azkeneko”.

### **Oparigaien otoitza**

Bihotz onez, hartu, Jauna, zeure herriaren eskaintza:  
fede beroz aitortzen duena  
sakramentuen bidez iritsi dezan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### **Jaunartze-antifona**

Ni naiz Artzain ona –dio Jaunak–; ezagutzen ditut nere ardiak,  
eta neurek ezagutzen naute Ni.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Indar itzazu, Jauna, zeure graziaz  
sakramentu hauek ospatu dituztenak,  
misterio hauetan eta bizitza guztian  
zure salbamenaren fruituak jaso ditzaten.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

Morroiak, nagusiaren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: 'Emaidazu epea, eta dena ordainduko dizut'. Erruki izan zuen nagusiak morroia, askatu zuen eta barkatu egin zion zorra.

Morroi horrek, atera zenean, hor topatzen du, ehun denario zor zizkion bere morroi-lagun bat; lepotik heldu eta, itobeharrez, honela eraso zion: 'Ordain iezaidazu zor didazuna'. Eta lagunak, haren oinetan ahuspezturik, arren eta arren esaten zion: 'Emaidazu epea eta dena ordainduko dizut'. Baina bestea ezetzean zegoen; eta joan eta giltzapean sartu zuen, zorra ordaindu arte.

Haren morroi-lagunek, gertatu zena ikusita, biziro atsekabeturik gelditu ziren; eta nagusiarengana joan eta salatu egin zioten dena. Orduan nagusiak deitu eta esan zion: 'Morroi gaiztoa, zor guztia barkatu dizut, eskatu didazulako; ez al zen bidezkoa, zu ere zure morroi-lagunaz errukitzea, ni zutaz errukitu nintzen bezala?' Eta nagusiak, haserretuta, zigorlarien esku utzi zuen, zor guztia ordaindu arte.

Zuei ere berdin egingo dizue zeruetako nere Aitak, elkarri bihotzez barkatzen ez badiozue”.

### **Oparigaien otoitza**

Bihotz onez entzun, Jauna, gure eskariak  
eta onartu zure serbitzarien eskaintzak;  
bakoitzak zure izena goresteko eskaintzen duena,  
denen salbamenerako izan dadila.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

### **Jaunartze-antifona**

Bedeinkatzen dugun esker onezko kalizak guztiok  
Kristoren odolean elkartzen gaitu; eta zatitzen dugun ogiak Kristoren  
gorputzean bat egiten.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Jaunartze honen grazia, Jainko Jauna,  
gure gorputz-animen jabe egin dadila;  
geure nahiak ez,  
baizik-eta grazia honen indarrak  
agindu dezan gure bizitzan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. AMEN.

**URTEAN ZEHAR XXV IGANDEA****Sarrerako antifona**

Ni naiz herriaren salbamena –dio Jaunak–. Edozein estualdietan dei egiten badidate, Nik entzungo diet, eta haien Jauna izango naiz betiko.

**Kolekta otoitza**

Jainko Jauna, lege bakar hau eman diguzu:

Zu eta lagun hurkoa maitatzea;  
iguzu, zure aginduak betez,  
betiko bizitzara iritsi gaitzela.  
Zure Seme Jesu Kristo... AMEN.

**Isaias profetaren liburutik 55,6-9**

Bila ezazue Jauna, aurki daitekeen artean;  
hotsegiozue, hurbil dagoen artean.  
Gizon bihurriak utzi beza bere bidea,  
eta gaiztoak bere asmoak;  
itzul bedi Jaunarengana,  
eta errukituko zaio;  
gure Jaungoikoarengana,  
guztiz errukior bait da.  
Nere asmoak ez dira zuen asmo;  
zuen bideak ez dira nere bide –dio Jaunak–.  
Lurretik zerua bezain urruti daude  
nere bideak zuen bideetatik,  
nere asmoak zuen asmoetatik.

**ERANTZUN-SALMOA 144****ERRUKI HUTSA DUGU JAUNA,  
ERRUKIA TA MAITASUNA.**

Egun oro zaitut bedeinkatuko,  
zure izena menderen mende dut goretsiko.  
Haundi da Jauna, guztiz goresgarri,  
Haren haunditasuna ez daiteke igarri.

Gupibera da Jauna eta errukiorra,  
berant-haserre eta guztiz onbera.  
Ona da Jauna guztientzat,  
errukior Berak egin dituenentzat.

**San Paulo Apostoluak Filipotarrei 1,20c-24.27a**

Senideok: Kristo goretsia izango da nere gorputzean, bizi banaiz edo hiltzen banaiz. Niretzat, bizitzea Kristo da; eta hiltzea, irabazia. Baina gorputz honetan biziz, lan ona egin badezaket, ez dakit nik zer aukeratu. Bi aldetatik nago estu: alde batetik, hiltzea nahi nuke, Kristorekin egoteko; niretzat hau askoz hobe bailitzateke. Bestetik, berriz, bizirik gelditzea beharrago iruditzen zait zuentzat. Gauza guztien gainetik, bizi zaitezte Kristoren Ebanjelioari dagokion bezala.

**ALELUIA** Ireki iezaiguzu, Jauna, geure bihotza,  
gogoz onar ditzagun zure Semearen hitzak. **ALELUIA!**

**Jesu Kristoren Ebanjelioa san Mateoren liburutik 20,1-16**

Aldi hartan, Jesusek parabola hau esan zien bere ikasleei:  
- "Zeruetako Erreinua, goizean goiz bere mahastirako langile-bila atera zen etxeko jaunaren antzekoa da. Eguneko denario batean hizketatu ondoren, bere mahastira bidali zituen. Atera zen berriro goizerdi aldera, eta beste batzuk ikusi zituen herriko enparantzan egonean zeudela, eta esan zien: 'Zoazte zuek ere nere mahastira, eta emango dizuet bidezko dena'. Eta haiek ere joan ziren. Atera zen berriz ere eguerdi inguruan eta arratsalde-erdian, eta gauza bera egin zuen.

Arratsalde-beranduan atera zenean, beste batzuk aurkitu zituen, oraindik geldi zeudela. Eta esan zien: 'Zertan zaudete hemen, egun osoan geldi?' Haiek esan zioten: 'Ez bait gaitu inork hartu lanerako'. Etxeko jaunak orduan: 'Zoazte zuek ere nere mahastira'.

Iluntzean mahasti-jabeak honela esan zion bere morroi-buruari: 'Deitu langileei, eta emaiozu bakoitzari bere saria, azkenekoetatik hasi eta aurrenekoetaraino'.

Etorri ziren, bada, arratsalde-berandukoak, eta denario bana hartu zuten. Lehenengoak etorri zirenean, gehiago hartuko zutela uste zuten; baina haiek ere denario bana hartu zuten. Eta marmarren hasi ziren etxeko jaunaren kontra, esanez: 'Azken horiek ordu bat besterik ez dute lan egin, eta gurekin berdindu dituzu, egun guztiko nekea eta beroa eraman dugunokin'. Baina hark erantzun zion haietako bati: